

•eus Jakⁱⁿ 232

herria kultura hizkuntza maiatza-ekaina
2019

Txillardegi, postmodernitatea
eta postkolonialismoa

ALAITZ AIZPURU

Herri mugimenduak eta ezkerreko
gobernuak Gipuzkoan

ANDERE ORMAZABAL

Euskal raparen hausnarketa
antropologiko historikoaren hazia

ERIC DITXARRI

Musikaren denbora makina

LOREA ARGARATE

EGUNEN GURPILEAN

ITZIAR UGARTE · JAIME ALTUNA

ALBA GARMENDIA

Jakin^{•eus}**232**
herria kultura hizkuntza maiatza-ekaina
2019



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joan Mari Torreal dai

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,
Joan Mari Torreal dai, Eguzki Urteaga

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea / Gudarien etorbidea, 29 / 20140 Andoain

Tel. 943 21 80 92

jakin@jakin.eus

www.jakin.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia

*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza
Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

GAIAK

- 11** Txillardegi, postmodernitatea
eta postkolonialismoa
Alaitz Aizpuru

Postmodernitatea deitzen denaren zantzuak euskal letretan jada 50eko hamarkada bukaeran eta 60koaren hastapenetan agertu zirela argudiatzen da. Pentsamendu aldaketa hori, neurri handi batean, gerren osteko belaunaldia edo ‘56ko belaunaldia’ deitu ohi zaionaren eskutik etorri zen, eta hor Txillardegiren pentsamenduak ezinbesteko garrantzia izan zuen.

- 31** Herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen
ezinak eta eginak
Gipuzkoako esperientzia (2011-2015)
Andere Ormazabal

Herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen arteko harremanak aztertzen dira, Gipuzkoako Foru Aldundiko (2011-2015) gobernantza sareen kasua abiapuntu hartuta.

67 Euskal raparen hausnarketa antropologiko
historikoaren hazia
Eric Ditzarri

Euskal raparen historia idazteari ekiten zaio. Izan ere, punkaren, metalaren eta rock erradikalaren ondotik, rapa Euskal Herriko musika alternatiboen eszenan bere lekua ari da egiten. Euskal raparen mugimendua ikertzea oso garrantzitsua da al-daketa politiko-sozialek eta estetika musikalaren birmoldatzeak dituzten bide paralelo eta gurutzatuak ulertu eta sakontzeko.

93 Musikaren denbora makina
Lorea Argarate

Denboraren makinan sartu eta historian zehar bueltatxo bat ematen da testuinguruak musikan izan duen eragina ikusiz. Etorkizunari ere begiratzen zaio.

EGUNEN GURPILEAN

107 Kultura
Itziar Ugarte

113 Soziolinguistika
Jaime Altuna

119 Glocalia
Alba Garmendia

KONTRAZALA Unai Iturriaga

Txillardegi, post-modernism and post-colonialism

Alaitz Aizpuru, a graduate in Philosophy, argues that the first signs of what is known as post-modernism were already appearing by the late 50s and early 60s in Basque arts. That change in mentality and thought was brought about to a large extent by the post-war generation, also known as the 56 Generation, and Txillardegi's thought had a major bearing on that change. [Alaitz Aizpuru](#)

Popular movements and left-wing governments.

The Gipuzkoa experience (2011-2015)

The professor of social sciences Andere Ormazabal analyses the relationships existing between popular movements and left-wing governments by taking the case of governance networks of the Provincial Council of Gipuzkoa during the 2011-2015 term as a starting point. [Andere Ormazabal](#)

Anthropological/historical reflection about Basque rap

The anthropologist, poet and artist Eric Ditzarri writes about the history of Basque rap. In the wake of punk, metal and radical rock, rap has been pursuing its own path on the alternative music scene in the Basque Country. It is very important to analyse the Basque rap movement in order to better understand and conduct an in-depth study of parallel trajectories and crossovers in socio-political changes, and transformations in musical aesthetics. [Eric Ditzarri](#)

The musical time machine

The engineer, musician and educator Lorea Argarate enters the time machine in order to embark on a journey through history, with a view to revealing the influence of context on music. She also looks ahead to the future. [Lorea Argarate](#)

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic and globalization matters. This section draws on various specialists: Itziar Ugarte, Jaime Altuna and Alba Garmendia.

Various authors

Modernitatearen autoengainua ikustera iritsi den pentsamendu eta jarreratzat ulertzen badugu postmodernitatea, esan daiteke 56ko belaunaldiaren pentsamenduak hortxe hartzen duela abegi. Hori da Alaitz Aizpuruk artikulu mamitsu bategan dakarkigun hipotesia, bereziki, Txillardegiren pentsamenduari eta ekarpenari dagokiola. Autoengainu horretatik askatzeko, postkolonialismoa –gaur egun, teoria dekolonialek esan ohi dutenez, esklaboa kolonialismoaren ispiluan bere buruari begira, eta esklaboa askatasunaren izenean ukatu zaion askatasunaren ispilua nagusiari itzultzen– eta existentzialismoa –krisiaren pentsamendua– akuilu izan zituzten Txillardegik eta bere belaunaldiak. Eta bi leku horietatik modernitateari egin dakioken kritika ez da modernitate hegemonikotik egin daitekeen bera.

Aizpuruk Txillardegiren pentsamendua eta ekarpena begirada kokatu batera dakar, Txillardegiren lekua ere kokatua zelako, erradikala, hitzaren zentzurik eta literalenean, hau da, erroetara lotua –Unai Iturriagak kontrazalerako osatu duen afixa totemikoak ere erradikal jasotzen du Txillardegi–. Begirada kokatu horrek Txillardegiren eta 56ko belaunaldiaren argazki egiazkoagoa dakarkigu, eta justuagoa, eta baita gaur egunerako baliagarriagoa eta erreskatagarriagoa ere. Begirada kokatu horretatik ikertzeak –hau da, bere historikotasunean baina bere historian eta bere emantzipazio arrazoi eta helburuetan kokatuta aztertzeak– beste engainu batek ere askatzen gaitu: menperatua den herri edo hizkuntza edo kultura edo komunitate baten azterketarako hegemoniaren pentsamenduaren betaurrekoak –eta pribilegioak, jakina– janzteak eta ñabardurarik gabe, edozer berdinduz, argazkia egiteak argazki desenfokatua, eta, are, okerra, are justu negatiboa –zuriak beltz eta beltzak zuri– ekar lezakeela.

Horrako auzi interesgarri eta funtsezko hori dakar artikulu solteaz osaturiko zenbaki berri honek. Bigarren artikuluak ere argazki sakon bat egiten digu oso gaurko dugun auzi baten bueltan: demokrazia ordezkatzailaren krisi betean, parte hartze politikoaz une oro hizketan ari garenean, gobernantza modu berriak ahotan ditugunean, herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen arteko

harremanak nolakoa behar duen izan, nola artikulatu daitezkeen, zer dioen teoriak, baina, are interesgarriagoa dena, zer ikas dezakegun hemengo praktika kokatuetatik; kasu honetan, Gipuzkoako Foru Aldundian, 2011tik 2015era Bildu koalizioa agintean egon zenean Berdintasun Zuzendaritzak –mugimendu feministarekin eta emakumeen elkartegintzarekin harremanetan– eta Ingurumeneko Departamentuak –hiri hondakinen eta erraustegiaren aferaren erdian– izandako jarduna eta esperientzia ikertu baititu Andere Ormazabalek, irakurri berri duen doktorego tesiaren laburpen esanguratsu bat artikulura ekarrita.

Azken bi artikulua musikaren inguruan dira. Bi horiek ere hemen kokatuak. Eric Ditzarri antropologoak euskarazko raparen gainean jarri du begirada, Euskal Herriko musika eszenan bere lekua hartzen ari delako eta, rock erradikalak egin bezala, aldaketa politiko-sozialekin eta estetiko-musikalekin harreman zuzena duelako. Azkenik, Lorea Argarate musikari eta ingeniariak, bi lekuen uztartetatik, musikaren eta bere ingurune sozial eta kulturalaren eta teknologikoaren arteko harremanaz gogoetatu du.

Egunen gurpilean saileko artikulugileak ere gai interesgarri dartzoz: Itziar Ugartek, besteak beste, *Patria* eleberraren ingurukoak ditu gogoetagai; Jaime Altunak Txillardegiren soziolinguistika tematikoa hartu du abiapuntu; eta Alba Garmendia *fake news*-en fenomeno zahar-berriari buruz ari da.

GAIAK

- 11** Txillardegi, postmodernitatea
eta postkolonialismoa
Alaitz Aizpuru
- 31** Herri mugimenduen eta ezkerreko
gubernuen ezinak eta eginak
Gipuzkoako esperientzia (2011-2015)
Andere Ormazabal
- 67** Euskal raparen hausnarketa
antropologiko historikoaren hazia
Eric Ditzarri
- 93** Musikaren denbora makina
Lorea Argarate

Txillardegi, postmodernitatea eta postkolonialismoa

I Alaitz Aizpuru
Filosofian lizentziaduna

Postmodernitatea deitzen diogunaren zantzuak euskal letretan 50eko hamarkada bukaeran eta 60koaren hastapenetan agertu ziren jada. Horra artikulua honen defendatu nahi duen hipotesia. Lehen ere esana izan arren,¹ irakurtzera askoz ere ohituagoak gauden euskal postmodernitateari buruzko beste hipotesien artean, gutxi zabaldua eta nekez aipatua den ideia bat.

Balitzko euskal postmodernitatearen edo euskal pentsamendu postmodernoen inguruan defendatzen diren terminoaren interpretazio eta datazio desberdin askotarikoak ezetsi gabe, hemen euskal pentsamendu postmodernoren beste ulerkerak bat da argudiatu nahi dena. Pentsamendu postmodernoa euskal letretan kontatu ohi zaiguna baino lehenago agertu zela uste baitugu. Hain zuzen ere, 50 eta 60ko hamarkaden bueltan, gerren osteko belaunaldia edo *56ko belaunaldia*² deitu ohi zaionaren eskutik. Eta hasieran txinparta edo zizpriztin izaeraz izan bazen ere, urte gutxiren buruan autore zenbaiten lanak blaitu zituelakoan gaude. Txillardegi da autore horietariko bat, bereziki ezinbesteko garrantzia izango zuenetariko bat, gainera.

Postmodernitatearen jite kultural eta etikoari helduko dio-
gu hemen, eta hortik abiatu eta garatuko dugu interpretazioa.
Terminoak modu honetara ulertuz:

Postmodernitatea pentsamendu estilo bat da. Egiaren, arrazoi-
menaren, identitatearen eta objektibitatearen nozio klasikoez
zein aurrerapen unibertsalaren edo emantzipazioaren ideiaz,
errelatu handiez eta behin betiko azalpen sistemez mesfidatzen
dena (Eagleton 1996: VII).

Mardonesen hitzekin osatzera, postmodernitatea, denbora
bat baino gehiago, jarrera bat dela esango genuke, moderni-
tatea bere autoengainua ikustera iritsi den eta bere edukia
eta mugak seinatu dituen egoera (Mardones 1988: 10-11).

Gaztedi berria mundu moderno batean

Modernitatea eta mundu modernoak bi gauza desberdin di-
rela zioen Hannah Arendtek. Zientifikoki XVII. mendean
hasitako modernia XX. mendean hastapenetan bukatu
bazen, politikoki mundu modernoak lehenengo ez-tanda ato-
mikoarekin jaio zela zioen (Arendt 1993: 39).

1945, Europarentzat 0 urtea (Etcheverry-Ainchart eta
Etcheverry-Ainchart 2013: 11), lehen ere modernitateak
beti izan bazituen ere kritikak, bi mundu gerren ostean beste
garai bat ireki da; ordura arteko modernitateko proiektuaren
optimismoari kritikak, susmoak eta eszeptizismoak hartu die
lekua, eta pentsamendu eta ekintzabide garaikideari ezinbes-
teko galderak ireki zaizkio.

Nolabait, euskal munduari dagokionez, mundu moderno
desliluratu horren hastapena 36ko gerrak ekarri zuela esan
genezake. Urte batzuk geroagoko II. Mundu Gerrak eta ez-
tanda atomikoak guztiz egikaritu zuten arrakala, eta on-
dorengo Aljeriako gerrak zinez areagotuko.

Joseba Intxaustiri jarraiki, eta nagusiki Hegoaldeari dago-
kionez, 40ko eta 50eko hamarkadak bi hamarkada kontra-
jarriztat uler litezke. 40koa gerraoste gordinena, euskal kulturari
dago-kionez lugorri kulturala, harik eta 1947-1949 inguruan

zerbait mugitzen hasi den arte. 50eko hamarkadak, aldiz, berritasun nabariak ezagutu eta ekarriko ditu, eta ondoren etorriko denaren oso bestelakoa izan arren, 60ko hamarkadaren aurrekari garrantzitsua izango da (Intxausti 2007: 54).

Hala, Pako Suduperi hauxe irakurtzen diogu: 50eko hamarkadan jazotzen ari ziren bizimodu eta ideien aldaketen isla izandako eztabaida ideologiko eta linguistikoak aintzat hartu eta ezagutu gabe, 60ko hamarkada ulertzea ezinezkoa dela (Sudupe 2011). Antzertsu Txema Larreari, 1959tik aurrera politikan eta kulturaren agerturiko ideia eta eduki berriak aurreko hamarkadakoak, 50ekoak, zirela dioenean (Larrea 1989). Eta berdin Xabier Aierdiri, 50eko hamarkada erabakigarrienen artean sartzen duenean; XX. mendea Euskal Herria eraldatu zuen mendetzat har badaiteke, 1950etik 1960rako eraldaketa hori ahalbidetu zuen hamarkada gisa hartu behar dugula, eta hamarkada horren esanahi sakona eta eduki zuen garrantzi estrategikoa iraultza ikusezin gisa izendatzen dituenean (Aierdi 2007: 92).

Hori horrela, aipatzekoa da, gerren osteko euskal historiari buruz jarduterakoan, 60ei eman izan bazaie ere ia beti protagonismoa, eta guztiz bereziki 60etako bigarren erdiari, badi-rudiela 60ak ulertzeko, ezinbestez eta hasteko, 50ei begiratu behar zaiela. Ezinbesteko garrantzia dutela urte haiek ondoren etorriko den Euskal Herria konprenitzeko, eta gehiegitan ahaztu egiten garela horretaz.

Gaztedi berria, gerraosteko belaunaldia edo hazaldia, ohiko terminologia da euskal letretan 50eko bukaera eta 60ko urteetan Euskal Herrian jazotako fenomeno soziologiko, politiko

Gaztedi berria,
gerraosteko belaunaldia
edo hazaldia, ohiko
terminologia da
euskal letretan 50eko
bukaera eta 60ko
urteetan Euskal Herrian
jazotako fenomeno
soziologiko, politiko eta
kultural esanguratsuari
erreferentzia egiteko

eta kultural esanguratsuari erreferentzia egiteko. Eta autore edo idatzi batetik bestera adierazlea aldatu arren, funtsean guztiek hasiera berri bat adierazi nahi dute. Aurrekoarekin hautsi eta euskal mundura aldaketa sakon eta esanguratsuak ekarriko dituen denbora berri baten esnatzea.

Hori horrela, Mixel Labegerieren «Gu gira Euskadiko gaztedi berria, Euskadi bakarra da gure aberria» gerraosteko hazaldiaren ereserki bat izan da kasik (Azurmendi 1996: 292, Lopez Adan 1996: 227, Landart 2013: 18, Etcheverry-Ainchart eta Etcheverry-Ainchart 2013: 90). Eztarriak urratzeraino abestua, garaian bizi eta sumatzen zen hasiera berri baten adierazle esanguratsua zaigu.

1960-gn. urte inguruan azaltzen da euskal arazoetara belaun berri bat. Urte hori ezkeroztik, behar bada pixka bat lehentxoagotik, euskal adimena ta euskal sentipena berritu egiten da, bere baitan zartada bat sentitzen du ta ordu ezkeroztik gertaera hau, belaun berri baten esnatzea, kontuan artu gabe ez dago aztertzetik ez euskal kultura, ez euskal politika, ezta ere euskaldunen artean dabilzan ideialogiak. Hau da azken amar urteetako gertaerarik bortitzena. Gure historia gertuenaren azalpenik ikusgarriena. Honekin ez dut juizio bat egin nahi, frogatua dagoen gertaera bat aitatu baizik.

Belaun hau rebeldea, konformagaitza ta radikala izango da. Bere jatorria ikusirik, ezin zitekean bestela izan (Arregi 1967: 37).

Gaztedi berria, baina, belaunaldi biologiko batez baino gehiago, garai berriaren, asmo berritzailearen aldeko, inguruko giroari, mugimenduari erreferentzia egiteko ulertu behar dela zioen Azurmendik: «Gerraondoko hasiera berria esaten denean, ez da belaunaldi berria ulertu behar. Berria denbora da, egoera. Eta ‘berriaren’ esanahi konplexuan hori ere» (Azurmendi 1998: 26).

Hastapen berri horretan, komeni da gogoraztea mundu zahar, berri eta berri-berri diferenteak dabilzala hasieran batera nahasita, interpretazio murriztaile oro ekiditearren. Eta nahiz eta zahar eta gazteen arteko teinka egon ere bada goen, hasieran adin kontua baino/adina mentalitate kontua izango dela azpimarratzea ez da alferrikakoa.

Ez da hauxe ahaztu behar:

Europar une hartan hedatzen ari ziren korrante liberalak jaso, birpentsatu eta zabaltzen hastea, frankismoak ezarritako nazional-katolizismoaren barruan eta euskal nazionalismoaren ikuspegi teokratikoaren kultur erresuman, tradizio gogor baten kontra talkan hastea suposatzen zuen (Iztueta 1996: 358).

Gerraostean, tradizio guztiak batera iritsi dira. Aurrera egiteko nahian, pentsamendu iturri, borroka ildo, inspirazio, asmo eta esperantza andana nahaspilan jaso eta bizi izan dituzte. Hari edo iturri horien garapenean, batzuk elkarren artean korapilatu dira gero, beste batzuek puntu honetan bai eta beste horretan ez elkarrekin halako dantza bat egiten ikasi dute, zenbait etsaitu ere etsaituko dira, eta beste batzuek nahasketa baino bide propio autonomoagoa lehenetsi dute. Garaikotasun eta ez-garaikotasunen artean igeri, denbora zein tempo diferente ugariren arteko (des)fasean, hasiera desberdin ugari jaiotzen dira aldi berean.

Aski izan ziren hamabost urte (1957-1972) euskal kulturak homogeneo izateari utz ziezaion. Pentsamendu-korrante asko txertatzen dira: existentzialismoa, sozialismoa, marxismoa, sekular-tasuna, eta besterik (Iztueta 1996: 359).

Txillardegiren lana eta pentsamendua guztiz markatuko dituen pentsamendu ildoak existentzialismoa da. Existentzialismoa, zenbait autoreren pentsamendua baino haratago, jarrera bat izan da, garai baten filosofia. Krisiaren filosofia.

Oso labur, guztiak baieztatzen duten hori errepikatuz, alegia, krisiko filosofia dela, azal daiteke zergatik den existentziaren filosofia gure garaiaren filosofia. [...] Aitortzea gustatu ala ez, krisia gure egoera espiritualaren izateko modua da. [...] Existentzialismoa da, hain juxtu, beharbada krisi horren interpretaziorik autentiko eta errebelaziorik sakonena (Bobbio 1949: 14-15).

Belaunaldi berria kraskatze bikoitz baten erdian sortu da. Aurreko belaunaldia irmo sostengatzen zuen ziurtasun bikoitz baten azken orduetan. Erljioarena eta zientifizismoarena. Gogoeta garaikidearen abiapuntua hor kokatu behar da (Garaudy

1969: 10). Baikortasun positibistaren gainbeherak eta Jainkoaren isiltze edo heriotzak izan dute aranotsik euskal letretan, Txillardegiren idatziak giro horretan trenpatuak daude.

Hasiera berri horretan:

Kultura zahar horren ihesi, existentzialismoak –Espainian debekatua egotean erakusten zuen erakarmenaz gain– mintzaira bat eskaintzen zuen, paradigma bat, unibertso bat, globalki aurreko guztiarekin hausteko (erlijioarekin, politikarekin) eta salto batek mundu berri batean paratzeko (Azurmendi 1998: 128).

Existentzialismoa, modernitate kraskatu hori deseraikitzeaz eta deseraikitze horren ondorioak kontsekuenteki hondoraino eramaten saiatzeaz gain (Sartre 1996: 37-39), lugorri espiritual,

Existentzialismoa eragile izan dute belaunaldi berriko zenbait kidek, eta Txillardegi eragiletza hori sustatzen saiatu da, bai bere eleberriekin, bai garaiko existentzialismoari buruzko idatziekin

kultural horretan zentzuaren galdera, zentzuaren garrantzia eta zentzu berrien bilaketaren beharrezkotasuna bizirik mantentzen saiatu den pentsamendu ildo bat izan da. Deseraikitzeaz bezainbeste eraikitzeaz arduratu dena, nihilismoa helmugatzat ez, abiapuntutzat izan duena. Eta hastapen berri horretarako, unibertsaltasun eta orokortasun esentzialistetatik urruti, bizitzara, existentziara, gizakira, hezur-haragizko nor-

banako kokatuetara zuzendu dena. Existentzialismoa eragile izan dute belaunaldi berriko zenbait kidek, eta Txillardegi eragiletza hori sustatzen saiatu da, bai bere lehen eleberriekin, bai garaiko existentzialismoari buruzko idatziekin.

Anbiguitasun desorientagarri bat

Euskal munduaren birsortze horretan, hazaldi berria, gerrek eta gerraosteek suposatu duten gotortze eta lugorri kulturalaren ostean, haize berrien ufadez, pentsamendu joera guztiek

aldi berean dantzatua, egoera konplexu batean jaio da. Hil-tzen ari den eta debekatua den hizkuntza, kultura eta giza-tasun batekin eta baten alde engaiatuak batetik, eta, bestetik, europar modernitate baten bukaera oihartzunez inguratuta europar postmodernitatearen ateetan. Aurpegi anitzeko ingurumari horretan, durundi desberdinen artean beren bide propio baten bila, presaz, ez da lanik faltako.

Hori dela bide, garaiko testuetara gerturatuko denak, eta bereziki hastapen urteetakoetara, anbigutasun nahasgarri bat sumatuko du. Desorientagarria zenbaitetan, are labirintikoa ez gutxitan.

Izan ere, nahasiago batzuetan, argiago beste batzuetan, modernitatea eta postmodernitatea neurri batean elkarrekin etorri eta elkarren eskutik helduta ibili direla esango genuke garaiko autore zenbaiten lanetan. Urteak aurrera izaera definituagoa hartuko duen pentsamendu bati forma emanez.

Diskurtsoaren izaera bikoitz edo konplexu horren isla da, adibidez, urte haietako kontzeptu eta terminoen erabilera. Hasieretan, gardenak izatetik arras urruti, esanahi bikoitza agertuko dute maiz, are zenbaitetan gehiagotakoa ere. Idatzi batean esanahi bat hartuz eta beste batean beste bat, hemen positiboki, hor negatiboki, hemen esanahi zaharrez, hor esanahi berriz, hemen xehetasun bat erantsiz, hor ñabardura bat gehituz. Gaurko irakurlearen ulermena hasiera batean ez gutxi zailduz.

Alta, behin testuingurua, autoreon pentsamendua, autoreon lana sakonkiago eta ikuspegi orokorrago batetik ezagutu ahala, bidera ateratzen zaiguna egin zuten pentsamenduaren deseraikitze eta eraikitze lanaren zabalera eta sakontasuna da. Hitz solte eta soiletatik haratago, gerren osteko hastapenetik presente zegoen eraberritze nahiaren dimentsioa.

Txillardegiren lanean, esaterako, anbibalentzia horren izaeta zinez ondo erakusten dute ondorengo hitzok: modernia, moderna, mitoa, transzendentzia, fedea, egia, historia, denbora, arrazoimena, irrazionalismoa, morala, gizona, aurre-rapena, errealismoa, legitimismoa...

Hitzok, kultura zaharreko borrokatu beharreko ideia legez ez ezik, esanahi berrituan datozen kontzeptu positibo gisa agertzen dira. Oraindik borrokatu nahi duten kultura zaharkitu horretatik jasotako tresnekin (ideiekin, kontzeptuekin, eskemekin), baina jada beste zerbait esan nahian, esanahi berriak entseiatzen, hasiera berri baten seinale den birsignifikazio lan betean.

Nabarmena da, zentzu horretan, Txillardegiren 50eko azken urteetako eta 60ko hastapenetako idatzien eta ondorengo 70en birako gai horiexen inguruko izkribuen artean dagoen aldaketa, garapena eta are kasu batzuetan jauzia. Bilakaera garbia dago. Haatik, hasieretako idatziek eta ondorengoek barne koherentzia eta kohesio handia dute euren artean. Hasieretako konbikzio gehienek urteen joanean ere hor diraute, beste hitz, beste kontzeptu, beste gerturatze, beste xehetasun eta beste elkarlotze bat badute ere. Inspirazio, etorri, egurats berberak elikatzen dituztela esango genuke. Hasierako intuitzioak hor dirauela.

Asmo emantzipatzaile baten bidean, 'beste' pentsamendu bat

Bikoiztasun edo konplexutasun hori, izan ere, eskuartean duten proiektu emantzipatzailearen ondorio da.

Alde batetik, zafraturiko euskaldun jendearen libertatearen alde, modernia lehene askatzailea (Touraine 1993: 16, 19), lehene bulkada ilustratu, kritikiko sekularizatua, Kanten *sapere aude* hura, Euskal Herrira ekarri nahi sutsuan saiatu dira:

Inportantziarik handiena, erlijiozkotik ahalik libreena dagoen diskurtso laiko bat lortzeak hartuko du gazteriarentzat, 'europarra' soil humanoa eta arrazoizkoa... (Modernia zaharraren lehene fasea besterik ez zela hori, askoz geroago ikasi genuen) (Azurmendi 1998: 34).

Txillardegiren luman ezkuta ezina da bulkada hori. Hasierako urteetatik, ulertu nahiaren, razionalizatu nahiaren lana

eta beharra, ikastea, ezagutzea, nonahi daude. Pentsamendu, ulermen eta eztabaida aske eta askatzaileagoaren aldeko ahalegina ebidentea da.

Jakintza zabaltzea, herria doitzea, euskal kultura eta euskal historia ezagutzearen ezinbestekotasuna, Euskal Herrian kultura berri eta moderno sortzea eta ekartzea, Euskal Herria mundura irekitzea, hezkuntzari emandako garrantzia... kultura eta jakintza askatasun giltzatzat zituen Txillardegik, legitimazio propio baten bidean pauso ekidinezin. Hori dela eta, bere bizitzan eta urte luzeetako lanean zutabe ezinbestekotzat ageri izan dira hastapenetatik.

Jakintza dibulgate lan horretan, Txillardegi zientzia jakintzen bozgorailu nekaezina izan da. Euskarara zientzia eta jakintza arlo desberdin ugari-

tako ekarpen eta ezagutzak ekarri ditu, dibulgazio lan aipagarria eginez. Bere idatzietan, antropologia, etnografia, linguistika, soziologia, soziolinguistika, psikologia, literatura, teologia, filosofia, biologia, astronomia, matematika, fisika eta abarretako ekarpenak euskarara ekarriak ditugu.

Horretaz gain, Txillardegi agnostiko goiztiarra, euskal letretara kristautasunaren kritika berritzaile bat lehenengoetarik ekarri duena izateaz gain, 60ko eta 70eko urteetan, sekularizazio urteak Euskal Herrian, euskal kultura sekular baten sortze lanetan sekularizazio prozesu orok berekin dituen espazioen birdefinizio eta birbanaketen gogoetetan ibilitako gorabehera eta eztabaidetan parte hartuko du.

Hala ere, batetik, arrazoimen ilustratu askatzailea sustatu badute ere, bestetik, kate astun bihurturiko arrazoizkotasun

Txillardegiren luman, hasieratik, ulertu nahiaren, razionalizatu nahiaren lana eta beharra, ikastea, ezagutzea, nonahi daude. Pentsamendu, ulermen eta eztabaida aske eta askatzaileagoaren aldeko ahalegina ebidentea da

inposatua gatazkatu dute. Hau da, berebat eta aldi berean, moderniarri behar zitziola iharduki irakurriko diegu:

Moderniak gure artean erakusten zuen aurpegi –eta arima– erreakzionarioaren aurka izan da, zeren aurka altxatu den gazte-ria Euskal Herrian ere [...] Kultura baten aurka, historiaren aurka; alde batetik nahiz bestetik nortasunarentzat inposatu nahi ziren eredu faltsu eta mitikoen aurka (Azurmendi 1998: 120).

1960 aldera, eta gero ere [...], Erresistentzian lotzeko erabaki, ez dakit fundamentalista, bai fundamental, hartzen zuenak, zer izan behar zuen inposatzen zion presio familiar, eliztar, kultural, sozial itzelezko inguruaren ‘arrazoizkotasun’ jada onartezinari egin behar zion buru. Hitz bakar batekin esan beharko banu, ‘Moderniarri’ behar zitziola iharduki, esango nuke (Azurmendi 1998: 101).

Modernitatearekiko bizipen ezkorra errotuta ageri da garaiko idatzietan. Arrazoimenaren eta modernitatearen ize-
nean euskalduntasuna behin eta berriz, mugaren bi aldeetan, gutxietsia, baztertua, zapaldua, debekatua izan dela barne-
ratua dute.

Frantziako Iraultzak du protagonismo berezia. Gainbehera
han hasi omen. Borondate zentralizatzailearen faborez ‘As-
katasunaren’ izenean askatasunak debekatu zizkieten hartan.

Era berean, gerra karlisten berrirakurketa kritikoak abia-
tuko dira, horiek, historia ofizialak kontatutakoaren kontra,
estatu moderno uniformizatzaile zapaltzailearen kontrako
erreakziotzat berrinterpretatuz. Arrazoimenaren eta pro-
gresoaren izenean, euskara, euskal foruak, euskal ohiturak,
lurraldearen mugak, euskaldunen fedea zapuztuak izan dira.
«Arrazoi-Jainko errespeturik gabea» aspalditik ezaguna da
euskaldunen artean, berdin gurutzada eta misio zibilizatzaile-
ak ere. Ez dute aurkezpen handiegirik behar.

Gerren ostean, Arrazoimen Jainko hori kristautasun tomi-
ta ofizial espainiarrean egikaritu da, mugaren bi aldeetako
nazio-estatu zentralizatuetan, EAJren abertzaletasun tradi-
zionalak urte horietan irudikatzen duen ‘errealismo’ politi-
koan, merkatuaren, diruaren, kapitalismoaren arauetan edota

gizarte teknokratiko eta burokratikoan. Belaunaldi berria, horri guztiari aurre egin nahian, irrazionalismo kritikoa abiatu da, ordena, boterea eta *statu quo*-a errepresentatzen dituen 'arrazoizkotasun' horren kontra. Gizakiaren alderdi irrazionala, inkontzientea, mitikoa, mistikoa eta aberetasuna, historia lineal progresibo baten hutsala, Absolutu guztien funsgabetasuna eta arrazoizkotasun hutsezko giza ereduaren harropuzkeria eta zimela seinlatu dira. Diruaren menera guztiz makurturiko mendebaldar kultura materialista hutsari, Asia, budismoa, izpiritualtasuna jarriko dizkiote parez pare. Gizatasun orohartzaileagoa da jomuga.

Giro nahasi hori antimodernotzat hartzea hanka sartzea litzatekeelakoan gaude, baina. Ondorengo urteetako autore bat baino gehiago sinplifikazio horretara tentatuak egon arren, hazaldi berriak modernitatearen izaera anbigua eta paradoxikoa ederki jakin baitu identifikatzen. Eta modernitatearen aurpegi desberdinen arrisku eta aukerez, alderdi askatzaile bezain zapaltzaileez ongi jabetu da.

Gisa berean, azalean geratuko ginatke egoeraren irakurketa plano dikotomikoen mailan utziko bagenu. Hau da, alde batetik, euskaldunak zapaldu dituen modernitate frantses edo espainiar baten arbuioa, eta, bestetik, horrelakoxe modernitate hegemoniko baten desira eta kopia saiakera hutsa bakarrik ikusiko bagenitu.

Esan dugu eskutik helduta ibili direla, ez bakoitza bere aldetik. Bi planoek hasieratik ukitu dute elkar, poliki-poliki urteetan aurrera elkarrengan guztiz urtzeraino, eta pentsamendu koherente eta kohesionatuagoa eratortzeraino. Belaunaldi honen modernitatea inoiz ez da izan frantziar edo espainiar modernitatearen kopia nahia. Hau da, hasieratik Euskal Herriratu nahi den modernitateak antzekotasun adina desberdintasun ditu aipatu nazio-estatu hegemoniko horien modernitatea izan denarekin. Eta nahiz eta, arestian aipatu legez, hasieretan oraindik, europar modernitate hegemonikoen termino eta eskema bertsuak topatzen ditugun, gutxika eskema horien lekua beste mundu ikuskera batzuek hartuko dute.

Txillardegik eta bere garaikideek kritika antropologiko, linguistiko, historiografiko, etiko eta epistemologiko aberatsa garatuko dute

Modernitate unibertsalista baten orduak aspaldi pasatuak baitira belaunaldi honentzat, eta berekin modernitatearen baluarte diren Gizaki, Moral, Egia eta Historiarenak.

Txillardegik eta bere garaikideek kritika antropologiko, linguistiko, historiografiko, etiko eta epistemologiko aberatsa garatuko dute. Arrazoi-

men askatzailea bezainbeste irrazionalismo kritikoa aliatutzat hartuta, 'arrazoizkotasun' berri baten bidean abiatu dira, 'beste' pentsamendu bat garatu nahian.

Irrazionalismo guziz kritiko, 'ilustratu' bat praktikatzen dute. Hau da, [...] arrazoizkotasun berri bat errepresentatzen dute funtsean, Egiazko Ilustraziorik bere garaian izan ez duen Euskal Herri honetako lehen Ilustrazio kritikoa seguru asko (Azurmendi 1982: 43).

Idea moderno, antimoderno, postmoderno, moderno alternatibo eta ez-modernoen nahasketa batean, monismo guztien kontra eta guztiz eklektiko, gogoeta lanak ez du errazetik ezer izan. Bilaketaren eta momentuko galdera eta beharren erantzun nahi eta eginahalean garatua, garaiko idatziak xerkaketa eta barne borroka horren lekuko fidel zaizkigu.

Funtsean, gerren osteko belaunaldiak mintzaira zaharren baitatik diskurtso berri bat sortu duela esan liteke. Errealitatea interpretatzeko bestelako erreferentzia markoa ezarri eta haren arabera bestelako estrategia ildo eta eginkizunak jarri dituela abian naziogintzan eta kulturgintzan (Larrinaga 2006: 503).

Kultura ez-hegemonikoetara gerturatzea

Gerren osteko hazaldi honen pentsamendua modu osoago zein doituagoan ulertuko bada, kultura ez-hegemonikoen klabean gerturatzea beharrezkoa dela dirudi.

Hau da, gure historia hurbila hobeto ulertu nahi badugu, badirudiela ez dela biderik emankorrena urte haietako idatziak gureak ez diren gerturatze kontzeptual batzuetara bortxaz egokitu nahi izatea. Jakinekua da kultura ez-hegemoniko baten historia nekez etorriko dela bat beste kultura hegemoniko batzuen eskemekin. Jakinekua eta askotan aipatua da gure historia ez datorrela bat europar denbora marko historiko ofizialekin, eta gureak ez zaizkigun periodizazio eta eskema horietara egokitu nahiak gauza garrantzitsu gehiegi baztertzea edo aintzat ez hartzea dakarkigula.

Denboratasun arrotz horietatik abiatuta, Txillardegi, besteak beste, premoderno, erromantiko, kulturalista, antimoderno, natibista edo are moderno sutsu begitantzen da.

Batzuetan pentsatzen dut gure arazoa belaunaldi bakarrean lau mende eta hiruzpalau iraultza batera bizi behar izatea dela: hori zeinek zuzen asmatu? Gu sozialki modernoak bilakatu nahi ta amorratzen, indibidualki posmodernoak garenean gabiltza. Problema dauzkagu beti denborarekin. Eta hori, gure belaunaldia ibili den zirkin-zarkun kaotikoan (eta manda batetik bestera ikusi dugun hamaika 'konbertsiotan') aski nabaritu da (Azurmendi 1998: 89).

Gure 'modernitatea' errazagoa izango zen, arrazoimenak eta zientziak eta kritikak ekarri izan balute. Bakarrik, Gernikako bonbek eta Eliza katolikoaren ustelkeriak eta gaxte batzuen irakurketa klandestinoek ekarri bazuten, ez dago zer harriturik, izpirituen ustelkeria eta bonba artean klandestino jarraitzen badu gero (Azurmendi 1998: 79).

Moderno eta postmodernoaren ulerkera kronologiko lineal sinplistik kritikatuak izan dira jada (Huyssen 1987), eta gaur badakigu modernitateak eta postmodernitateak ez direla zertan ulertu, nahitaez, denbora ildo progresibo baten fase banatutzat eta planteamendu binario murriztailetzat (Huyssen 2011). Pentsamendu postkolonialistek erakutsi dute modernitateaz ez, baizik eta modernitateez, modernitate alternatiboez, ez-modernitateez eta kontramodernitateez ere hitz egitea komeni dela. Modernitateak askotarikoak direla, eta 'modernitatea' ez dela Europako zenbait nazio-estaturen

afera eksklusiboa. Ez eta, kultura ez-hegemonikoen kasuan, gabezia eta desira hutsa ere.

Modernitate askotariko horiek bertikalki, hots, kanpotik, metropoliko inposizio gisa, zein/aldiz aldameneko transfrentzia, itzulpen, jabetze, imitazio kreatibo eta transformazio gisa ulertu behar ote direnaren inguruan eztabaidak aspaldi ireki ziren. Alegia, modernizatzeak metropolizatzea esan nahi ote duen derrigor, hots, kopia huts bihurtzea. Edota espazio konfliktibo bezain produktibo batez ari ote garen.

Ikasketa postkolonialek aipatu izan duten beste puntu bat hauxe da: postmodernotzat ulertzen ditugun zenbait ideia eta zantzu, metropoliak bereganatu aurretik, kolonietan agertu dira. Neurri batean, 'marjinek' postmodernizatu dute 'zentroa', alegia. Nahiz eta, gero, 'postmodernitate' kontzeptu berria modan jarri eta ahoa bete-bete metropolitik berriro kolonietara hausketaz, paradoxaz, anbiguetateaz, hibridotasunaz, deszentralizatzeaz, identitate hautsiez, historia gabeziaz, kontingentziaz, eszeptizismoaz... hitz egitera berri-berri bailiran itzuli.

Ez dut uste, Postmoderniak osoki ustekabeen harrapatu gaituenik. Gertatzenago dena, apika, beste hau izan daiteke: edozein gauzak (pentsamenduk, modak) arrakasta handiagoa duela gure artean, uhin berria Madrildik badator, bertan sortuta baino. (Zerk, bistan da, ez nauen ezer kontsolatzen).

Zaharragoa naizenez, esan beharrean nago, orain borroka armatuaren eta erresistentziaren morala kraska omen diezagukeen modernitatearen kritika edo postmodernia hori (eta *orain* horixe egin lezakeenik ez dut ukatuko), gure artean borroka armatua baino lehenagokoa eta haren laguna izan dela. Mirandekin, Krutwigekin, Txillardegirekin, etab., 1950 ondorenean (egia esateko, espainolez horrelako zerbitetan ametsik ere egin ezin zitekeenean) hasi bait da tradizio europar moderno guzti horren aurka, laguntzaile harturik Nietzsche, Unamuno, existentzialismoa, budismoa bera (Azurmendi 1987: 124).

Kritika postkolonialak mundu modernoaren ordenaren barruan autoritate politiko eta sozialaren lehian inplikaturik dauden errepresentazio kulturalen indar ez-pareko eta ez-berdinen lekukotza ematen du. Diferentzia kulturalen

diskurtso horiek berreraikitzeke, tenporalitate sozialaren errotikako berrikusketa bat eta 'zeinuaren' berrartikulazio bat behar direla aldarrikatuz.

Izan ere, kultura iraupen estrategia denean:

Iraupenezko, superbibentziazko kulturen transmisioa ez da kultura nazionalen museo imajinario ordenatu batean gertatzen, beren 'orainaldi' bizi eta 'lehenaldi' autentiko baten jarraitutasun erreklamoekin (Bhabha 2002: 212).

Kultura iraupen estrategia denean, modernitate/postmodernitate hegemonikoko gerturatze teorikoek argitu bezainbat ilundu egiten digute.

Esaterako, euskal belaunaldi berriaren *autentikotasunaren* aldeko aldarriak ezer gutxi du aurrez emandako identitate baten baieztapenetik. Gerraosteko identitate birrindu bategitik abiatuta, ontologikotik baino, politikotik askoz gehiago du. Emantzipazio estrategia bat da, erresistentzia kognitibo bat, legitimazio propio baten bidean abiapuntua, hitz egin ahal izateko leku bat.

Ni/Gu-aren ebokazioak beti subjektu modernoa suposatu behar al du, akaso? Postmodernitate politikorik ez ote da posible? Ala iharduki nahi diren modernitateak adina postmodernitate topatuko ditugu? Eta hemen guri dagokigunerako, postmodernitate engaiatu bati buruz hitz egiterik izango ote genuke?

Periferiako modernitate/postmodernitate politikoa metro-poliko pentsamendu politikoarekin erlazio kontraesankorrean gauzatzen da, eta europar pentsamendu hegemonikoa beharrezko bezain desegoki zaigu, aldi berean, gure modernitate/postmodernitate politikoko esperientziez gogoetatzeko.

Guri gerta dakigukeena, da, zenbait autoreren erromantizismo horren zentzua (Navarro Villoslada, Arana Goiri, Mirande, Krutwig) ez tutik ulertzea. Horiek izan zuten, eta modak ere ba omen duen, usaimenik ez izatea, antzinate 'mitiko' baten errebindikapenak ezkutatzen duen modernotasuna atzemateko: «*la fuerza subversiva de esta nueva conciencia histórica (...) contra las funciones normalizadoras de la tradición*», «*contra lo que podría*

denominarse una falsa normatividad en la historia». Eta hori oso erraz gerta dakiguke, oso moderno eta posmoderno garelakoan, 'arrazoizkotasunaren' kontzeptu funtsean XVII. mendetiar batekin arazoan sartzen bagara (Azurmendi 1987: 120).

Pentsamendu postmoderno, postkolonial edo deitu 'beste' pentsamendu hori, euskal letretan sortu denean, indar askatzailez sortu da, eta indar askatzaile horrekin hasi du bere buruaren berrirakurketa eta birformulazioa. Subjektu politiko berri bat abiatu dute modernitateko subjektu politikoaren oinarriak ez diren beste batzuetatik abiatuta. Gerren osteko belaunaldiak euskal pentsamendu postkolonialaren oinarriak jartzeari ekin dio garaiko autoreen idatziekin indartuta.

Arrazoimenaren eredu desberdin batetik abiatuta, legitimazioa arrazoizkotasun eta objektibotasunean bezainbat subjektu konprometitu kokatuaren esperientziaren egian oinarritu dute. Oroimenen arteko gerla eta legitimazio diskurtsoen lehian, kontramemoria bat ekartzen saiatu dira. Herri nortasunetik abiatutako memoria bat, europar historizismo ofizialari aurrez aurre.

Eta hala, pentsamendu prekritiko batetik postkritikora, gero mito berean berriz topo egingo badute ere, sekulako bidea dagoen arren, tamalez, askotan, ondorengook ez dugu jakin diferentziaren handia ikusten.

Postmodernismoak ez du esan nahi 'modernismoa' atzean utzi denik, hortik hark sakonki eragindako beste egoera batera iritsi dela baino. Hori horrela, postmodernitatean barrena bidea egin duen eta bat-batean abiapuntuko leku berera iritsi den premodernismo mota bat egongo da. Horrek ez du inondik inora esan nahi, baina, aldaketarik izan ez denik (Eagleton 1998: 13).

Zailtasunak ditugu belaunaldi berri honen proiektu askatzaileak berarekin ekarri zuen kapital sinboliko zahar-berri-berri hori, hibridotasun hori, kontzeptualki atzemateko. Euskal Herriari 'beste zerbait' nahi zioten eskaini. Eta 'beste zerbait' hori zer ote zen jakiteko, ezinbesteko zaigu zeinua- ren berrinterpretazio bat, ulertu nahi dugunera askoz ere egokiago gerturatuko den marko teoriko berri baten bidean.

Bien bitartean, gerren osteko belaunaldiko kide zenbaiten –tartean, Txillardegi– lanen amaraun konplexuak termino eta eskema postmoderno engaiatu eta postkolonialetan zentzua hartzen duelakoan gaude. Beren idatzien osotasunak ikuspuntu horren pean argi hartzen eta beren zinezko emaria erakusten duelakoan. ‘Beste zerbait’ horri deitu postmoderno engaiatu, postkolonial edo X. 🐼

Oharrak

1. Hasteko, Joxe Azurmendi da ideia hori esplizituen eta argien aipatu duena. Ikus, esaterako, Azurmendi (1986a, 1986b eta 1987).
Bestalde, neurri batean, Joseba Zulaikaren *ETAren hautsa* (2006) liburuan ere ideia horren zantzuak topa genitzakeela esan genezake.
Bestetik, Joseba Gabilondori, bere artikulu bateko pasartetxo batean, hitzok irakurtzen dizkiogu: «Hala balitz, [...] konkluditu behar-ko genuke postmodernitatea Euskal Herrian ere 1945ean ‘hasten’ dela eta beraz gerraondoko euskal kultura eta literatura postmodernoak direla. Planteamendu hau zail bada ere pentsatzen lehen momentu batean, bigarren batean badu bere koherentzia, izan ere, euskal kasuak, Espainiako beste nazionalitate periferiko guztiekin batera, nazio-estatu espainiarraren –eta hein askozaz txikiago baino era berean historikoan, frantsesaren– krisia eta gainbehera dakar, berori fenomeno postmoderno giltzarri delarik. [...] Beraz, [...] esan dezagun 1945ean postmodernitatea eta 1992an globalizazioa ‘hasten’ direla hurrenez hurren» (Gabilondo 2008: 40). Ondoren, baina, ez du ideia hori batere garatzen eta, tamalez, aipu soilean garatzen da.
2. Hasiera eta denbora diferenteen aldiberekotasuna nabaria da gerraosteko etena eta abiapuntu berriaren urtea zedarritzerakoan. Data bakar baten bila dabilen ikertzaileari urteak dantzan agertzen zaizkio, hastapen urtetzat harturikoak bat baino gehiago baitira esparrutik esparrura edota autoretik autorera, norbere hasiera, joera eta interesguneen arabera. Guk, onarpenik zabalenetakoa duela dirudien eta dagokigun autorea identifikatzen den data bati helduko diogu, 1956

urteari. Nahiz eta laxo, alegia, etendura ez baita bat-batekoa izan, has-tapen berria bezalaxe. Alegia, 56a ondorengo 57, 58, 59, 60ko lehen urteetan jazotako ezinbesteko gertaerak ere barnebiltzen dituen data sinbolikotzat ulertuz.

Sudupek dioen moduan, 1956 urtea, urte garrantzizko-zurrunbi-lotsuaz gain (Sudupe 2011: 103), «gontz urtea» da (Sudupe 2011: 73). Plan berrien eta asmo berrien plazaratze bat (Azurmendi 1998: 58). Iztuetari ere hau irakurtzen diogu: «1956 belaunaldia. Egile bat baino gehiago dira urte-data honetakoa halakotzat daukatenak eta, ziurre-nik, bera da onarpenik zabalena bereganatzen duenetako bat» (Iztue-ta 2005: 139). Azurmendiri ondorengo hau: «Aro berri honi jaiotur-teren bat ipintzekotan, gero, jakindarrok [...] 1956 aipatu ohi badugu, inportanteena betekozia da, ez urte data. Nolanahi ere urte horrek ez dirudi desegokia, adierazi nahi dena ongi ulertzen bada [...]. Plan berrien eta asmo berrien plazaratze bat» (Azurmendi 1998: 58). To-rrealdairi ere «1956 urtea bereziki markatzekoa» iruditzen zaio (To-rrealdai 1997: 129); 1956ko belaunaldiaren baitan heterogeneitatea ageri da –prestakuntza klerikalekoak batzuk, laikoak eta hirikoak beste batzuk– eta, horretaz gain, bi hazaldi bereizten ditu. Eta kideen izen zerrendan, besteak beste, zaharragoen artean Txillardegi eta gaz-teagoenen artean Azurmendi sartzen (Torrealdai 1997: 397-398).

Lopez Adani hau: «Kraskaldia abiatu zen 1956 eta 1959 artean. Ipar eta Hego Euskal Herrian, Espainian eta Frantzian ere bai, geroko pro-tagonistak martxan ezarri ziren» (Lopez Adan 1996: 209).

Eta, bukatzeko, Txillardegik berak honelaxe deritzo 1956-1968 sa-soiari: euskal mundura belaun berri bat sortu eta hazkunde isilean abia-tzen den garaia (Txillardegi 1984: 23). Aurreko urteetan, 1952-1953tik aurrera bizi den etsipen osoari aurre egin nahian prestatzen hasia zen kinkaldi politiko eta kulturalaren plazaratzea (Txillardegi 1984: 35).

Bibliografia

- Aierdi, Xabier (2007): 'Hamarkada isil bateko migrazioak', *Jakin* 159, 91-107.
- Apalategi, Jokin (1985): *Los vascos, de la autonomía a la independencia. Formación y desarrollo del concepto de la nación vasca*, Donostia, Txertoa.
- Arendt, Hannah (1993) [1958]: *La condición humana*, Bartzelona, Paidós.
- Arregi, Rikardo (1967): 'Sozialismoa modan dago', *Jakin* 24, 36-51.
- Azurmendi, Joxe (1982): 'Irrazionalismoaren inguruan', *Herria 2000 Eli-za* 42, 41-43.
- (1986a): 'Modernia, Postmodernia', *Larrun* 4, 36-46.
- (1986b): 'Modernitate-postmodernitate: beharrezko eztabaida baten hasiera [Mahai-ingurua]', *Larrun* 4, 51-59.
- (1987): 'Modernia, Postmodernia', in Askoren artean: *U.E.U.ko ihardunaldien bilduma (1986. urtea)*, Bilbo, UEU, 115-130.
- (1996): 'Gaztedi berriaren kontzeptua', in Askoren artean: *Rikardo Arregi. Gizona eta garaia*, Andoain, Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, 287-312.
- (1998): *Oraingo gazte eroak: gogoetak ETAre sorrera inguruko kultur giroaz eta gaurkoaz*, Irun, Luma.
- Bhabha, Homi K. (2002) [1994]: *El lugar de la cultura*, Buenos Aires, Manantial.
- Bobbio, Norberto (1949): *El existencialismo. Ensayo de interpretación*, Mexiko DF, FCE.
- Eagleton, Terry (1998) [1996]: *Las ilusiones del postmodernismo*, Buenos Aires, Paidós.
- Etcheverry-Ainchart, Jon; Etcheverry-Ainchart, Peio (2013): *Le mouvement Enbata. À la source de l'abertzalismo du nord*, Donostia, Elkar.
- Gabilondo, Joseba (2008): 'Globalizazioak eta kulturantzatasunaren fantasma: biopolitika eta diferentzien polemikak euskal kultura eta literaturan', in Gillermo Etxeberria (koord.): *Postmodernitatea eta globalizazioa*, Bilbo, Erroteta, 37-67.
- Garaudy, Roger (1969) [1959]: *Perspectives de l'homme. Existentialisme, pensée catholique, structuralisme, marxisme*, Paris, Presses Universitaires de France.
- Huysen, Andreas (1987): *After the Great Divide. Modernism, Mass Culture, Postmodernism*, Bloomington, Indiana University Press.
- (2011) [2006]: *Modernismo después de la postmodernidad*, Bartzelona, Gedisa.
- Intxausti, Joseba (2007): '*Jakin* (1956), aurreko eta berehalako testuinguruan', *Jakin* 158, 53-76.

- Iztueta, Paulo (1996): *Intelligentsia kimatuaren orbelak*, Donostia, Kutxa Fundazioa.
- (2005): *Euskal idazleen belaunaldiez*, Donostia, Utriusque Vasconiae.
- Landart, Daniel (2013): *Enbataren zirimolan*, Donostia, Elkar.
- Larrea, Txema (1989): '1956-eko belaunaldia', in Askoren artean: *Gerraosteko literatura*, Bilbo, Labayru, 9-19.
- Larrinaga, Ane (2006): *Kulturgintza esparruko eragileen tradizio intelektuak: kulturgileak gizarte mugimenduetan*. Doktorego tesia. UPV/EHU.
- Lopez Adan, Emilio (1996): 'Rikardo Arregiren garaiko mugimendu politiko sozialak', in Askoren artean: *Rikardo Arregi. Gizona eta garaia*, Andoain, Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, 199-256.
- Mardones, José María (1988): *Postmodernidad y cristianismo. El desafío del fragmento*, Santander, Sal Terrae.
- Sartre, Jean-Paul (1996) [1946]: *L'existentialisme est un humanisme*, Paris, Gallimard.
- Sudupe, Pako (2011): *50eko hamarkadako euskal literatura. I. Hizkuntza eta ideologia eztabaidak*, Donostia, Utriusque Vasconiae.
- Torrealdai, Joan Mari (1997): *Euskal kultura gaur. Liburuaren mundua*, Donostia, Jakin.
- Touraine, Alain (1993) [1992]: *Critique de la modernité*, Paris, Fayard.
- Txillardegi (1984): *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981*, Donostia, Elkar.
- Zulaika, Joseba (2006): *ETAren hautsa*, Irun, Alberdania.

Herri mugimenduen eta ezkerreko governuen ezinak eta eginak

Gipuzkoako esperientzia (2011-2015)

Andere Ormazabal

UPV/EHUko Politika eta Administrazio Zientzia Saileko irakaslea eta Parte Hartuz ikerketa taldeko eta Joxemi Zumalabe Fundazioko kidea

Demokrazia ordezkatzaillearen krisiak erakunde publikoen gobernagarritasuna kolokan jarri duen garaiotan, herritarren parte hartzea eta gobernugintza irekiagoak sustatu nahi dituzten proposamenak ugartzen ari dira, batez ere ezkerreko alderdi eta pentsalarien artean.¹ Alderdi politikoen ordezkartzatik harago, gizarte sektore baztertuen eta herri mugimenduen ahotsa integratzea izaten da helburuetariko bat. Baina ezkerreko indar politikoak gobernura heltzen direnean, zein izaten da ezkerreko alderdi horien eta herri mugimenduen arteko harremana? Nola artikulatzen da bi aktore horien arteko ekintza politikoa? Gipuzkoako Foru Aldundian, 2011-2015 urteetako Bildu koalizioaren agintaldiko berdintasun eta ingurumen politiketan, auzi horiek jarri ziren mahaiaren gainean.

Azken urteotan, merkatu liberalaren hegemoniak demokrazia ordezkatzaillearen krisia hauspotu du, erakunde publikoen gobernagarritasuna ezbaian jartzeraino. Autore ezberdinen esanetan (Santos 2005, Della Porta 2017, Rauber 2006, Subirats 2012), estatuek gizartea erregulatzeko izan duten

gaitasuna ahulduz doa, eta, krisi horren aurrean, erreforma demokratizatzailearen aldeko ahotsak ugaltu direla esan dezakegu. Horien artean, asko dira ordezkagarritasunaren krisiari aurre egiteko herritarren partaidetza eta gobernugintza irekiagoak proposatuko dituzten formulak (Parés 2009, Harnecker 1999). Instituzio publikoen zilegitasun ezak atek zabaldu dizkie, beraz, berrikuntza demokratikoaren aldeko diskurtsoei eta politika egiteko molde berriei.

Marko diskurtsibo horiek posizio ideologiko ezberdinetako alderdien artean ikus daitezke, baina batik bat ezkerreko alderdi eta pentsalarien artean nabarmentzen direla esan dezakegu. Hor kokatzen dira artikulu honetan jorratu ditugun erreferentzia nagusiak eta aztertutako kasuak. Berrikuntza demokratikoaren ekinbide nagusiek eragileen arteko harremanen dimentsioari (Ibarra 2011) egingo diote erreferentzia, eta horien baitan eragile ezberdinen arteko lankidetzak sareak eta partaidetza politikak nabarmenduko lirake. Halaber, helburu politiko ezberdinak topa litezke neurri multzo horien baitan: erakundeen eraginkortasuna hobetzetik, botereguneetatik kanpo dauden ahotsak integratzeko borondate-raino (Blas eta Ibarra 2006, Martinez-Palacios 2015). Azken helburu horri dagokionez, komunitatea osatzen duten gizarte sektore baztertuei eta herri mugimenduei protagonismo berezia aitortu nahi izango zaie. Era horretan, alderdien ordezkartza politikoetatik harago doan gobernugintza edota gobernantza (Kooiman 1993) parte-hartzaile gisa ere definitu izan da, usu bazterrean egon ohi diren subjektu eta kolektibitateak erdigunera ekarriz.

Bestalde, kontuan izan behar dugu ezkerreko alderdiak, sarritan, gizarte mugimenduen edota herritarren protesta-ziklo baten ostean heltzen direla gobernura (Della Porta eta Diani 2011, Tarrow 1997). Horren erakusle dira, adibidez, 2003an Brasilgo Langileen Alderdiak² osatutako gobernua, Boliviako Sozialismora Mugimendua³ alderdiarena, 2006an; edota Greziako Syrizaren⁴ kasua, 2015ean. Horietan guztietan, ekin-tza politikoaren partaidetzak eragina izan zuen gobernuen

aldaketan. Ezkerreko indar politikoak hauteskundeak irabazi eta gobernura heltzen direnean, beraz, hainbat sektoreen aldetik itxaropen ugari sortzen dira, batik bat indar horietatik hurbil sentitzen diren herri mugimenduen⁵ eta herritarren artean. Izan ere, hainbat kasutan ezkerreko alderdiek gizarte mugimenduen aldarriekin bat egin ohi dute hauteskunde kanpainako programa definitzerakoan edota oposizioan dihardutenean (Della Porta eta Diani 2011).

Baina zer gertatzen da ezkerreko indar politikoak –eraldaketa sozialaren edo demokratizazioaren alde kokatzen

direnak– gobernura heltzen direnean? Nolakoa da bi aktore politiko horien arteko hartu-emanak? Gizarte mugimenduek azaleratzen dituzten defizit demokratikoak gobernu aldatzarekin batera landuz doaz ala harremana aldatu egiten da? Nola uztartzen dira hauteskundeen aurretik hurbil kokatzen diren eragileen arteko jardunak agertoki politikoa aldatzen denean? ‘Gobernu aurrerakoiek’ (Zibechi 2011) gizarte mugimenduen lana baliatzen dute demokratizazioan sakontzeko eta instituzionalitate berriak sortzeko? Ala bien arteko urruntze bat suertatzen da? Nola artikulatzen da aktore horien arteko ekintza politikoa, ahalik eta praktika demokratizatzaileena izan dadin, eta, aldi berean, herri mugimenduen logika desitxuratu gabe?

Posizio ezberdinak ageri dira bi eremu horien arteko balizko zubigintza lanaren inguruan: batetik, mugimenduen autonomiaren aldekoak ditugu, zeinek balizko lankidetzarekiko oso jarrera kritikoa azalduko duten (Machado eta Zibechi 2016), estatuaren logikak komunitatearena irensteko –koopazio, burokratizazio, zatiketa eta bestelako joeren bitartez– dauden arriskuengatik; hortaz, posizio horren aldekoek

Zer gertatzen da ezkerreko indar politikoak gobernura heltzen direnean? Nola artikulatzen da ezkerreko alderdien eta gizarte mugimenduen arteko ekintza politikoa?

eremu instituzionalaren joko-arauetatik kanpo kokatuko diren antolaketa ereduak lehenetsiko lituzkete. Bestetik, ordea, elkarlanaren premia azpimarratzen dutenak leudeke (Chávez, Rodríguez eta Barret 2008, Ibarra, Martí eta Gomá 2002), erakundeen demokratizazioa parte-hartze politiken eta gobernantza sareen bitartez formulatuko dutenak. Arestian aipatutako berrikuntza demokratikoak eragile ezberdinen arteko elkarlan sareen bidetik jorratu behar direla pentsatzen dutenak, alegia. Gizarte mugimenduen eta hurbileko indar politikoen gobernugintzaren arteko bidegurutzean, beraz, ahots eta posizio ezberdinekin topo egiten dugu. Agerikoa da eztabaida ugari sortu dituztela ezkerreko gobernuen praktika instituzionalen eta herri mugimenduen arteko harremanek. Horixe da artikulu honetan hizpide izango dugun gai nagusia, batzuen eta besteen arteko harreman sarea aztertu nahi baitugu, 'gobernu aurrerakoien' lankidetzaren esparruen ezinak eta eginak aletuz. Horretarako, Gipuzkoako Foru Aldundian 2011tik 2015era luzatu zen agintaldia dugu aztergai. Bildu koalizioak⁶ herrialdeko gizarte eragileekin izan zuen harremanari erreparatuko diogu, berdintasun eta ingurumen politiken eremuan, batik bat.

Demokrazia ereduak eta demokratizazio prozesuen eragileak

Demokrazia ereduen pentsamendu arautzaileetatik, partaidetza politikoa definitzeko edo ulertzeko era ezberdinak daude. Eredu bakoitzaren arabera –liberalismoa, errepublikanismoa eta autonomia (Viejo *et al.* 2009: 38)–, herritarren sarbideak zabaldu edo mugatu egingo dira. Partaidetzazko demokraziaren aldeko posizioek gobernugintza tradizionalaren zurruntasunak eta lan banaketak ezbaian jarri dituzte. Gizartearen eta estatuaren arteko lankidetzaren hauspotzearen alde azaldu dira pentsamendu eta praxi horren alde lerrokatu direnak (Santos 2005, Harnecker 2013). Demokrazia ordezkatzailan eliteek gidatutako gobernuaz diharduten bitartean,

partaidetzazko demokrazian eremu instituzionalaren eraldaketa eta herritar zein estatuaren arteko harreman sareak indartzea proposatuko dute. Finean, liberalismotik eratorzen den ereduaren hutsuneei aurre egiteko jardunbideak formulatuko dituzte, botereguneetatik urrun dauden gizarte sektore zapalduen eragin ahalmenerako igarobideak hauspotuz. Alderdi eta hauteskundeetara mugatzen zen partaidetzaren kontzeptua zabaldu nahi izango dute, funtzionamendu instituzionalaren lan jardunean txertatuz. Molde eta forma ugari hartzen dituzte demokrazia iragazkorragoa egin nahi duten proposamenek, iturri eta esperientzia zehatz ezberdinetatik eraikiko direnak. Horietako asko Hego Ameriketako esperientzietatik datoz (Chávez, Rodríguez eta Barret 2008, García Linera 2016). Ondorengo taulan, arestian aipatutako ikuspegi arautzailetatik eratortzen diren demokrazia ereduak eta horietako bakoitzak erakunde zein herritarren arteko harremana ulertzeko duen modua laburki jasotzen da.

1. taula. Ikuspegi arautzaileak eta demokrazia ereduak


<i>Ikuspegi arautzailea</i>	<i>Demokrazia ereduak</i>	<i>Harremanaren ezaugarriak</i>	<i>Autoreak</i>
<i>Liberalismoa</i>	Demokrazia ordezkatzailea	Esku-hartze instrumentala Hauteskundeak	Sartori (1987) Schumpeter (1966)
<i>Errepublikanismoa</i>	Parte-hartzearen demokrazia Demokrazia deliberatzailea Demokrazia zuzena Harreman demokrazia Demokrazia feminista	Parte-hartze mekanismoak Elkarrizketa Erabakia Parte-hartzea Parekidetasuna	Fraser (1992) Habermas (1987) Lipset (1995) Ibarra (2011) Miyares (2003)
<i>Autonomia</i>	Demokrazia erradikala Demokrazia agonistikoa Jendetzaren demokrazia	Munizipalismoa Gatazka Mugimendu artikulatuak	Calle (2015) Mouffe (2003) Hardt eta Negri (2004)

Iturria: egileak berak egina, Viejo *et al.* (2009: 51) oinarri hartuta.

Dena dela, oraingoan, pentsamendu ereduetan baino prozesu demokratizatzaileen eragileetan sakondu nahi dugu:

herri mugimenduen, ezkerreko alderdien eta ezkerreko gobernuen arteko artikulazio erak mintzagai izango ditugu aurrerantzean; beti ere, eragileon harremana era dialektiko batean ulertuta. Eta, batik bat, herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen artekoak jorratu ditugu, ondorengo irudian adierazten dugun moduan.

1. irudia. Gobernantza sarearen azterketa eremua



Iturria: egileak berak egina.

Eragin esparruetan sakondu aurretik, eragile bakoitzaren definizio laburra jasotzea beharrezkoa ikusi dugu. Herri mugimenduen edo gizarte mugimenduen ezaugarritze edo definizioetan etengabe aipatzen den dimentsioa honako hau da: ekintza kolektibo gatazkatsuan dihardute, eta, beraz, gatazka politiko eta kulturaletan inplikaturik daude, aldaketa soziala helburu izanik (Zibechi 2007a). Sare informal trinkoak direla da nabarmentzen den beste ezaugarrietako bat; eragile zein aktore ezberdinen arteko elkarlana sustatuko dute, autonomia eta independentzia galdu gabe, eta trukearen konpromisoari azpimarra egingo zaio (Riechmann eta Fernández Buey 2001). Eta, azkenik, identitate kolektiboa sortzen eta elikatzen dihardute; beraz, talde izaerak pisu handia izango du, ekintza zehatzetik haratago doazen atxikimenduak sortuko baitira.

Bestalde, kontramugimenduak ere aipatu behar ditugu, gure ikerketa kasuan ere presentzia baitute. Della Porta eta Dianiren esanetan (2011: 268), kontramugimenduak

mugimenduen borroka sozialen garaipenei erantzun gisa sortuko dira, aldaketa politikoaren kontra lerrokatuz.

Herri mugimenduek erakundeekiko agertu duten portaera politikoaren analisira salto egiten badugu, bi posizio nagusi bereiz ditzakegu: batetik, lankidetzaren aldeko jarrerak, eta, bestetik, autonomia lehenetsiko dutenak. Estrategia eta helburu ezberdinak izango dituzte mutur batean zein bestean daudenek. Halere, oraingoan, *continuum* baten bitartez irudikatu nahi izan ditugu, tarteko posizio ugari baitaude. Zibechi (2007a) edo Holloway (2005) leudeke autonomiaren ertzean, eta, bestean, aldiz, elkarlanaren aldekoak, besteak beste Santos (2005), Rauber (2006) edo Harnecker (2013). Horien artean ere ezberdintasunak nabariak dira.

2. irudia. Herri mugimenduen portaera politikoa erakundeekiko



Iturria: egileak berak egina.

Bestalde, herri mugimenduak alde batera utzita, gizartearen eta estatuaren artean bitartekaritza nagusi gisa jardun duten aktoreak alderdiak izan dira. Hamarkadetan partaidetza politikoa ezaugarritu duten antolaketa moldeak ditugu. Ibarra, Martí eta Gomáren esanetan (2002: 26), 60ko hamarkadara arte, alderdiek euren afiliatuei identitate zehatz baten arabera-ko bizimodua eskaintzen zieten: elkartasun espazio bat, kode eta balio zehatzetan oinarrituta, identitate kolektibo zehatzak indartuko zituzten mundu ikuskera ezberdinak birsortuz.

Della Portak (2017) dioen moduan, alderdi politikoak pixkanaka gizarte zibiletik urrunduz joan dira, eremu

instituzionalera mugatuz, eta joera horrek hauspotu du 60ko hamarkadan *Gizarte Mugimendu Berri* gisa definitu izan direnen sorrera. Alderdien bilakaeran hainbat mugarri zehazten dira: XIX. mendean, eliteen alderdiak, masen alderdiak ondoren, *catch-all* alderdiak eta 60-70eko hamarkadetak aurrerako kartel alderdiak.

2. taula. Alderdi politikoaren bilakaera

<i>Ezaugarriak</i>	<i>Eliteen alderdiak</i>	<i>Masen alderdiak</i>	<i>Catch-all alderdiak</i>	<i>Kartel alderdiak</i>
<i>Epea</i>	XIX. mendea	1880-1960	1945	1970
<i>Barneratze soziopolitiko maila</i>	Sufragio mugatua	Sufragioaren hedatzea	Sufragio unibertsala	Sufragio unibertsala
<i>Baliabide politiko nagusien antolaketa</i>	Oso mugatua	Kontzentratu samarra	Ez hain kontzentratua	Lauso samarra
<i>Politikaren helburu nagusiak</i>	Pribilegioen banaketa	Erreforma soziala	Hobekuntza soziala	Alderdia lanbide gisa
<i>Alderdiaren kokapena estatu eta gizarte zibilaren artean</i>	Muga lausoa estatu eta gizarte zibilaren artean	Alderdia gizarte zibilaren parte da, hasiera batean gizartearen sektore esanguratsuen ordezkari gisa	Estatu eta gizarte zibilaren arteko ordezkartzan lehiatuko da	Alderdia estatuaren parte da

Iturria: egileak berak egina, Monedero (2011: 173) oinarri hartuta.

Monederok (2011: 175) krisi horren jatorrian dauden hainbat faktore aipatzen ditu: 1) barne demokrazia eza; 2) erabaki politikoetan eragiteko ahalmena murriztuz joan dela; 3) militantzia edota parte hartzearen gainbehera; 3) desideologizazioa; eta 4) alderdiek enpresen funtzionamendua bereganatzea. Gainbehera prozesua ezkerreko zein eskuineko alderdien artean kokatzen dela esan dezakegu.

Ezkerreko gobernuai dagokienez, estatuaren ahultasuna nabarmenduko da etengabe; bereziki merkatuaren logikak indar handiz zipriztindu duela dio, adibidez, Santosek (2005); Gerentzia Publiko Berriaren⁷ nagusitasuna litzateke horren erakusle, hau da, sistema ekonomikoaren zerbitzura jarri

den amaraun instituzionala. Etengabe eremu horren demokratizazioaren beharrari erreferentzia egingo zaio, ezkerreko gobernuen zeregina norabide horretan kokatuz.

Kriesik (1992) egindako ikerketen arabera, ezkerreko gobernu eta gizarte mugimenduen arteko harremana testuinguru politikoaren arabera aldatuz joan da, batik bat, ezkerreko alderdien estrategia mugimenduekiko. Joera nagusien artean, aipa daitezke liskarra, negoziazioa edo kooptazioa. Kasu analisiek agerian uzten dute sozialdemokrazia, oposizioan dagoenean, mugimenduen lan jardunaz baliatzen dela; baina, gobernura heltzen denean, aldiz, harreman hori lausotu eta transmisioa moteldu egiten da. Ezkerraren baitan dagoen banaketa ideologikoak ere –sozialdemokrazia (edo sozialistak) eta komunistak– mugimenduen eta gobernuaren arteko harremana baldintzatuko duela dio Kriesik (1991: 18). Frantzia, Mitterrandekin edo Alemaniako sozialdemokraziarekin gertatuko aipatzen ditu horren erakusle.

Edonola, azpimarratu behar dugu herri mugimenduen, ezkerreko alderdien eta gobernuen lan eremua, eragiteko moldeak eta baliabideak ezberdinak direla, eta banaketa hori aintzat hartu behar dugu.

3. taula. Aktore politikoaren ezaugarriak

	<i>Herri mugimenduak</i>	<i>Ezkerreko alderdiak</i>	<i>Ezkerreko gobernuak</i>
<i>Egitura</i>	Informala, asanblearioa, aldakorra, sarea	Formala, egonkorra, bertikala	Instituzionala, hierarkikoa, departamentalizatua
<i>Diskurtsoa</i>	Sektoriala	Globala	Globala
<i>Esku-hartze eremua</i>	Gizartea	Sistema politikoa eta instituzioak	Instituzioak
<i>Boterearekiko orientazioa</i>	Aldaketa, antagonismoa, aurkakotasuna	Gauzatu, eskuratu	Gauzatu, eskuratu
<i>Estrategia</i>	Gatazka	Hauteskunde lehia	Lehia, gobernu programaren araberakoa
<i>Baliabideak</i>	Militantzia eta auto finantzaketa	Militantzia eta finantzaketa publiko/pribatua	Sektore publikoaren giza baliabideak eta aurrekontu publikoa

Iturria: egileak berak egina, Ibarra *et al.* (2002: 25) oinarri hartuta.

Azkenik, erakunde publikoen eta herri mugimenduen zein herritarren arteko lankidetzaren ahalbidetzen duten jardunbideak aipatu nahi ditugu, kasu analisietan sartu aurretik. Ibarra, Martí eta Gomák (2002: 58) dioten moduan, gobernugintza tradizional eta zurrunen aurrean, erakunde publikoak antolatzen, kudeatzeko eta erabakiak hartzeko moldeak itxuraldatuz joan dira azken hamarkadetan. Gobernugintza burokratikoak ateak zabaldu zizkion *Gestio Publi-*

Gobernugintza
tradizional eta zurrunen
aurrean, erakunde
publikoak antolatzen,
kudeatzeko eta
erabakiak hartzeko
moldeak itxuraldatuz
joan dira azken
hamarkadetan

ko Berriari, eta horren ostean *Gobernantzaren* ikuspegia nagusituz joan da. Kontzeptuak eztabaida eta kontrakotasun ugari sortuko ditu, bereziki ezkerreko pentsamendu edota praktika politikoan. Izan ere, ekonomia neoklasikoaren inguruabarren sortzen den terminoa da, enpresen errentagarritasuna eta eraginkortasuna indartzeko asmoz. Gerora, erakunde publikoen eremura bideratu da, eta ahots

kritikoek baieztatzen dute merkatuaren zein erakundearen lankidetzaren indartzeko gobernu moldeak izan dela, estatuen gobernagarritasun krisia ezkutaraziz.

Era berean, Subirats, Parés eta Blancok (2009) dioten moduan, gobernantza sareek ez dute herritarren edota sare kritikoaren partaidetza bermatuko politika publikoaren diseinuan. Horregatik, gobernugintza molde horien ebaluaketa egitea ezinbestekoa da. Horretarako, lau dimentsio ezberdinetan hainbat aldagai aztertzea proposatuko dute. Taulan ikusten duguna: sarearen osaketan, aktoreen dentsitatea, konplexutasuna eta harremanen intentsitatea neurtzea proposatuko dute; bigarrenik, gobernantza sarearen barneko botere harremana, eta, bertan, botere harremanak eta nagusitzen diren baliabideak; hirugarrenik, interes eta joko arauen banaketa

aztertzea proposatuko dute, argi fokua hasierako posizioan eta barne estrategietan jarritz; eta, azkenik, laugarren dimentsio batean, sarearen inguruarekiko harremana, non eragina politika publikoetan, iragazkortasuna eta eragina komunikabideetan diren proposatutako aldagaiak. Ikuspegi analitiko horretatik aztertu ditugu Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernantza sareak.

4. taula. Gobernantza sareen sakontasun demokratikoa

<i>Gobernantza sarea</i>	<i>Aldagaiak</i>	<i>Sakontasun demokratiko eskasa</i>	<i>Sakontasun demokratiko altua</i>	<i>Herritarren parte-hartzea ahalbidetuko duten osaketak</i>
<i>Oinarrizko sarearen osaketa</i>	1. Aktoreen dentsitatea 2. Konplexutasuna 3. Harremanen intentsitatea	Kopuru mugatua Homogeneoa Puntuala	Kopuru handia Heterogeneoa Sistematikoa	Zenbat eta dentsitate eta konplexutasun handiagoa, orduan eta aukera gehiago parte hartzeko
<i>Barneko botere harremanak</i>	4. Botere harremanak 5. Nagusitzen diren baliabideak	Asimetrikoa Materialak	Simetrikoa Harremanak	Harremanek indarra badute, eta berdintasunean oinarritzen badira, aktoreentzako aukera gehiago zabaltzen dira
<i>Interes eta joko arauen banaketa</i>	6. Hasierako posizioa 7. Barne estrategiak	Akordioa Negoziazioa	Gatazka Elkarrizketa	Elkarrizketak parte-hartzea errazten du
<i>Sarearen inguru-koekiko harremana</i>	8. Eragina politika publikoetan 9. Iragazkortasuna 10. Eragina komunikabideetan	Apala Apala Mugatua	Altua Altua Handia	Eragiteko ahalmenak, iragazkortasunak eta presentzia mediatikoak parte-hartzearen eremua zabaltzen dute

Iturria: Subirats, Parés eta Blancok egina (2009: 376).

Amaitzeko, ezin dugu aipatu gabe utzi partaidetza politiken eta herri mugimenduen arteko elkarbizitzaren auzia. Izan ere, herri mugimenduen jardunak eragin zuzena izan

du partaidetza mekanismoen hedapen instituzionalean (Espiau, Saillard eta Ajangiz 2005). Izan ere, borroka ezberdinen bitartez zabaldu dira sarritan administrazioaren erabakitze sistemak. Horren adibide ditugu Barcena, Ibarra eta Zubia-gak (1995: 100) mugimendu ekologista edo antimilitarista aztertzerakoan nabarmentzen dutena, alegia, protesta zikloek marko demokratikoa zabaldu dutela, partaidetza mekanismoei bide emanez, aktore politiko ezberdinen aniztasuna aitortuz eta erabakitze guneak zabalduz.

Aitzitik, nabarmendu behar dugu prozedura berritzaileek gatazka soziala kaleko eremutik atera eta herri mugimenduarentzako arrotzagoa den eremu batera bideratzen dutela; eta horrek arrisku handiak ditu: besteak beste, kooptazioa, instituzionalizazioa, oinarri soziala desaktibatzea...


Parések (2009) ohartarazten gaituen arrisku batekin amaituko dugu azpiatal hau. Katalanaren esanetan, partaidetza eta gobernantza sareen gakoa eragiteko ahalmenean dago. Eragileen ahotsak politika publikoen diseinuan eta inplementazioan barnebiltzen direnean, osagarriak izango dira ordezkariak eta partaidetza; eragin esparru hori bermatu ezean, atzerabuelarik ez duen frustrazioa sortuko litzateke. Eta Martinez-Palaciosek ere (2019) nabarmentzen duen moduan, partaidetzaren instituzionalizazio eta profesionalizazioak ondorio ez-desiragarriak dakartza. Eta, partaidetzaren instituzionalizazio prozesuan, lan egiteko moldeak eraldatzea ezinbestekoa dela dirudi.

Berdintasun Zuzendaritzaren (2011-2015) gobernantza sarearen ezinak eta eginak

Bildu koalizioak⁸ Gipuzkoako Foru Aldundiko aginte lerro nagusia eskuratu zuenean, hainbat ildo estrategiko zituela aipatu zuen; emakume eta gizonen arteko berdintasuna zen horietako bat, maila sinbolikoan bederen. Gobernugintza osora zabaldu nahi zen *itsas argi*⁹ gisa definitzen zuten, eremu zehatzetan esku argi modura funtzionatzeko asmoa zuena.

Ildo zehatzak azaldu zituzten agintaldi hasieran: batetik, Aldundiko politika guztietan genero ikuspegia txertatzea; tokiko administrazioan berdintasun politikak garatzeko baldintzak sortzea eta zeudenak indartzea. Eta, bigarrenik, mugimendu feminista eta emakumeen elkartegintza indartuko zuten baldintzak sortzea. Ikusten dugun moduan, bi lan eremuak hasieratik bistaraten dira: instituzionala eta komunitarioa.

3. irudia. Berdintasun Zuzendaritzaren gobernantza sarea




Iturria: egileak berak egina.

Berdintasun zuzendariak adierazita, bi parte-hartze prozesu edo gune nagusi zabaldu ziren eremu horretan: batetik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana (2012-2020) (Gipuzkoako Foru Aldundia 2012), eta, bestetik, Gunea gisa izendatua izan zen interlokuziorako espazioa.

Infografiaren ezker aldean, Berdintasun Planaren prozesuaren urratsak azaltzen dira. Eskuin aldean, berriz, mugimendu feminista eta emakumeen elkarteekin batera sortu zen interlokuziorako gunearen sortze prozesua deskribatzen da.

Beste aldetik, Gunea solaskidetza politikorako espazio gisa sortu zen, herrialdeko mugimendu feminista, emakumeen elkarteak eta Aldundia biltzen zituena. Kasu honetan, gunearen definizioa bera gogoeta prozesu baten bitartez egin zen. Ondorengo irudian jasotzen dira gogoeta prozesu horren fase nagusiak:

4. irudia. Gunea sortzeko aurre prozesua



Iturria: egileak berak egina.

Gobernantza sarearen osaketa: ertzetatik erdigunera

2011n, agintaldi politiko berriaren hasieran, elkarrekikotasun maila handia zegoela sumatu dugu elkarriketatu ditugun mugimendu eta arduradun politikoen artean. Eremu instituzionalaren eta mugimenduaren arteko aintzatespena etengabe azaltzen da. Dimentsio sinbolikoaren ikuspegitik, beraz, elkar aitortza maila handia zegoen bi norabideetan, bai eremu instituzionaletik mugimenduetara eta alderantziz.

Mugimenduetako kideek politika publikoetan eragiteko itxaropena zuten. Eremu instituzionalean eraldaketarako aukera politikoa zabaldu zela diote politikari, teknikari eta mugimenduetako kideek. Konplizitate handiaz gain, aipatzekoa da mugimendu eta zuzendaritzaren arteko interlokuziorako izendatutako ardura postua. Guztiek marko instituzionala pentsamendu feministatik demokratizatzeko espazio gisa irudikatzen zutela esan daiteke, nagusiki Bilduk berdintasun politikei eman zien presentziagatik eta ardura politikoa zutenek mugimendu feministarekiko azaldu zuten konpromiso eta jarreragatik. Hala adierazten du elkarrizketatu dugun mugimendu feministako kide batek: «Guretzako pozgarria izan zen, feminismoaren ildoak lantzeko aukera berriak zabaltzen zituen».


Gunearen kasuan, aipatu bezala, interlokuzio eremua elkarrekin definitzeko aukera egon zen, eta aurre prozesua azpimarragarria iruditzen zaigu. Planean, berriz, prozedura zehaztuagoa eta prozesua zurrunagoa zen. Kasu horretan, eremu ezberdinetan saio zehatzak egin ziren. Zuzendaritza politikoaren esanetan, plana agertoki berri baterako trantsizio gisa irudikatzen zuten. Pla-

naren berritasuna, mugimendu eta elkarrekin ahotsaz gain, lurralde osoko berdintasun teknikarien ekarpena barneratzeko egin zen ahalegina zela esan daiteke. Tokiko administrazio teknika-rioren goitik beherako lan moldeen ordez, behetik gorakoak joratzeko asmo edo ahalegin politikoa egin zen. Planean guztira egin

ziren urratsak: (1) lurralde osoko berdintasun teknikarien sei lan saio, (2) Berdintasun Foroaren¹⁰ topaketa, emakumeen elkarrekin, (3) mugimendu feministarekin beste topaketa bat, (4) Aldundi barruko teknikariekin bilera bat, eta (5) itzulera fasea parte hartu zutenekin.

2011n, agintaldi politiko berriaren hasieran, elkarrekotasun maila handia zegoela sumatu dugu elkarrizketatu ditugun mugimendu eta arduradun politikoen artean

5. irudia. Berdintasun Planaren sortze prozesua



Iturria: egileak berak egina.

Gunearen kasuan, aldiz, aipatu dugun moduan, lidergo instituzionala zen, baina mugimendu feministako hainbat kidek egindako aldarrikapen bati ere erantzuten zion. Prozesua partaidetza gunearen sakontasun demokratikorako bermea zen, baina indarrak ez ziren ondo neurtu; neketsua izan zen hainbat eragilerentzat, horren erakusle da teknika-ri baten ondorengo testigantza: «Gunearen sorrera neketsua izan zen. Desgastea izan zuen prozesuak berak, eta gero zailtasunak etorri ziren martxan jartzerakoan. Ez zen energiarik egon martxan jartzeko. Mugimendu feministako zenbait kide desilusionatuz joan ziren, eta, prozesua amaitzean, nahiago zuten beste toki batzuetan egon hemen baino».

Partaidetza espazioen joko arauetara dagokienez, Berdintasun Planaren kasuan, aipatu bezala teknikariarekin lan egin

zen gehienbat, eta, ondorioz, ordutegiak, hizkuntza zein lan moldeak administrazioarenak ziren. Horrek zaildu zuen gizarte mugimenduen ekarpena. Botere harremanen inguruan galdegin diegunean, Aldundiaren baitan sortu ziren erresistentzia gehien zeharkakotasuna lantzerako orduan.

Gunearen kasuan, bertako joko arauak neurri batean aldeztu aurretik eragileekin eztabaidatzeko eta gogoetatzeko aukera izan zuten. Hasieratik, edonola ere, eremu horrekiko zalantzak ere azaldu ziren. Partaidetza instituzionalaren saturazioa eta eraginkortasun eza ere aipatzen da.¹¹ Gunearen izaera juridikoa eztabaidan egon zen, espazioaren autonomia bermatzeko asmoz. Hori lortu ez arren, lehendakaritza mugimenduari eskaini zitzaion, eta horrek agerian uzten du, eremu instituzionalaren joko arauak izan arren, mugimenduari eskaini nahi zitzaiona autonomia espazio horren kudeaketa. Zuzendariaren ahotan, interlokuzioa izateaz gain, jabeakuntza prozesu kolektibo eta indibidualak hauspotzeko tresna gisa ere izendatu zen. Era berean, elkarlan dinamikari dagokionez, ezberdindu behar ditugu, batetik, Gobernantza Batzordea, eta, bestetik, lan taldeak. Bigarren horiek lehenengo baino askoz autonomoagoak ziren eta mugimenduen logiketara gehiago hurbiltzen ziren. Administrazioaren lan moldeak –espazioak, denborak, ordutegiak, edukiak, administrazioaren funtzionamendu arauak– ez zetozen bat mugimenduak eskatzen zituenarekin. Teknikarien aldetik joera horiek eraldatzeko ahaleginak egin arren, oso zaila zen oreka mantentzea. Botere asimetria horien lanketa elkarlan espazioen metodologian islatzen da, harremanen eta lan egiteko moldeak asko zaindu zirela esan dezakegu.

Lankidetzaren eremuen botere harremanak eta eragina

Botere harremanekin lotuta, gobernantza sareen konplexutasuna identifikatu ditugun gatazka eremuetan islatzen da. Lau eremu nagusi ezberdindu ditugu, partaidetza guneetatik harago doazenak, eta gure ustez kontuan hartu behar direnak.

5. taula. Gobernantza sareen gatazka eremuak

<p><i>1. Erakundearen baitan</i> Aldundiaren baitan departamentuen artean, zeharkakotasuna lantzerakoan.</p>	<p><i>2. Alderdien artean</i> Bildu koalizioaren baitan, lehentasun politikoen arteko tentsioa. Alderdi politikoen artean sintonia falta.</p>
<p><i>3. Erakundeen eta mugimenduen baitan</i> Herri mugimenduen eta erakundeen artean. Logika eta izaera ezberdinen arteko botere harremanak.</p>	<p><i>4. Mugimendu eta elkarteen baitan</i> Mugimenduen zein elkarteetako kideen arteko tirabirak. Boterea ulertzeko eta kudeatzeko moduak.</p>

Iturria: egileak berak egina.

Batetik, erakundearen baitan, departamentuen artean elkarlanean aritzeko zailtasun ugari azaleratu ziren. Bigarrenik, Bildu koalizioaren baitan, alderdien arteko talka; izan ere, sinbolikoki Berdintasun Zuzendaritzak zehazten zituen ildo politikoei garrantzia aitortu arren, gero ez zen hori islatzen eguneroko jardunean. Berdintasun Planak beste eremuak zipriztintzen zituen, eta hasiera batean ildo estrategikotzat eman zena urardotuz joan zen denborarekin. Hirugarrenik, erakundeen eta mugimenduen baitan, lan eremu ezberdinen arteko konfrontazio logika zen nagusi. Mugimendu eta elkarteetako kideek aldaketa politikoa azkartu nahi zuten eta Berdintasun Zuzendaritza gainditzen zuten eremuetan eragin. Laugarren gatazka eremua mugimendu eta elkarteen baitan kokatzen da, boterea ulertzeko eta kudeatzeko modu ezberdinak baitzeuden. Mugimendu feministaren baitan hierarkizaziorako joera ematen zen hainbaten aldetik, beste elkarteen dinamika gutxiesteraino.

Gobernantza sareek administrazio publikoan, bai politika publikoetan bai funtzionamenduan, izandako eraginak aztertzerakoan, hauxe da ikusi duguna: batetik, mugimenduen partaidetza eta eragiteko ahalmena baino, lidergo politikoak izan zuela berebiziko garrantzia. Iparrorratz berri bat ezarri zuten berdintasun politiken eremuan, teoria eta ikuspegi feminista erabat barneratua zuena eta orduko gizarte eredia ezbaian jartzen zuena, bai dimentsio

ekonomiko, ekologiko, politiko eta sozialetik begiratuta. Eragina administrazioaren funtzionamenduan mugatua izan zen, hala eta guztiz ere.

Zeharkakotasuna lantzeko gune berriak sortu ziren, baina lan molde berriak ezartzeko zailtasunek agerikoak izaten jarraitzen zuten. Edozein modutara ere, aipatzekoa da, esate baterako, ogasunaren eta berdintasunaren alorrean hartu ziren zenbait neurri; lankidetzaren eremu berriak martxan jarri ziren, ordura arte jorratu ez zirenak. Administrazioaren lan kultura demokratizatzeko oinarriak ezarri zirela esan daiteke.

Eremu komunitarioan izandako eraginak aztertzen baldin baditugu, esan dezakegu baliabide ekonomiko ugari bideratu zirela mugimendu eta elkartegintzaren lan jardunera, eta horrek hainbat proiektu berri ahalbidetu zituela. Herri mugimenduen lan ildoak indartu egin zirela esan dezakegu, hortaz.

Bi eremuen –komunitarioa eta instituzionala– arteko elkar aitortza egiteko ere baliagarria izan zen, lankidetzaren garrantzia azpimarratzeko eta bata bestearekin norabide antzekoan lan egiteko aukera ikusgarri egiteko. Azken finean, artikulazio politikorako agertoki berria bistaratu zen. Eragileen arteko konplizitate berriak sortu ziren eta elkarren arteko ezagutzarako eta sarean elikatzeko ere baliagarria izan zela baieztatzen dute hainbat elkarrizketak. Pluraltasun politikoaren begirada indartu zen, beraz. Emakumeen partaidetza politikoari ikusgarritasun handiagoa eman zitzaion, eta partaidetzaren bisio hori trinkotu egin zen herrialdeko kultura politikoan.

Lankidetzaren eremu berriak martxan jarri ziren, ordura arte jorratu ez zirenak. Administrazioaren lan kultura demokratizatzeko oinarriak ezarri zirela esan daiteke


Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren gobernantza sarearen ezinak eta eginak

Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren baitan, hiri hondakinen kudeaketan jarri dugu argi fokua. Ereku gatazkatsuena izan zela esan daiteke, eta oihartzun mediatiko handiena izan zuena. Bilduren hauteskunde programan jasota zetorren afera horri emango zitzaion trataera: hiri hondakinen gutxitzea, berrerabiltzea eta birziklatze eta errauste plantari atzerapena ezartzea. Agintaldiaren hasieran, hauteskunde kanpainan agindutakoa betetzeko asmoa azaldu zuten.

Hiri hondakinen politika publikoen genealogia laburra egi-ten badugu, 2002ko abenduaren 17ra jo behar dugu, orduan onartu baitzen Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan Orokorra (GHHKPO euskaraz eta PIGRUG gazteleraz). Bertan aipatzen da bi erraustegi egiteko asmoa. Kokapena gerora jakin zen, 2003ko urriaren 16an: Urnietan erraustegia jartzeko erabaki politikoa publiko egin zuen Roman Sodupe; eta, 2004ko otsailaren 4an, bigarrena Hondarribiko Zaldun-bordan jarriko zutela iragarri zuten. Berehala sortu ziren erraustegien kontrako plataformak: Arnasa Urnietan, Txingudi plataforma eta beste hainbat (Petxarroman 2011). 2007ko urtarrilaren 30ean, Donostiako Udalbatzak –Odon Elorza alkate zela– erraustegia Zubietan jartzea onartu zuen. 2007tik 2011ra zihoan agintaldian, erraustegiaren kontrako protesta ugari eraman ziren aurrera.

Elkarlan guneei dagokienez, gizarte eragileen partaidetzarako espazio nagusia 2012ko maiatzaren 9an sortu zen: Gipuzkoako Hiri Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko Aholku Batzordea, 8/2012 Foru Dekretuaren¹² bitartez arautuko zena. Espazio horren xedea: hiri hondakinen prebentzio eta kudeaketa arloko ekintzen eremuan, batetik, aholkularitza eskaintzea GFari eta Hiri Hondakinen Kontsortzioari (GHK); eta, bestetik, gizartearen eta erakundearen parte hartzea sustatzea.

6. irudia. Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuaren gobernantza sarea



Iturria: egileak berak egina.

Arestian aipatu bezala, sailean zegoen elkarlan espazio nagusia Aholku Batzordea zen, eta, horrekin batera, GHKn herri mugimenduei parte hartzeko aukera zabaldu zitzairen; botorik gabeko partaidetza izan arren, partaideen iritzia aintzakotzat hartu zela diote mugimenduetako kideek. Gizarte

eragileekin ere lan hitzarmen ugari egin ziren, Zero Zabor elkartearekin eta Emaus Fundazioarekin. Aurrekontuen in-guruko bilera informatiboak ere antolatu ziren.

Gobernantza sarearen osaketa: konfrontaziotik lankidetzara¹³

Arduradun politikoek zein erraustegiaren kontrako mugimenduko kideek arnasmune gisa definitzen dute agintaldiaren hasiera. Ilusio eta itxaropen handiko garai bezala deskribatzen dute.

Arduradun politikoek zein erraustegiaren kontrako mugimenduko kideek arnasmune gisa definitzen dute agintaldiaren hasiera, ilusio eta itxaropen handiko garai bezala

Aldaketa politikoa espero zuten, nagusiki, mugimendu ekologistako kideek. Erraustegiarekin lotutako eskaerak kontuan hartuko zirelakoan zeuden. Politikarien esanetan espektatibak handiak ziren agintaldi berriarekin, eta erantzukizun handia sentitzen zuten; hala adierazten du elkarriketatutako dugun arduradun politiko batek: «Mugimenduaren

eskaerak praktikara eramateko ardura sentitzen genuen eta konfrontazio eremu batean kokatzen ginen». Ardura postuetan zeuden hainbat politikari Zero Zabor mugimendutik zetozen, alderdi eta mugimenduaren arteko iragazkortasun edo kooptazioaren adierazle gisa definitu daitekeena (Della Porta eta Diani 2011). Dimentsio sinbolikoari dagokionez, elkarrekikotasuna eta elkarren beharra izango zutela aipatzen dute agintaldiaren hasieran. Santosek (2005) aipatzen duen komunitatearen eta erakundearen arteko artikulaziorako borondate politikoa agerikoa zen, eta lankidetzara horren premiaz jabe ziren, nahiz eta lankidetzara horren gaineko bide-orri argirik ez zegoen.

Aholku Batzordearen sarearen osaketan, eragileen kopurua eta aniztasuna kontuan hartzen badugu, esan dezakegu

sakontasun demokratiko handikoa zela: 45 pertsonak osatzen zuten eta espazio askotarikoa zen ideologikoki; harremanaren intentsitate maila, aldiz, apala zen, hau da, elkarlan dinamika oso mugatua izan zen.

GHKren kasuan, gunea sortuta zegoen jada, eta espazioa mugimenduen parte hartzera zabaldu zuten. Hiri hondakinen kudeaketarako azpiegituren erabakigune garrantzitsua zen. Kasu honetan, sarearen osaketa oso baldintzatuta zegoen. Eragile kopurua oso mugatua zen, eta harremanaren intentsitatea maila altukoa. Mugimendu ekologistak herrialde osoko mankomunitateetako arduradunekin harremanetan jartzeko aukera izan zuen, eta, horri esker, elkarlan sarea hauspotu zen. Horrez gain, informazioa lortzeko espazio pribilegiatua zen, elkarlan handia ahalbidetu zuena Aldundiaren eta herrialdeko udal eta mankomunitateen artean. Hondakinekin lotutako gogoeta prozesua herrialde osora zabaltzea ahalbidetu zuen.

Lankidetzaren eremuen botere harremanak eta eraginak

Hiri Hondakinen Aholku Batzordearen joko arauak dagoeneko, elkarriketarek diote berdinetik berdineraren parte hartzeko aukera izan zutela, konfrontazio egoeratik elkarlan dinamikara salto eginez. Bestalde, Aholku Batzordearen funtzionamendu arauak oso zehaztuta zeuden 8/2012 Foru Dekretuaren bitartez. Aldundiko teknikariaren esanetan, guneko plangintza orokorrako batean txertatu behar zen, eta hutsune hori agerikoa zen. Batzar Nagusietan plangintzak babes gutxi zuen, eta horren erakusle dugu lehenengo Ingurumen diputatuak bizi izan zuten zentsura mozioa.¹⁴ Bestalde, GHK oso guneko egonkorra zen, informazioa partekatze gune pribilegiatu bat zen. Bigarren horretan, botere harremanak asimetrikoak ziren, baina, halere, eragiteko aukera zuten herri ekimenetako partaideek. Era berean, mugimenduetako kideek eta Bilduko arduradun politikoek bertako hainbat teknikarirekin tentsio momentuak bizi izan zituzten; izan ere, erresistentzia ugari egon ziren bertako langileen aldetik.

Gatazka eremuekin lotuta, lau multzo ezberdinu ditugu: (1) alderdien artean, (2) arduradun politikoen eta teknikarien artean, (3) arduradun politikoen eta alderdien artean, eta (4) arduradun politikoen eta kontramugimenduaren artean.

6. taula. Gatazka eremuak

<p><i>1. Alderdien artean</i></p> <p>Alderdien arteko konfrontazioa: zentsura-mozioa.</p>	<p><i>2. Arduradun politikoen eta teknikarien artean</i></p> <p>Bilduko ordezkarien eta teknikarien artean, GHK batik bat.</p>
<p><i>3. Arduradun politikoen eta alderdien artean</i></p> <p>Bilduren baitan bereziki ardura politikoa zuten karguen eta alderdiaren zuzendaritzaren artean.</p>	<p><i>4. Arduradun politikoen eta kontramugimenduaren artean</i></p> <p>Kontramugimenduaren eta Bilduren artean, herri kontsultak abiatu zirenean.</p>

Iturria: egileak berak egina.

Alderdien arteko konfrontazioari dagokionez, gobernantza sarearen eta alderdien arteko logika etengabe gurutzatzen direla esan dezakegu, eta horrek asko zaildu zuen ezberdinen arteko lankidetzeta. Bigarrenik, arestian aipatu bezala, arduradun politikoen eta teknikarien artean ere tentsio ugari egon ziren; izan ere, aurreko agintaldiko alderdiarekin lerrokaturta zeuden teknikarien jarrerak norabide politikoa aldatzea zaildu zuen. GHKn, batik bat, ordura arteko dokumentazioa topatzeko zailtasun ugari izan zituzten.

Hirugarrenik, Bilduren baitan, ardura politikoa zutenen eta ezker abertzalearen zuzendaritzaren artean. Gaiak desgaste elektorala sor zezakeela ikusten hasi zirenean, hondakinen bilketa sistemaren norabidea aldatu egin zen, eta horrek tentsioa sortu zuen ardura politikoa zutenen eta alderdiaren artean. Izan ere, bitarte horretan Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeak izan ziren eta desgaste politikoa nabaritzen hasi zen. Horrenbestez, erritmoa apaltzea erabaki zuten.

Azkenik, arduradun politikoen eta kontramugimenduaren arteko gatazka eremua aipatu behar dugu. Aurreko gatazka eremuarekin lotuta, kontramugimendua sortu zen, Gipuzkoa Garbia¹⁵ izenekoa, eta herri kontsulta ugari antolatuta

zituzten atez ateko sistema ezarri ala ez galderarekin lotuta. Herri kontsulten kontrako jarrera erabat kontraesankorra zen Bildu sustatzen zebilen partaidetza politikekin.

Azkenik, atal honekin amaitzeko, gobernantza sarearen eragiteko ahalmenari dagokionez, eremu instituzionalean, mugimenduek eragina izan zuten hondakinen kudeaketa sistema berriaren inplementazioan eta erraustegia gelditzaerako unean; baina ez zen izan hainbeste gobernantza sarearen eraginez, agintaldiaren aurretik egon zen protesta zikloak eragin handiagoa izan zuela uste dugu. Elkarlan dinamiketan ere gaiak beste norabide bat hartu zuela esan daiteke, eta ordura arte aitortza instituzionalik ez zutenak politika publikoetan presentago egon zirela esan dezakegu.

Ordura arte aitortza instituzionalik ez zutenak politika publikoetan presentago egon ziren. Hala eta guztiz ere, administrazioaren funtzionamendua eraldatzeko urrats gutxi egin ziren

Unibertsiteateak, mugimenduek, fundazioek politika publikoetan eragiteko ahalmen handiago zuten, eta presente egon ziren hainbat lan ildotan. Bereziki hiri hondakinen kudeaketa eremuan. Hala eta guztiz ere, administrazioaren funtzionamendua eraldatzeko urrats gutxi egin zirela uste dugu. Berrikuntza demokratiko berri gutxi, prozedura ikuspegitik.

Komunitatean izan zituen eraginak aztertzen baditugu, esan dezakegu kasu batzuetan hainbat mugimendu ahuldu egin zirela; horren adibidea dugu Zero Zabor taldea. Agintaldiaren hasieran indartu eta herrialde osora zabaldu arren, gerora mugimendua apalduz joan zen. Bestalde, mugimenduen lan jarduna erakundeetatik indartu zela ere esan daiteke. Emausen Ecocenterra litzateke horren adierazle.

Eragin mediatikoa aztertuz gero, parte-hartze espazio ezberdinek oihartzun mediatiko handia izan zutela uste dugu, herrietan antolatu ziren kontsultak barne. *El Diario Vasco* eta

EITB taldeak eskaini zioten arreta azpimarragarria dela dio elkarrizketatu dugun kazetari batek, aferak izan zuen presentzia mediatikoagatik. Harrabots mediatikoak gobernantza sareak zeharka baldintzatu zituelakoan gaude, komunikabideek polarizazioa hauspotu baitzuten. Elkarlan espazioek bestelako komunikazio esparruak indartzea eskatzen dutela aipatzen dute agintaldian ardura politikoa izan zutenek, tokian tokiko hitzaldiak eta aurrez aurreko komunikazioa zabaldu ahal izateko.

Ondorioak eta amaierako gogoeta

2011n, Bildu koalizioaren agintaldian, espektatiba handiak zabaldu ziren. Bai ingurumenaren alorrean zein berdintasunean, eraldaketa sozialerako sinesmena nahiko orokorra zen eragileen artean; konplizitate politiko handia zegoen Berdintasun Zuzendaritzaren eta mugimendu feministako zenbait kideren artean, eta baita ingurumeneko arduradun politikoen eta erraustegiaren kontrako aktibisten kasuan ere. Gertutasun horrek, ordea, ez zuen eragile eta erakundeen arteko aliantzarik ahalbidetzen, ez baitziren legegintzaldiaren hasierako ildo estrategikoak elkarrekin adostu edo kontrastatu. Itxaropen orokortuaren aurrean, helburu politikoen eztabaidarako espazioak espektatibak doitzeko baliagarriak izan zitezkeela uste dugu. Sintonia politikoa nabaritu arren, pentsatzen dugu izan zitekeela ondorengo frustrazioak saihesteko modu bat, azken finean, eta bereziki balizko elkarlanaren nondik norakoak adosteko momentu egokia.

Aztartu ditugun bi eremuetan, abian jarri ziren interlokuziorako espazioak eremu instituzionalaren ekimenetik sortu ziren. Bertatik eta bertako egituretara oso zuzenduta. Gizarte mugimenduen logika, *tempus*, hizkuntza eta lan kulturatik oso urrun. Berdintasun Zuzendaritzak ahalegin handia egin zuen partaidetzarako espazioak sortzeko, eta ingurumenaren alorrean, beharbada, tokiko hautetsientzako elkarlanerako espazio gehiago zabaldu ziren gizarte eragileentzako baino. Azken kasu horretan, bizi izandako gizarte eta ingurumen

gatatzak interlokuziorako eta deliberaziorako espazio gehiago eskatzen zituela uste dugu. Hiri Hondakinen Aholku Batzordea eta Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa mugatuegiak ziren, une hartan bizi zen posizioen arteko talka eta tentsio maila zein zen kontuan izanda.

Orobat, abian jarritako espazio gehienek gizarte eragileen ahotsa instituzioetan integratzeko helburuarekin sortu ziren, eremu instituzionalaren joko zelaia demokratizatzeko asmo politikoarekin, alegia; baina, berrikuntza demokratikoei dagokienez, Gunearen espazioa izan ezik, beste guztiak mekanismo klasikoetatik oso hurbil zeuden, eta beharbada erakundeen funtzionamendua eraldatzeko neurri gehiago eta berritzaileagoak behar zirelakoan gaude. Gunearen kasua ezberdina dela diogu, mugimendu feministaren aldarrikapen historikoa baitzen lurralde mailako berdintasun kontseilu bat sortzea; espazio horren osaketarako parte-hartze prozesu bat abian jarri zen, baldintzak eta ezaugarri nagusiak definitzeko. Kasu horretan ahalegin berezia egin zen interlokuzio espazio horretan parte hartuko zutenen begirada eta premiak integratzeko. Beste esperientzia edo mekanismoetan, aldiz, ez zen hainbesteko ahaleginik egin. Berrikuntza demokratiko gisa ere aipatu nahi genuke, ez prozeduragatik baina bai ikuspegi politikoagatik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana (2012-2020), feminismotik zetozen eraldaketarako lan ildoak barnebiltzen zituelako.

Sare gobernantzak lan eremu ezberdinetan diharduten eragileak eremu komun batean elkarrekin aritzea eskatzen du, eta, gure ustez, ahalegin horrek erakundeen lan moldeen edo joko arauen berrikusketa bat ere badakar. Alegia, administrazioaren logikak moldagarriagoa izan beharko luke. Bestela, logika bakarra nagusituko da, beste eragileen lan dinamika erabat baldintzatuz, eta aniztasuna arriskuan jarritz. Partaidetza politikoa eremu instituzionalean integratzen denean, partaidetza politikak zeharkakotasunaren ikuspegitik lan egitea dakar, eta erakundeen antolaketa-egituraren aldaketa eskatuko du; horrez gain, departamentalizazioa gainditzea

eta proiektuka diziplinarteko elkarlana sustatzea. Hortaz, antolaketa ereduaren aldaketa ezinbestekoa da partaidetza politika eraginkorrak inplementatu nahi badira. Prozesu horietan, teknikarien begirada aintzat hartu behar da; izan ere, antolaketa kultura aldatzeko, teknikarien borondatea eta euren ezagutza oinarritzko osagaiak dira.

Aldundiko esperientziaren lan jardunean arreta jartzen badugu, mugimenduaren eragina mugatua eta aldakorra izan zela esan daiteke eremu batetik bestera. Berdintasunaren alorrean, mugimendu feministak eta emakume elkarteek ez zuten Aldundiaren funtzionamendua baldintzatu; borondate politiko argia zegoen eremu instituzionala ikuspegi feminista batetik baldintzatzeko, baina zuzendaritza politikoarena zen nagusiki. Horrez gain, agerikoa da borondate politikoa ez zela nahikoa asmo eraldatzaile horiek guztiak gauzatzeko. Zailtasunek indar metaketa beharrezkoa dela ohartarazten gaituzte, politikariek euren kabuz oso zaila baitute erakundeen funtzionamendu logika eraldatzeko. Horretarako, eragileen arteko aliantzak eta lankidetzak ezinbestekoak dira, baina, beti

Artikulazio tresnek
–governantza sarea eta
partaidetza politikak–
lidergo partekatua
ahalbidetzen dute,
baina batzuetan ez
dira nahikoa helburu
politikoak erdiesteko
eta alternatibak
egonkortzeko

ere, mugimendua indargabetu edo ahuldu gabe. Artikulazio tresnek –governantza sarea eta partaidetza politikak– lidergo partekatua ahalbidetzen dute, baina batzuetan ez dira nahikoa helburu politikoak erdiesteko edo alternatibak egonkortzeko. Mugimendu ekologistak eta bereziki erraustegiaren kontrako mugimendua Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako politiken norabidea baldintzatzeko gai izan ziren hasiera batean,

eta Bilduk erraustegia gelditzeko konpromisoa hartu zuen, mugimenduen lan jarduna aitortuz; baina, hortik aurrera,

mugimenduaren eragiteko ahalmena ahulduz joan zen, eta hauteskunde logika gailendu zen.

Erakunde publikoen berrasmatze lanek eskatzen dute ikerketa honen analisisian identifikatu diren oztopo guztiei aurre egitea eta eraldatzea. Azken batean, lanerako erritmoak, hizkuntzak, espazioak, lan ordutegiek, departamentalizazioak, oztopo legalek, hierarkizazioak eta bestelako logika arautzaileek ez dute batere laguntzen, eta sakontasun demokratikoa bilatzen duten gobernantza ereduak erakunde publikoen funtzionamendua beste klabe batzuetan jartzeko estrategiak lantzea eskatzen dute. Finean, administrazioaren humanizazioaz eta desarautze prozesuaz ari gara. Demokratizazio prozesuen zerbitzura egongo dena, eta ez enpresen interes korporatiboen esanetara. Horrek, nahitaez, prozedura administratibo zurrun eta ulergaitzak berrikustea dakar, elkarlana ahalbidetzeko eta herritarren autoeraketa hauspotzeko.

Dударик gabe, eremu instituzionalean martxan jartzen diren berrikuntza demokratiko guztiek lidergo politiko indartsua izatea eskatzen dute, eta estilo hori urrun dago egungo alderdien profesionalizazio eta desideologizazio eredutik. Alderdiek historikoki izan duten bitartekaritza funtzioa presentean egitea, erabaki politiko transbertsalak ahalbidetuko dituen. Bereziki ezker eraldatzaileen koordinatu ideologikoetan kokatzen diren alderdien aldetik. Bestalde, aipatu nahi genuke ezkerreko gobernuak ez dituztela gehiegi garatu lidergo kolektiboak; Berdintasun Zuzendaritzaren esperientzia Aldundiko bakarrenetarikoa da. Ezkerreko alderdien eta herri mugimenduen artean partekatu eta adostutako hausnarketa estrategikorik nekez topa daiteke inguruan. Ezkerrak bere gobernantza sareak ezaugarritu beharko lituzke; hau da, erakundearen eraldaketa programen eremuan bisio partekatua garatzeko espazioa eta denbora hartu, gobernuen asmo eraldatzaileak elkarrekin eztabaidatzeko, bederen. Horrela eginez gero, lidergo politiko indartsuak artikulatu ahal izango lirarteke. Ariketa horrek nahitaez eskatzen du herri mugimenduen eta ezkerreko alderdien arteko harremana indartzea. Finean,

herri mugimenduek ezaugarrituko dituzten ezkerreko alderdiak eraikitzea. Ezkerreko alderdien eta mugimenduen arteko harremana eremu instituzionaletik harago landu beharra dagoela ondorioztatzen dugu; alderdiak herri mugimenduen aldarri eta gogoetatik hornitzen dira sarritan, eta bien arteko elkarrizketa eremu instituzionalen baitan eta hortik kanpo jorratu beharko litzateke: agintaldien aurretik eta bitartean. Ezkerreko alderdien eta mugimenduen arteko solaskidetza politikoa geroz eta sakonagoa izan, orduan eta elkarlan eman-korragoa izango da; hau da, ez da itxaron behar gobernura heldu arte elkarrizketa abiatzeko.

Administrazioaren humanizazioa eta demokratizazioa erabakigarria da erakunde publikoen baliabide ekonomikoak eta bestelakoak komunitatearen premietara begira eta zapalkuntza eta bazterketa askotarikoei aurre egiten diharduten prozesu sozialen zerbitzura jartzeko. Instituzioen logika birpentsatu eta berrasmatu beharra dago, prozesu zabalagoetan bidelagun rola garatzeko eta bideratzaile gaitasunak lantzeko.

Ezkerrak gobernatzen dituen erakunde publikoak herri ekimenez garatzen diren eraldaketa prozesuak babestu, hauspotu eta indartu beharko litzuzke nahitaez, baliabide ekonomikoaren bitartez, edo, bestela ere, erakunde publikoen azpiegiturak eta giza baliabideak horien mesedeetara jarritz. Gipuzkoako Berdintasun Zuzendaritzak eta Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak norabide horretan egindako urratsak (diru laguntzak, hitzarmenak...) erronka horren erakusleho direla uste dugu.

Politika publikoak modu komunitarioan garatzeko, erakundeek partaidetzarako espazioak eta metodologiak garatu behar dituzte. Parte hartze instituzionalean sakontzen jarraitu, baina beti ere kalitatezko praktikak eskainiz eta ondo planifikatuz. Zergatik, zertarako, norentzako eta nola galderei erantzun behar diegu alde aurretik, frustrazioak, etsipenak edo gaitzusteak saihesteko. Gobernuen irekierak, elkarlan askotariakoak eta berdintasunean oinarritutako deliberazioek praktika politikoen sakontasun demokratikoa handiagotuko lukete. 🌻

Oharrak

1. Artikulu hau *Herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen ezinak eta eginak: Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernantza sareak aztergai (2011-2015)* izenburu duen doktorego tesian oinarritzen da.
2. Emir Saderrek *Lula y Dilma. Diez años de gobiernos posneoliberales en Brasil* izenburu duen liburuan honela dio: «Latinoamerikako gobernu aurrerakoiak fenomeno bereziak dira bai mundu mailan bai Latinoamerikan. Gobernu neoliberalen porrotaren eta herritarrek adierazitako aurkakotasunaren ondorio dira» (2014: 9).
3. *Herri borrokei begirada analitikoa. Irabazitako hamarkada Latinoamerikan* argitalpenean, Gonzalo Gosálvez Sologurenek aztertzen du Boliiviako kasua, eta autoreak halaxe deskribatzen du MAS alderdiaren garaipena: «2006ko urtarrilean, Evo Morales Ayma Boliiviako lehendakari izendatu zuten; herrialdearen historiako lehen Lehendakari Indigena izan zen, oinarri sozial batek eraikitako garaipen politikoa, hain zuzen. MAS hainbat gizarte mugimendu, sindikatu, nekazari eta bestelako eragileetatik sortutako erakundea zen» (Gosálvez Sologuren 2015: 204).
4. «Azpimarratu behar dugu garaipena urtetako borrokaren emaitza izan dela: 2010-2012 bitartean, Grezian 30 greba orokor baino gehiago egin ziren –horietako hiru 48 ordukoak–, eraikin publikoak okupatu ziren (horien artean Finantza eta Barne Ministerioak), haserre-tuen mugimenduak (Aganaktismenoi) plazak okupatu zituen, eta ‘nik ez dut ordainduko’ mugimendua (desobedientzia masiboa autopisten ordainketan...)» (Martalis 2015: 39).
5. Ikerketa lan honetan, *herri mugimenduak* eta *gizarte mugimenduak* erabili ditugu sinonimo gisa. *Herri mugimenduak* Euskal Herrian mugimenduek autodefinitzeko sarritan erabiltzen duten terminoa dela esan dezakegu. Hori dela eta, *herri mugimenduak* lehenetsi dugu kasu batzuetan *gizarte mugimenduen* ordez. Dena dela, biek kontzeptu politiko berari egingo liokete erreferentzia.
6. Bildu koalizioaren lehenengo parte-hartze politikoa 2011ko udal eta foru hauteskundeetan izan zen, Espainiako Auzitegi Nazionalak legez-tatu ondoren. Orduan, koalizioa osatzen zuten alderdiak hauek ziren: ilegalizatutako ezker abertzalea –edo gaur egungo Sortu–, Eusko Alkartasuna eta Alternatiba; gerora, Aralar alderdia batu zitzairen.
7. *Gestio Publiko Berriak* 80ko hamarkadan Erresuma Batuko erakunde publikoetan txertatuz joan zen ikuspegiari egiten dio erreferentzia. Administrazioaren eremuaren antolaketa eta kudeaketa ikuspegi neoenpresarial batetik lantzen hasi ziren, pribatizazioak eta esternalizazioak sustatuz.
8. Indar politiko ezberdinek osatu zuten Bildu koalizio ezkertiar eta abertzalea Hego Euskal Herrian: Alternatiba, Eusko Alkartasuna,

- Araba Bai (Arabako Aralarren banaketa) eta Herritarron Garaiak (legez kanporatua zegoen ezker abertzalearen hurbileko plataforma).
9. Arduradun politikoaren esanetan: «Berdintasun politiken gure plan-teamendua ez zen politika soziala, ezta agenda zehatz bateko politika sektorial soila ere. Gobernuaren lan jarduna gidatuko zuen 'itsas argi politiketako' bat zen: zeharkakotasunean oinarritutako politika, beste politika publikoetan linterna gisa erabiliko dena, beste eredu baten trantsizioan. Gobernuaren plana izan behar zuen, finean, baina ez zen horrela izan».
 10. Berdintasun Foroa Gipuzkoako emakumeen elkarteek osatzen zuten, formaziorako eta bilgune espazio gisa planteatzen zen. Aurreko agintalditik zetorren eta mugimendu feministak ez zuen espazio hartan parte hartzen.
 11. «Berdintasun Kontseiluek Euskadin eragin oso mugatua izan dute interlokuzio espazio gisa eta emakumeen boteretzearen eremuan. Izan ere, kontseiluak mugatu dira informazioa transmititzera eta kontsultak edo ekarpenak jasotzera. Ez dute benetako partaidetza ahalbidetu berdintasun politiken diseinuan, eta are gutxiago berdintasun sailetik harago. Gainera, sarritan alderdi politikoek espazio horien erabilera egin ohi dute euren erabaki politikoak legitimatzeko, eta oso baldintzatuta egon dira aldaketa politikoen aurrean. Faktore horiei gehitzen badiegu kontseiluen dinamika ez dela oso erakargarria mugimenduentzako, frustrazioa eta desgastea eragin dute hainbat kideren artean» (Farapi 2013: 10).
 12. Ikus funtzionamenduaren xehetasunak: https://egoitza.gipuzkoa.eus/ogasuna/normativa/docs/VL0000025044_20120309.HTML
 13. Atal honetan lau dimentsio aztertu ditugu: lankidetzaren esparruaren jatorria, deliberaziorako espazioa definitzeko edo egokitzeko gaitasuna, partaidetza espazioetako aktoreen dentsitatea eta aniztasun maila eta harremanen sakontasuna. Sortu ziren elkarlanerako espazio guztiak eremu insituzionalaren ekimenez egin ziren, gonbidapenezko partaidetza kasuak ziren: Aholku Batzordearena eta Kontsortzioarena. Aholku Batzordearen definizioan alde biko bilera ugari egin zirela diote politikariek; beraz, gune horren sorreran, partaideen ikuspegia barneratze borondatea zegoela esan dezakegu.
 14. 2012ko ekainaren 22an, Juan Karlos Alduntzinek kontrako zentsura mozioa jaso zuen. Egoera liskartsuaren beste adierazle bat zela esan dezakegu. Diputatua kargutik kentzeko mozioa Markel Olanok (EAJ), Rafaela Romerok (PSE) eta Juan Carlos Canok (PP) aurkeztu zuten Batzar Nagusietan.
 15. Legegintzaldiaren bigarren urtean, beraz, oposizioa neurri horien kontra azaldu zen, eztabaida mediatiko handia sortuz. Testuinguru

horretan, atez atekoaren aurkako kontramugimendu bat sortu zen, Gipuzkoa Garbia delakoa –bereziki, Tolosa, Legazpi, Ormaiztegi, Lezo, Legorreta, Villabona eta beste hainbat udalerritan–.

Bibliografia

- Barcena, I.; Ibarra, P.; Zubiaga, M. (1995): *Nacionalismo y ecología. Conflicto e institucionalización en el movimiento ecologista vasco*, Madril, Los Libros de la Catarata.
- Blanco, I.; Gomá, R. (koordk.) (2002): *Gobiernos Locales y Redes Participativas*, Bartzelona, Ariel.
- Blas, A.; Ibarra, P. (2006): 'La participación: Estado de la cuestión', *He-goia koadernoak* 39, 1-44.
- Calle, A. (2005): *Nuevos Movimientos Globales. Hacia la radicalidad democrática*, Madril, Editorial Popular.
- (2015): 'Por una democracia participativa en las instituciones y en los movimientos sociales', *Éxodo* 128, 26-32.
- Chávez, D.; Rodríguez, C.; Barret, P. (2008): *La nueva izquierda en América Latina*, Madril, Los Libros de la Catarata.
- Della Porta, D. (2017): *Democracias. Participación, deliberación y movimientos sociales*, Buenos Aires, Prometeo.
- Della Porta, D.; Diani, M. (2011): *Los movimientos sociales*, Madril, Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Espiau, M.; Saillard, D.; Ajangiz, R. (2005): *Género en la participación. Un camino por recorrer*, Bilbo, Bakeaz, Cuadernos Bakeaz 67.
- Farapi (2013): *Reflexionando: 1. Fase. El Proceso de creación del Dispositivo foral de Gobernanza para la Igualdad. Aproximación a la participación socio-política y al tejido asociativo de mujeres de Gipuzkoa y retos para la creación de un órgano foral de interlocución política en igualdad*, Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Fraser, N. (1992): 'Rethinking the Public Sphere: A Contribution to the Critique of Actually Existing Democracy', in Calhoun, C. (arg.): *Habermas and the Public Sphere*, Cambridge, MA, MIT Press.
- García Linera, Á. (2016): *Democracia. Estado. Revolución. Antología de textos políticos*, Tafalla, Txalaparta.
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2012): *Gipuzkoako emakumeen eta gizonen berdintasunerako II. Foru Plana (2013-2020)* (<http://berdintasuna.gipuzkoa.net/berdintasunerako-ii.-foru-plana>).
- Gosálvez Sologuren, G. (2015): 'Bolivia: historia de una revolución social y descolonizadora en el siglo XXI', in Uharte eta Vázquez 2015, 201-212.

- Habermas, J. (1987): *Teoría de la acción comunicativa I. Racionalidad de la acción y racionalización social*, Madril, Taurus.
- Hardt, M.; Negri, A. (2004): *Multitud. Guerra y democracia en la era del Imperio*, Bartzelona, Debate.
- Harnecker, M. (1999): *La izquierda en el umbral del siglo XXI. Haciendo posible lo imposible*, Madril, Siglo Veintiuno de España.
- (2013): *Un mundo a construir. Nuevos caminos*, Mataró, El Viejo Topo.
- Holloway, J. (2005): *Cómo cambiar el mundo sin tomar el poder*, Buenos Aires, Melvin.
- Ibarra, P. (2011): *Democracia relacional*, Madril, Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.
- Ibarra, P.; Martí, S.; Gomá, R. (2002): *Creadores de democracia radical. Movimientos sociales y redes de políticas públicas*, Bartzelona, Icaria.
- Kooiman, J. (1993): *Modern Governance*, Londres, Sage.
- (2003): 'Governing as Governance' (*Gobernanza, Democracia y Bienestar Social* Nazioarteko Konferentzia aurkeztutako hitzaldia), Bartzelona, Institut Internacional de Governabilitat de Catalunya.
- Kriesi, H. (1991): 'The Political Opportunity Structure of New Social Movements', in *Discusión Paper FS III*, Berlin, Wissenschaftszentrum, 91-103.
- (1992): 'El contexto político de los nuevos movimientos sociales en Europa Occidental', in J. Benedicto eta F. Reinares (argk.): *Las transformaciones de lo político*, Madril, Alianza, 115-157.
- Lipset, S. M. (arg.) (1995): *The Encyclopedia of Democracy*, Washington, CQ Press.
- Machado, D.; Zibechi, R. (2016): *Cambiar el mundo desde arriba. Los límites del progresismo*, Malaga, Baladre y Zambra.
- Martalis, S. (2015): 'Situación y perspectivas de los movimientos sociales tras la victoria de Syriza', *Viento Sur* 139 (http://cdn.vientosur.info/VS139/Articulos/VS139_S_Martalis_Situacion_y_perspectivas_movimientos_sociales_victoria_Syriza.pdf).
- McAdam, D.; Tarrow, S.; Tilly, C. (2005): *Dinámica de la contienda política*, Bartzelona, Hacer.
- Martinez-Palacios, J. (2015): '¿Le importa el sexo a la democracia?', *Revista de Estudios Políticos* 168, 151-174.
- (koord.) (2018): *Innovaciones democráticas feministas*, Madril, Dykinson.
- (2019): *El giro participativo neoliberal*. Argitaratu gabea.
- Miyares, A. (2003): *Democracia feminista. Feminismos*, Bartzelona, Cátedra.
- Monedero, J. C. (2011): *El gobierno de las palabras. Política en tiempos de confusión*, Madril, FCE.

- Mouffe, C. (2003): *La paradoja de la democracia*, Bartzelona, Gedisa.
- Parés, M. (koord.) (2009): *Participación y calidad democrática. Evaluando las nuevas formas de democracia participativa*, Bartzelona, Ariel.
- Petxarroman, I. (2011): *Lurra, zorua bailitzan*, Tafalla, Txalaparta.
- (2012): *Su haietatik ke hauek. Gipuzkoa: errausketatik zero zaborrarentz*, Tafalla, Txalaparta.
- Rauber, I. (2006): *Sujetos políticos. Rumbos estratégicos y tareas actuales de los movimientos sociales y políticos en América Latina*, Santo Domingo, Pasado y Presente XXI.
- Riechmann, J.; Fernández Buey, F. (2001): *Redes que dan libertad. Introducción a los nuevos movimientos sociales*, Bartzelona, Paidós.
- Sader, E. (2014): *Lula y Dilma. Diez años de gobiernos posneoliberales en Brasil*, Madril, Traficantes de Sueños.
- Santos, B. (koord.) (2002): *Democratizar la democracia. Los caminos de la democracia participativa*, Mexiko DF, FCE.
- (2005): *El milenio huérfano. Ensayos para una nueva cultura política*, Madril, Trotta/Ilsa.
- Sartori, G. (1987): *The Theory of Democracy Revisited*, New Jersey, Chatham House Publishers.
- Schumpeter, J. (1976): *Capitalism, Socialism and Democracy*, Londres, Allen and Unwin.
- Subirats, J. (2012): '¿Qué democracia tenemos? ¿Qué democracia queremos?', *Historia Actual Online* 26, 115-132.
- Subirats, J.; Parés, M.; Blanco, I. (2009): 'Calidad democrática y redes de gobernanza: evaluar la participación desde el Análisis de las Políticas Públicas', in Parés (koord.) 2009, 367-418.
- Tarrow, S. (1997): *El poder en movimiento. Los movimientos sociales, la acción colectiva y la política*, Madril, Alianza.
- Uharte, L.; Vázquez, U. (2015): *Herri borrokei begirada analitikoa. Irabazitako hamarkada Latinoamerikan*, Bilbo, EHU.
- Viejo, R. et al. (2009): 'La participación ciudadana en la esfera pública. Enfoques teórico-normativos y modelos de democracia', in Parés (koord.) 2009, 29-54.
- Zibechi, R. (2007a): *Dispersar el poder. Los movimientos como poderes antiestatales*, Madril, Traficantes de Sueños.
- (2007b): *Autonomías y emancipaciones*, Lima, Universidad Nacional Mayor de San Marcos.
- (2011): *Territorios en resistencia: cartografía de las periferias urbanas latinoamericanas*, Buenos Aires, Lavaca.
- Zubiaga, M. (2007): *Boteretik eraginera: mekanismoak eta prozesuak Leitza-rango eta Urbina/Maltzagako liskarretan*. Doktorego tesia. UPV/EHU.

Euskal raparen hausnarketa antropologiko historikoaren hazia

Eric Ditzarri

Antropologian doktorea, ikertzailea, poeta, artista eta erakusketa-komisarioa

Hiru tipo eszena gainean. Gibelean, sample ta scratchetan, Jo. Honek ditu haien musikak sortzen, eta zuzenean berriz botatzen, *zkratxatzen*. Repeatzen du baita ere, hitzen inportantzia azpimarratuz. *Andrea Zubozki*

Hibernazio-latz honi-emazkiok-zor-zaizkion-akzioak, fikzioa-gure errealtatearen-bizio bilakatu aitzin! *Zzio*

Euskal musika ez da izan inoiz zerbait homogeneous. [...]. Akaso, aztertu behar da zer pasatu den hip-hop mugimenduan. Edo elektronikan. Musika eskolak bogako daude; horrek aldaketarik ekarri du? Fenomeno konkretuari begiratu, eta ez euskalduntasun orokor batetik musika aztertu. Ziur asko, prozesu eraldatzaileak ari dira gertatzen, baina txikiak izango dira. *Leire Lopez Ziluaga*

Hip-hop kultura 1970eko hamarkadan sortu zen New Yorken eta ordutik mundu osora hedatu da. Algeriako (Virolle 2007), Palestinako (El Sakka 2011, McDonald 2006, Puig 2007, 2012), Jamaikako (Blum 2009), Estatu Batuetako (Kajikawa 2015, Baker 2018) eta Frantziako (Ghio 2012) rapa artoski ikertua izan da eta rapari buruzko liburu asko (Barret 2008, Bethune 1999, 2004, Lapassade 1990,

Vicherat 2001) argitaratuak izan ziren. Munduan zehar zientzia sozialen antropologo, soziologo, hizkuntzalariek ikuspegi anitzetatik hip-hop eta rapa aztertu zituzten, baina oraindik euskal raparen ikerketak idatzi beharrean daude.

Hip-hop mugimendu kulturalarekin lotua da eta kulturaren hiru definizioekin zerikusia du: obra baten multzoa, bizimodua eta ideologia (Passeron 1991). Hip-hopak –rap, tag, graf eta *break* dantzarekin– adierazpen artistikoetatik modurik nagusietakoak ehuntzen ditu: musika, testuak, margolaritza, dantza (Dubois 2001). Euskal raparen arrakasta Euskal Herriko erabilera eta apustuen berrinterpretazioetatik dator. Raparen korrante menperatzaileen aurkako nortasunaren aldarrikapena politikoa da. Hitzen edukiak eta erak politikoak dira. Raplariak, gizarteak dituen arazoak aipatuz, gazteriaren bozeramaileak bilaka daitezke. Rap abestiei esker gizartearen moldaketak irakurgai bilakatzen dira.

Abestia adierazpen poetikoen modurik ezagunena da. Abestiak komunitate batek jasan dituen aldaketa askoren hausnarketak eta motibazioak islatzen ditu. Mugimendu sozialik garrantzitsuenetakoak beti bizkarrezur kulturalaren gainean bermatzen dira, sortze prozesua emozio eta ideien bektorerik indartsuena baita. Hori dela eta, gure herrietan, herriko abestien esparrua kontzientzia politikoa hedatzeko eta zabaltzeko egokia da. Herriko abestien espazio horretan iragaten dira iritzi publikoa eta errealitatearen eraikitzeak kontrolatzeko borrokak (Kouoh 2017: 21).

Rap musikan errimek erritmoek abiadurek doinuek zarak (Sorman 2007) eta hitzek pisu handia dute. Raplariak, bertsolariak bezala (Luku 2009), kantari ere behar du izan raplari osoa izateko. Egotrip edo *freestyle* generoen performantzak arau amankomunekin lotuak dira. Raparen lan formalaren erritmo eta soinu jokoetan zentratzen da. Estatu Batuetako, Palestinako, Frantziako edota Afrikako rapek ber estilo formularioekin jolasten dute. Rapean musika eta hitza erdigunean jartzen dira. Hastapenetik kritika eta salaketa-rako musika moldea da. Rapa minoritate sozial eta kulturalen adierazpenetatik dator. Gizartearen azpiko klaseetatik.

Rapa hip-hop kulturarekin lotua da eta 1960etako bukaeran New Yorkeko beltz eta hispaniarren auzoetan garatutako musika estiloa da. Rap abeslariak errimak sortuz abesten dute musika baten gainean jarritz. Hala ere, *a cappella* edo musikariek gabe abestea gerta daiteke. Abesten dutenei MC deritzaie, eta musika jartzen dutenei disko jartzaile edo DJ. Rapa MC eta DJen arteko joan-etorriko etengabeko elkarriketatik sortzen da. Hogeiru urte inguru joan dira hip-hop kulturak eta rapak euskararen jendartera jauzi egin zutenetik. Artikulu honek Euskal Herriko errimen, *beat*-en eta doinuen maisuak aipatzen ditu.

Punka, metala eta rock erradikala izan dira orain arte Euskal Herriko musika alternatiboen erreferentziarik nagusietakoak, baina poliki-poliki rap eszena bere lekua ari da egiten

Ibiltzen garen euskal munduan orain dela hogeiru urte sartu zen rap mugimendua mugaren bi aldeetan. Punka, metala eta rock erradikala izan dira orain arte Euskal Herriko musika alternatiboen erreferentziarik nagusietakoak, baina poliki-poliki rap eszena bere lekua ari da egiten. Euskal kantagintza berria (Ion Andoni del Amo, Josu Larrinaga), punka (Arturo eta Gonzalo Ibañez), rocka (Elena Lopez Agirre) eta metala ikertu dira eta haien historiak idatzi dira. Orain falta zaiguna da euskal raparen historia idaztea.

Artikulu honen helburua euskal raparen historiaren lehen ataza idaztea da. Artikulu honetan planteatuko ditugun galderak: euskal rapak azken bi hamarkadetan bizi izan duen aldaketak Euskal Herriak bizi izan duen aldaketa politikoa islatzen du? Euskal rapa nola eta zein baldintzatan lerratu da ezker abertzaleen paradigmatik kezka hedonista eta existentzialen paradigmara? Nola lerratu da lehen paradigmatik –non borroka politikoa, soziala, nazionala, antikapitalista eta gutasuna euskal raparen ezaugarriarik garrantzitsuenetakoa ziren– gaur egungo paradigmara –non nitasunaren,

hedonismoaren, egotismoaren, drogen, armen eta plazeren apologiek raparen eszenatokian leku handia hartu duten? Zergatik inork ez du euskal ikerkuntza mundutik euskal rapari buruzko hausnarketa sakonik egin? Zergatik inork ez du euskaraz idazten den euskal raparen testua corpusatzat hartu? Zergatik daude hain argi hizkuntzalaritzaren eta zientzia sozialen euskal rapari buruzko erreferentzien ahuleziak? Euskal rapak, euskaraz hausnartzen eta sortzen den rapak, ez du ikerketa sakonik merezi? Zergatik euskal rapa euskal ikerkuntzaren mundutik minorizatua izan da?

Euskal raparen definizio batera

Zer da euskal rapa? Euskaraz abesten den rapa edo Euskal Herrian sortzen den rapa eta erdaraz abesten dena? Euskarra, gaztelania eta ingelesa hitzetan nahasten jarraitzen duten taldeak ezin dira euskal raparen izendapenaren azpian zerrendatu? Dikotomia horretan sartzen garenean, beste dikotomiaren aurrean ezartzen gara, esate baterako, euskal kulturarena. Zer da euskal kultura? Euskaraz sortzen den kultura edo Euskal Herrian sortzen dena? Hizkuntza normalizatzea zerbait bada, hizkuntza horretan gainontzekoetan egiten den guztia naturaltasunez eta normaltasunez egitea da? Musika eta nola ez, rapa.

Jon Eiherabide (Aiherra, Lapurdi) MAK taldearen kantariak elkarrizketa batean adierazi digunez:

Euskal deitzen badiogu, euskaraz izan behar dela. Egia da sorkuntza prozesua (entseguak) frantsesez egiten genituela: *Suari darion kea*-ren garaian salbu, euskaldun bakarra nintzen taldean. Antton Lukuren liburuan agertzen zen kritikak zioen euskal kultura 'rapez' estaltzen bazen, modan izateko ez zuela zentzu handirik... Ontsa oroitzen banaiz, nik hola ulertu nuen. Guk ez genituen sekula gauzak bortxatu rapa egiteko... AK47 edo AK taldeen garaian hasi eta jadanik rapean ari ginen. Euskal kultura? Euskaraz adierazten den kultura (hitzen bitartez baldin bada) edo euskaraz sortutako kultura (gorputz ala margoen bitartez adierazten bada)!!! Ba, egia da garai horretan gauzak pentsatu gabe egiten genituela,

espontanea zen dena... Ongi edo gaizki, hori beste zerbait da... Gero jiten da intelektualizazioa... eta egia da Anttonek pausatutako problematikak inarrosi ninduela... Ontsa elkar ulertzeko, Anttoni galdegin nion hitzordu bat. Bildu ginen eta solas egin gai horretaz... Galdegin nion zein izango zen euskal anarkismoaren arketipo bat... eta Zirtzilaren pertsonaiaz hitz egin genuen. Ondotik, Anttonek idatzi zituen *Zirtzil* kantuaeren hitzak (*Hautsa bizigai*).

Euskal rapa: ikuspegi dialektikotik hausnartua

Fermin Muguruza musikaria izan zen Negu Gorriak taldearen bidez euskal musikan rap kutsuko doinuak txertatu zituen lehen musikarietako bat. XX. mendeko bukaeran agertu zen lehenengo rap belaunaldia, Selektah Kolektiboa, Daddy Jeff, Wanka, DZ, Molte eta Aritz Sound System izenaren pean. Lehen belaunaldi hori irekita egon da kanpotik zetozen estiloetara.

Selektah Kolektiboa¹ Euskal Herriko rap talderik zaharrenetakoa da. Euskaraz kantatzen zuen 2005ean desegin aurretik. Selektah Kolektiboak 2000. urtean argitaratu zuen euskarazko lehen hip-hop diskoa.² Orotara bi disko kaleratu zituen. Lehena *Selektah Kolektiboa* izenburupean, Esan Ozenki labelarekin batera, eta bigarrena *Esperientzien etorbidetik*, bi urte geroago, Metak disko argitaletxearekin. Hurrengo urteetan kontzertuak ematen, jaiak antolatzen eta abestiak sortzen jarraitu zuen taldeak.³

MAK izan da Selektah Kolektiboaren lekukoa hartu duen taldea. Musika Armatu Komando bilakatuko den Mikrofon Addikt Klan 2003an sortu zen Iparraldean.⁴ MAKen erreferentziarik nagusietakoa AEBetako Wu-Tang Clan zen.

Hastapenean asko kostatu da euskaldun talde multzoa osatzea. Alabaina, bere bidea egin du rapak, eta Info7 Irratiak, 2012an, hedatzen ari zen uzta bildu eta zakuan jasotzea erabaki du *Rap Herria* diskoan. Hamasei musika taldek hartu zuten parte. Gero belaunaldi berriek aipatutako bi taldeen jarraipena hartu zuten, eta horien artean⁵ Barakaldoko Maisha MC, Santutxuko Norte Apache (Ibon, Rayco, Aitor),

Gasteizko Indarrap, Oztibarreko Toastibarre, Urruñako 2zio, Atarrabiako ZTK Rap, Bermeoko Gatom, Donostiako Norzone, Askapen Sound Sistema, Bilbo eta Barakaldo artean sortu zen 121 Krew talde bizkaitarra, Bad Sound System, Tolosako Glaukoma, Nafarroako Goienetxe Anaiak eta beste hainbat aurkitzen ditugu: Stepi Selektah, Kodigo Norte, Nizuri Tazuneri, Aneguria, La Basu, Zesura, Fat Fish, Raperos de Emaus, Bunpada Sound talde bizkaitarra, Arrano Pertxa eta Hondarribiko Gorpuzkingz.

Euskal raparen panorama berria ikusirik, esaten ahal da Selektah Kolektiboak orain dela kasik hogeitun urte erein zituen haziak hazi direla. Garaia heldu zaigu Euskal Herriko raparen hausnarketa sakona bultzatzeko.

Edukiak ikertuz

Selektah Kolektiboak eta MAK taldeek rapak hastapenean zuen helburu bera zuten. Zerbait aldarrikatzeko zen, eta zerbait horrek aldarrikapen politikoarekin zerikusi zuzena zuen. Euskal rapak ere rapak

Selektah Kolektiboak eta MAK taldeek rapak hastapenean zuen helburu bera zuten. Zerbait aldarrikatzeko zen, eta zerbait horrek aldarrikapen politikoarekin zerikusi zuzena zuen

hastapen-hastapenetik haren zainetan zuen aldarrikatzeko premia partekatzen du. Selektah Kolektiboak idatzi zituen *Koktel Molotoff* abestiaren letrek⁶ jarraipen hori baieztatzen digute. Abesti horrek Euskal Herriak ezagutu zuen iragan beltz eta itzala oroitarazten digu. Borrokarako deia bihurtu zen kantuetariko bat da *Koktel Molotoff* abestia, du-darik gabe. Hor ikertzailea tes-

tu preskriptibo eta performatibo (Ghio 2012, Recanati 1982) baten aurrean dago. Proposamen baten aurrean kokatzen da. Testuak enuntziatzea eta ekintza zuzena lotzen ditu.

Selektah Kolektiboak idatzi zituen testuak ikertzen ditugunean, konturatzen gara taldea zein arlo politikotan kokatzen den. Demokraziaren falta, preso politikoaren hurbilketa eta askatasuna, herriak eskatzen duena, euskararen eta euskal kulturaren aldeko errebindikazioak, euskaldunek pairatzen duten egoera, independentziaren aldekoak, polizien inpunitatea, justiziaren ahuleziak, kazetari faxisten kontrako errebindikazioak, legezko bortizkeriaren kontrakoak, polizien eta torturatuzaileen zigorgabetasuna, euskaldunek pairatu zituzten torturak, Euskal Herriaren batasunaren alde direnak, UPN alderdi politikoaren burukideen aurkakoak, faxismoaren kontrakoak, testu guztiak norabide bererantz doaz. Selektah Kolektiboaren diskurtsoa ezker abertzaleko mugimenduan kokatzen da. Euskal Herriak dituen muga eta kate guztiak apurtu nahi ditu. Diskurtsoak ezker abertzaleek zituzten diskurtsoen antza du. XXI. mendeko hastapenaren egoera politikoa aldarrikatzeko hausnartua da. Testuek euskal gizartearen errealitatearekin harreman estua daukate, baina batzuek utopiarekin ere zerikusia dute. Raplariak nahi duten Euskadi ahoskatzen eta aldarrikatzen dute. Aldarrikapen horren bidean, taldeak borroka-lagunak aurkitzen ditu, minorizatuak diren herriak, hizkuntzak eta kulturak, Katalunia, adibidez. Selektah Kolektiboak Fermin Muguruza kantariak duen ideologia partekatzen du, eta, beraz, ez da harritzekoa izan beren bi diskoak Muguruzak zituen bi zigiluetan (Esan Ozenki eta Metak) argitaratuak ikustea.

MAK taldearen filosofia eta ideologia

MAK taldea agertoki politikoaren ezker aldean kokatu zen. Jon Eiherabide MCari galdegin diogu zein izan ziren MAKek beste euskal rap taldeekin ukan zituen berdintasun eta desberdintasunak eta zein izan zen MAKen berezitasuna euskal raparen munduan:

MAKen ukan ditiagu sasoi desberdinak ere, hori aipatuko diat: lehen kontzertuan bikote gisa agertu ginen (Dj Alf eta ni), gero

lau raplari eta DJ (lehen CDko garaian), gero musika talde oso bat (bateria, baxua, tekla, saxoa, DJ eta rapa, dantzariak ere jiten ziren, egin genuen ere behin arrabita-jotzaile eta zirkulari batekin kontzertu bat). Dj Alf zendu zen, eta momentu horiek izigarri bortizki bizi genituen. *Hautsa bizigai* CDa grabatzen ari ginen. Taldekoekin erabaki genuen bukatzea grabaketa lana, kontzertu ttipi bat ere eman genuen Hazparneko ikastolan laukote moduan (bateria, kontrabaxua, gitarra eta rapa)... Azkenik taldekideen artean samurtu ginen eta bakarrik bukatu nuen CDaren ekoizpena, eta ostatueta banatu nuen urririk... MAK gisa agertu 'nintzen' azken aldi bat Bilboko bestetan bi kantu emateko Dj Alfen omenez. Musikalki ere joan ginen ikasiz: hastapenean musikak osoki sanpleetan ziren oinarrituak (musika ikasi ez dutenen ala pobreen musika!!!), gero musikari gauzak ulertu arau joan ginen sanpleak eta pasarte grabatuak nahasiz, azkenik musika guztia organikoa zen, ez gehiago sanpleatua... Bestalde, egia da beti interesatu naitzela bertso zaharrei, nola rapeatzen ahal diren, ala tradizioan erabiltzen diren instrumentu ala doinuei... eta horiekin ere jostatzea gustatzen zait... Hitzen aldetik, hastapena basa eta oihukatua zen, 'brut'... Eta gero eta gehiago lantzen genituen testuak taldean: hiruzpalau lagunaren artean ideiak finkatu, gero idazten nuen eta beste lagun batekin fintzen genuen emaitza... Eta gero rapeatu!!!

Eiherabidek dioenez:

Zaila da zure burua definitzea! Ez badut beti lortzen ere, errango nuke anarkismoa helburu gisa hartzen dudala, bai, nire kontraesan guztiekin (kreditu bat egin dut etxe baten erosteko, giristino lizeo batean lan egiten dut, eta abar)... Baina musikarekin dudaren harremanaren eta raparen bitartez kritika ekonomikoa bultzatzen saiatzen naiz (musikak ala arteak ba al du prezio bat? Saltzen dea? Kontzertuetan sosa galdatzen dea? Onartzen dea? Jakinik gehienetan sostengu kontzertuak ematen ditugula... bizitzen ahal da kondizio horietan zure 'arteaz'...? Zertarako segitu?), kritika politikoa bultzatzeko ere bai (abertzaletasunaren mugak, bortizkeria, pazifismoa, normak, kapitalismoa han eta hemen...), hiztun minorizatuen arteko elkartasuna bultzatzea, eta abar...

MAK taldeak, haren denboran Selektah Kolektiboak egin zuen bezala, lehen diskoa, *Suari darion kea*, Metak zigiluarekin batera izenpetu zuen. Hastapen-hastapenetik haien sorkuntza euskal mitologiarekin lotu zuen. Eiherabideren

arabera, «Herensugearen mitologia berreskuratu nahi genuen». Orain iratzarria den lurraren azpian den indarra aipatu zuen. MAKen diskurtsoa ezkerrekoa da eta mezu politikoz betea. Baina MAKena Selektah Kolektiboa taldearena baino anarkistagoa eta libertarioagoa. Sistemaren kontra eta berdintasunaren alde jotzen zuten. Selektah Kolektiboa taldea izan zen bezala, antikapitalistak ziren. Hitzak hor berriz argiak dira: «Sistemaren lana jendea esplotatzea da». Haien gogoia entzuleen kontzientziaren irekitzean kokatzen zen. Euskal Herriko eta mundu osoko egoerak salatu zituzten. Jendeen batasunean eta elkartzeen indarrean sinesten zuten. Salatutakoak polizia, mundializazioa, euskara hizkuntzaren galtzea, egunerokotasuneko bortizkeriak dira. Haien diskurtsoak iraultzaren itxura du, eta borrokarako deiak luzatzen zituzten: «Nire bonbek ez dute odolik egiten baina dezibiletan dira kontatzen, hor izango da nire ekintza, atentatu musikala. Hizkuntza nahasita izaten ahal da mundiala, denok biltzen bagara, bomba atomikoa indartsua». Lehen diskoan lau hizkuntza nahasi zituzten: euskara, katalana, gaztelania eta frantsesa.

Eiherabidek dioenez:

Musika borroka zelai bat zela eta gudariak ginela, gudari kulturak: jakintza da arma, euskarazko hitzak erabiltzen genituen eta ditugu oraindik, estaturik gabeko herriko abertzaleak ginen eta gara, presoei sostengua adierazten genuen eta dugu, gazte-txeetan parte hartu eta sostengua helarazi, bai eta plazera hartzea eta besta egitea ere!

Euskal rap munduan ukan duen esperientziatik zer ondorio edota hausnarketa atera dituen galdegin diogunean, erantzun digu «pasio eta plazer handiko esperientzia izan zela».

MAKen diskurtsoa ezkerrekoa da eta mezu politikoz betea. Baina Selektah Kolektiboarena baino anarkistagoa eta libertarioagoa. Sistemaren kontra eta berdintasunaren alde jotzen zuten

Gehituz: «Talde guttik ireki zuten bidea euskarazko musika estilo horretan (Negu Gorriak, Selektah Kolektiboa...), guk sakondu genuen ildoan. Euskal Herriko hamaika xokotako jendeak ezagutzeko aukera eman zigun rapak». MAKek karrikaratu dituen diskoak euskal gazteriarengan zein eragin ukan zuten galdegin diogunean, honela erantzun digu:

Ez nizuke errango, ez dakit... Lagun batzuk egin ditugu garai horietan musikaren bitartez eta anitz lagundu ziguten, sinesten zuten egiten genuen horretan... Anitz izan dira... Pentsatzen dut bereziki MAKnager jaunari (Aupa Beñat!!!) eta Iñaki Muxteloko Kinki jaunari... Berarekin ikasi nuen plazera hartzen grabaketa denboran, luxuzkoa baita denbora hartzea eta ideiak partekatzea grabatzen duzularik, eta ez korrika aritzea batzuek ulertarazten dizutelako pagatu behar dela estudioa... Bref, hori beste istorio bat da!

Belaunaldi berriek

Lehenengo sortzaileek bezala, bigarren belaunaldikoek ere kritika soziala ezarri dute haien diskurtsoen erdigunean (Norte Apache, 2zio, Glaukoma, La Basu, Aneguria, Zesura). Glaukomak dioenez, «gauza distiratsu eta boteretsuei besterik ez diegu kasu egiten». Eguneroko bizitzaren zailtasunak aipatuak dira, eta talde batzuek euskal raparen apologia aipatzen dute (Norte Apache). Noiztenka beste musiken kritikak agertzen dira: «Zenbait musika estilotan ikusten ditugun klixe eta estereotipoak askotan hutsalak dira» (Glaukoma). Emakumearen aurka dagoen bortizkeria (Glaukoma), raparen musika motaren minorizazioa (hedabideetan, kontzertuetan), giza eskubideen urratzeak (*Satriale's*, Norte Apache), minoritateen independentziaren aldeko borroka (*Freedom kanaky*, Norte Apache), polizien mehatxuak, egia inposatuak, beldurkrazia (*Galtzerdi zulatuen loratza*, Norte Apache), polizien hilketak (*Killing in the name of*, Norte Apache), lege inpartzialak, hipotekak, drogaren eraginak, gazteon antolamendua, langile klasea, etorkizuna (*Gurea da geroa*, Norte Apache), sistemaren aurkako borroka (*Hartu kontrola*, La Basu), larru eta gorputz kontuak (*Piztu nire sua*,

La Basu), gorputzaren jabetasuna, emakume askea (*Eraiki suntsituz*, La Basu), harrapakarien aurkakoa (*Harrapakariak*, La Basu), bikote istorioak (*Soka tiraka*, La Basu)... Horiek dira euskal rap taldeek aipatzen dituzten gairik nagusietakoak.

Eiherabideri galdegin diogu nola ikusten duen gaur egungo euskal raparen eszena:

Ba ongi, raparen barneko estilo desberdinak ere agertu dira (rap-reggae, trap, gangsta folk, instrumentala, mintzatutako poesiarekin nahasia...), denetarik bada. Ez naiz raparen aldeko prozelitista, berdin zait... Adierazpen mota bat da, besterik ez... Baina egia da jendea inarrosten duela... Euskal Herria biziki tradizionalista da... Begiratu Fermin Muguruzak atera duen Korrikarako kantuaeren YouTubeko komentarioak... kar-kar-kar!!! Euskarazko rap eszena orokorrean ez da orain arte erori kapitalismoaren apologia...!!! Halabiz!!! Bestenaz, hori bilakatuko balitz, «goazen hortik!!!».

2zio taldeak orain arte aipatu dituen kezka politiko eta sozialei arrangura existentzialak gehitu dizkio. Lerratze-gehitze hori 2018an karrikaratu duten hirugarren diskoan nabarmena izan da. Kritikaren eremurako, *Prest* deitzen den abestian etorkinengan ditugun aurrebegiradak aipatuak dira, eta *Oraindik* deitzen denean kontrol soziala eta sistemaren kritika, gosea, zorrak, erosketak azpimarratuak dira. Azken kantu horretan, ditugun balioak galdezkatuak dira: «Berdindu ditugu ukan eta izan». Existenzialarekin lotuak direnak, laguntasuna (*Ni ta zu*), modaren diktadura (*Kendu maskara*), bizitza, hezkuntza eta jakintzaren garrantzia (*Milesker bizitza*), maitasuna (*(H)egoak*), rap sortzailearen egunerokotasunaren sorkuntza, hitza, metrika, kaleko poesia (*Idazten dut*), eritasuna, biziaren arnasa (*Lehiotik*), bakardadea,

2zio taldeak orain arte aipatu dituen kezka politiko eta sozialei arrangura existentzialak gehitu dizkio. Gutasunetik nitasunera doan lerratzeak ez du ez hedonismo ez egotasunaren apologia sostengatzen

mina (*Gauez*), egia, bizitzaren ezagutzea, norberaren burua, izerdiak, ikarak (*Irakaspenak*) aipatzen dituzte. Gutasunetik nitasunera doan lerratzeak ez du ez hedonismo ez egotasunaren apologia sostengatzen. Nikeria baztertua da. Jende arteko harremanak eta bizitzaren giltzak galdezkatuak dira.

Panorama honetan, Gorpuzkingz da rap munduaren er-tzean kokatzen den taldea. Gazte diren zazpi kide horiek euskal gizarteak dituen tabuak lehertzen dituzte. Sare sozialetan kaleratu dituzten bideoklipetan maskaratuak eta mozorrotuak agertzen dira, eta drogaren apologia oparitzen digute. *GPK* deitzen den bideoklipetan, dirua lurrera boteaz, *gangster* kideen itxurak antzeztuz, armak beso eta eskuetan jarritz, «Nik abiyua maite det» abesten dute. Gelaren mahaiaren gainean aipatzen dituzten anfetaminak lerroz lerro agertzen dira. Estatu Batuetako rap talde batzuen itxura dute, eta bat-bateko sorpresak ez digu baieztatzen ironikoak diren ala ez.

Irakurketa literalak euskal rapa euskal traperaino lerratu dela eta kapitalismoaren diskurtsoa onartu duela interpretatzen ahal du, non dirua den errege berri bakarra eta dirua sarrarazteko bide guztiak onargarriak diren. Aldiz, irakurketa metaforikoagoak antzeztuaren azpian burla bat eta rap talde estatubatuarrek sortu duten raparen kritika azpimarratuko ditu. Uste dugu sukaldeko irina daukatenez *gangsta* rap kodeak barneratu dituztela plazera hartzeko eta kode horiek hobeto leherrarazteko. Trufatzen dira, baina ez gutaz, estatubatuarrek sortu dituzten estereotipoen baizik. Gorpuzkingz taldeari esker, umorea euskal rap eszenaren gainean igotzen da.

Sortzaileen lerratzea: bertsogintzatik rapgintzara

Askotan hitz egin izan da bertsolaritzaren eta raparen arteko parekotasunez. Lotura batzuk begi-bistakoak dira. Hasteko, biak ala biak diziplina herrikoiak dira. Jende arruntaren espresibideak dira. Ez dira eliteko eskolatan irakasten, eta ez daude inongo erakunde edo antzekoen homologazioen menpe. Biak dira kronika eta kritika sozialerako tresnak.

Norberaren bizimoduaz eta inguruko arazoez kantatzeko balio dute. Egunkarietan agertzen denaz eta ez denaz iritzia emateko. Bien osagairik nagusietakoak doinua, errima eta hizkuntza dira. Musikaren laguntzaz edo gabe, hitzak dira protagonistak. Hitzen jolasak toki garrantzitsua du. Muguruza izan zen euskaraz Ameriketako beltzak bezala kantatzen zuen lehenengoa. Ondoren, 2000ko hamarkada hasierarekin, Selektah Kolektiboa mitikoa ezagutu genuen. Orain, banaka-banaka gero eta gazte gehiago agertzen zaizkigu euskaraz errimatzen: konplexurik gabe, harrotasunez. Rapa euskaldundu da, eta Euskal Herrian orain arte ez da bilakatu, beste leku batzuetan bezala, diruaren eta hedonismoaren apologiarako musika.

Ekaitz Astiz Goienetxe Anaiak (Iruñerria) taldeko kidea da. Odei Barroso bezala, bertso mundutik dator, nahiz eta ez dituen sekula biak uztartu. Rapak bertsolaritzak ematen ez dion askatasuna eskaintzen dio, azken hori «instituzionalizatuago» dagoelako. Rapean, aldiz, Astiz raplariak dioenez, «zu zara epailea eta muga». Uste du euskal rapak izan dezakeen arazorik handiena hitzun kopuruarena dela. Bere aburuz, «euskal rapak ez du aurrera egingo euskal hitzunik ez badago, euskarak aurrera egiten ez badu».

Euskara hizkuntzaren hautua

Euskal taldeen musika hizkuntzari dagokionez, honela dio Ion Andoni del Amok:

Egun ez da sentitzen euskararen behar hori, angustia hori. Lehen, konpromisoa beharrezkoa zen, hizkuntza galtzen ari zelako. Orain, neurri batean, ziurtatutzat ematen da euskarak iraungo duela. Aurreko hamarkadetako musika euskaraz izan da, erregistro estetiko batekin; pisu handiagoa hartu zuen hizkuntzak, eta sartu ziren bertsolariak eta idazleak hitzak egitera... Neurri batean, haustura estetiko hori ematen du ingelesak, eta, bestalde, ezer ez esateko erraztasun gehiago ere bai. Abestiei pisua kentzeko. Garai batean, karga handiegia hartu zuen euskarazko kantua, eta haustura bat izan da; haustura hori ez da modu dramatikoan bizi.

Hala ere euskal rap talde batzuek jarraitzen dute euskaraz abesten. Eneko Axpe 121 krew taldekoak dioenez: «Koherentzia puntua da, euskalduna naiz eta euskara defendatzen dut, zer gutxiago». Berak rapa euskara zabaltzeko eta gazteak erakartzeko tresna ezin hobeia izan daitekeela pentsatzen du. Horren adibide garbia da Ruben Mateo Rufoh, taldeko abeslarietako bat. Euskara ikasi du, rapak euskarara ekarri du, «eredugarria eta aldi berean polita da hori». Dena dela, Euskaltzaindiaz gogoratu dira taldekideak, eta, horien ustez, «Euskaltzaindiko euskararekin rapa egitea ezinezkoa da». Gatom raplariak ere euskaraz abestea hautatu zuen. Berak dioenez, «euskaraz eta bizkaieraz kantatzea niretzat errazago, erosoago eta askeagoa da. Hori dela eta euskaraz eta dudan euskalkia baliatuz kantatzen dut». Gatomek Imanol Ubedaren ikuspuntua partekatzen du Ubedak esaten duenean:

Niri gustatuko litzaidake euskararekiko harremana naturalagoa izatea, edo ez hain kargatua. Baina, hain zuzen ere, uste dut belaunaldi berrietan hori gertatzen ari dela. *Badok.eus*-en sartzen zara, eta ikusten duzu euskaraz asko abesten dela, inoiz baino gehiago. 13-14 urteko gazte batek baditu erreferentziak euskaraz, nahiko hurbilak, gainera. Berri Txarrak gustatzen bazaie, ziur asko euskaraz egingo dute rocka. Niretzat, euskaraz egiten dena da euskal musika, baina ez dut horregatik epaitzen. Falta zaiguna da hedonismoa, eta zenbait gauzari karga kentzea...

Fermin Muguruzak ere euskaraz egiten den rapa defenditzen du:

Hemengo hip-hop euskaraz garatzen ez den bitartean, gazteek gaztelaniaz hitz egiten jarraituko dute, nahiz eta euskaldunak izan. Gazteek rapa entzuten dute batez ere, baina gaztelaniazkoa, hori da haien erreferentzia. Horri buelta eman behar zaio, bestela jai daukagu [...] Baina heldu beharko du beranduago bada ere. Areago, bultzatu egin behar da. Zenbait musikari, gaztetxe, programatzaile eta eragilek hori indartzeko ahalegina egin behar dugula esango nuke nik. Hemen estrategiko hitza erabiltzen denean, ni futitzen naiz. Orain edozeri estrategiko hitza aurretik ipini eta aurrera, denok men egin behar dugu. Horixe da, hain juxtu, sustatu beharrekoa eta ez karpa erraldoia. Izenak bakarrik nekea sortzen dit...

Eiherabidek hitza, erritmoa eta dantza maite ditu, eta hori da rapa beretzat. Raparen Ez Dok Amairu ote diren galdetuta, zera esan du: «Ez Dok Amairu, rock radical vasco, hainbat lagun egiteko manera antzekoekin, maite dut hori, zergatik ez? Elkarrekin indar gehiago izango dugu gure mezua eta erritmoa plazaratzeko eta entzutera emateko». Eta zein da mezua? «Eszenatokira igotzen gara erakusteko euskara gaztea, bizia dela eta egin daitekeela nahi duzun manieraz». Rapak euskarari freskotasuna ekar dakiokelakoan dago, eta, ondorioz, jende gehiago gerturatu dezakeela euskarara eta euskal rapera. «Euskara ikasi eta euskalduna zara. Berriak sartuko dira komunitatera, eta hori nahi dugu, ezta?». Eiherabidek ondoko mezua igorri die musikariei: «Hala sentitzen baduzue, egin euskaraz. Nik espero dut euskaraz egiteko grina izango dutela». Musikiariak euskarara gerturatu direlako rapa euskaraz egiten hasi dira, eta raparen munduan euskara topatu dutelako euskara ikasteari ekin diote. Rapa euskararen normalizazioaren termometro ere bada.

Musikariak euskarara gerturatu direlako rapa euskaraz egiten hasi dira, eta raparen munduan euskara topatu dutelako euskara ikasteari ekin diote. Rapa euskararen normalizazioaren termometro ere bada

Rapa eta justizia

Justiziak finkatzen dizkio mugak rapari. Valtonyc abeslariari hiru urteko kartzela zigorra berretsi diote bere kantuen edukiatik. Espainiako Auzitegi Gorenak José Miguel Arenas Beltrán *Valtonyc* raplariaren sententzia berretsi du, eta hiru urte eta sei hilabeteko kartzela-zigorra ezarri dio. Gorenak esan du adierazpen askatasunak eta arte sorkuntzarako eskubideak ez dituela bere letrak babesten. Espainiako Auzitegi

Nazionalak eskatu zuen hiru urte eta erdiko kondena, eta Auzitegi Gorenak berretsi du. Bi urteko kartzela zigorra «terrorismoari gorazarre» egiteagatik, beste bat monarkiaren aurkako kalumniengatik eta sei hilabete abestietan jasotako «mehatxuengatik». Auzitegi Nazionalak esan zuen Valtonycen letrek GRAPO eta ETA taldeak eta horietako kide batzuk goستن dituztela eta Espainiako erregea eta haren senideak iraintzen ere. Rap kantariak esan zuen bere rapa muturrekoa, probokatzailea, alegorikoa eta sinbolikoa dela, eta adierazpen askatasunari heldu zion. Alabaina, Gorenak atzera bota ditu haren alegazio guztiak eta esan du nahikoa dela kantuak irakurtzea «edukien larritasunaz jabetzeko».

Euskal raparen birziklatzeak

Anitzak dira euskal rap taldeek euskal musika eta poesiari egiten dizkieten keinuak. Remixa raparen sortze prozesuaren zatirik garrantzitsuenetakoa baita. MAKen *Denok ala inor ez* bertsioa, Aire Ahizpak taldeak abestutako bertsiotik abiatutakoa, eta 2zio Iparraldeko taldearen Urkoren *Nor nintzen ni* har ditzakegu adibide gisa; baina baita ere Norzonek Mikel Laboaren *Gure bazterrak* edo Norte Apachek *Nire aitaren etxean* remix abestirako birziklatu duen Gabriel Aresti olerkilariaren «*nire aitaren etxea defendituko dut*» testua, edo Imanol Epelde kantariak oparitu digun Bernard Etxepareren 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren hitzaurrearen bertsio rapeatua.

Baina euskal raparen iturria ez da euskal kulturaren mugetan bururatzten. Selektah Kolektiboa taldearen *Koktel Moteloff* deitzen den abestia musika klasikoarekin hasten da. *Esperientzien etorbidetik* (2002) diskotik ateratako *Gora gaileta* deitzen denak modu umoretsu baten bidez Espainiako irratsaio baten zati bat hartzen du Bush presidentek gailetarekin ukan zuen arazoa aipatzeko. Kantu horretan, Selektah Kolektiboak euskarari frantsesetz den *Vive le Biscuit* aipamena gehitzen dio eta abeslariak duen frantses azentuak

gugan irri egiteko gura pizten digu. Kasu horretan, euskararik frantseserako hizkuntzen lerratzean dago kokaturik irriaren sekretua. Irria berpizten da ingelesa hizkuntza gehitua denean. *Mother fucker capitalist* gehitua izan den esaldian kokatzen da irriaren gakoa. Baina irriak ez du irauten eta kapitalismoaren borroka serioak bere lekua laster hartzen du berriro. Gizakien eskubideen alde borrokatzen direnentzat eta humanistak direnentzat, gailera lehergailuarekin konparatzean desagertzen da irria. Irriaren muga konparatze horretan kokatzen baita. Irriaren muga gizakien odolean eta heriotzean kokatzen baita. Irriak ditugun moralak eta balioak erakusten dizkigu eta. Irriak ideologiak mugak zehazten ditu. Rapak unibertso asko gurutzatzen ditu, eta gurutzatzen dituen unibertsitatearen kokatzen du.

Bururatzeko

Gaur egun *Badok.eus* euskal musikaren atariak 28 artistaren biografia eta kantak dakartza rapari eskainitako atalean. Jandantik desagertuta dauden taldeak eta oraindik ere martxan jarraitzen dutenak biltzen ditu kopuru horrek, eta, gutxi gorabehera, kopuru horren bueltan ibiliko da euskarazko hip-hop produkzio osoa. Horrek esan nahi du euskal rapak euskal kantagintzaren eszenatokian bere lekua egin duela. Normalizatuz doa euskaraz rapa egitea, baina oraindik euskal raparen historia unibertsitate eta ikerlan zentroetatik kanpo geratzen da. Euskal gizarte zientzietako ikerlanetan rapari buruz dagoen ahuleziari lau hipotesi ematen ahal dizkiogu.

Lehen hipotesia. Rapa kultura herrikoia barnean kokatzen da, eta, luzaz, masaren kultura bezala hausnartuta, kultura horrek duen gaitasun autonomorako –estetika eta estiloerik dagokienez (Macé 2016)– deskontsideratua eta deskalifikatua izan da. Bourdieuk (1979) eta bere herentzian izan diren beste hainbeste frantses intelektualek nahiago izan dituzte kultura herrikoiak jasan dituen menderatze inposaketa jazarpen bortizkeria sinbolikoak ikertu kultura herrikoiak

dituen sortze-gaitasun autonomoak baino. Luzaz, kultura herrikoien konplexutasuna, sakontasuna eta sortze formalaren erreflexibitatea kritikatuak izan dira, Richard Shustermanen raparen estetikaren legitimizazioa (Shusterman 1992) eta *cultural studies* direlakoak (Mattelart eta Neveu 2008) heldu arte.

Bigarren hipotesia. Rap mugimendua hogeituro urteko mugimendua da, eta, beraz, aski berria. Iraupen motz horrek diakronikoki ikertzeari zailtasuna ezarri dio, eta historialariei mugimendu sozialak ikertzeko denbora-urruntzea ukaitea gustatzen zaie.

Hirugarren hipotesia. Rap taldeek zabaltzen dituzten ideologekin lotua izaten ahal da. Ideologia horiek, alde bateatik, gizartean minorizatuak diren talde sozialekin eta azpiko

klaseekin zerikusia dute, boterearen aurka jotzen dute, sistemaren kritika sistematizatuak dira, instituzioak bortizki kritikatzeko dituzte; eta, beste alde batetik, ezker abertzaleko nazionalismoarekin lotura estua ukan dute. Ideologia horiek 'ez zuzen', ez 'aski neutro' edo problematikotzat jo izan dituzte instituzio publikoetan direnek.

Laugarren hipotesia, azkenik. Uste dugu euskal rapa orain arte beste euskal musika

motak baino guttiago ikertua izan dela euskal kantagintzan musika genero minorizatuak delako, foku nagusietatik kanpo geratzen delako eta publiko murriztua ukitzen delako.

Iduriz, aipatu ditudan hipotesi guztiengatik, ikertzaileen ztat euskal rapak ez du ikerlan sakonik merezi. Uste dugu ez ikertze horrek Euskal Herriko gizartea hobeki ulertzeko eta hausnartzeko gakoa baztertu duela. Hori dela-eta deliberratu genuen gaia sakontzea eta orain arte zegoen ikerlanaren hutsa betetzea.

Sortu zenetik, euskal rapak Euskal Herriak bizi izan duen egoera soziala, ekonomikoa eta politikoa islatu digu. Euskal Herriko bi azken hamarkadetako egoerak aldarrikatu eta salatzeke arma bilakatu da

Euskal rapak euskal kantagintzaren lekukoa hartu zuen. Selektah Kolektiboak abestu zuen *Koktel Molotoff* abestiak Telesforo Monzonek sortutako *Batasuna* kantuaren jarraipena hartu zuen. Biek ala biek ber helburua zuten: Euskal Herriaren askatasuna. Ber helmuga zuten: independentzia. Ber mamia: euskara. Negu Gorriak, Selektah Kolektiboa eta MAK taldeek erein zituzten haziak hazi dira, eta belaunaldi berriek euskal raparen jarraipena eta iraunkortasuna artoski aldarrikatzen dituzte. Lehen taldeek zuten ideologia partekatzen dute, non kapitalismoaren aurkako borroka, herriaren askatasuna, euskararen garrantzia eta abertzaletasuna izan diren protagonistarik nagusietakoak. Euskal raparen arrakasta Euskal Herriko erabilera eta apustuen berrinterpretazioetatik dator. XXI. mendean sortu zenetik, euskal rapak Euskal Herriak bizi izan duen egoera soziala, ekonomikoa eta politikoa islatu digu. Gazteen eskuetan, rapa Euskal Herriko bi azken hamarkadetako egoerak aldarrikatu eta salatzeko arma bilakatu da.

Aitzineko garaietan, euskal musikan konpromiso bat egon behar zen hizkuntzarekin, Euskal Herriko gatazkekin, estetika eta estilo jakin batzuekin. Gaur egun, askatasun handiagoa dago gauza desberdinak sortzeko. Aitzineko mugimenduekin konparatuz, kontzientzia kolektiboa atxikitzen da, baina musikaren bidetik adierazteko beharra gero eta ahulagoa da. Gotzon Barandiaranek dioenez, euskal kantagintzan «hiper-politizaziotik despolutizaziora igaro gara» (Barandiaran 2018). Gorpuzkingz taldeak proposatzen diguna dela bizitzeko filosofia bat, non umorea ez den bakarrik aldarte bat, baizik eta baita mundua begiratzeko eta bizitzeko soa ere, Wittgensteinek zioen bezala. Gazte taldeak, une berean, gatazka politiko batengatik tetanizatua izan den Euskal Herriko gizarteari irtenbide bat oparitzen dio, non irriak bizirik irauteko gune garrantzitsua duen eta kontserbadorea den gizarteak dituen tabuak lehertzeko unea heldu den. Gorpuzkingz taldeak Kau Kori Kura, Ttun Ttun Brigade, Zazkel, Mursego eta Drumkoptersen emanaldiek duten umorearen filosofia

partekatzen du. Euskaraz egindako musika oso serioa izan baita; eta, hala bada oraindik ere, esaten ahal da adibide horiek salbuespenak direla, baina, euskal rock erradikalak bere garaian egin zuen bezala, umorearen atea ireki dutela, Euskal Kantagintza Berriak zuen solemnetasuna apurtuz.

Euskal raparen testuak eta ingurunea ikertuz gero, esaten ahal da, alde batetik, belaunaldi berriek aitzindarien taldeen filosofia gordetzen dutela, baina, beste alde batetik, garrantzitsua dela azpimarratzea borroka armatuaren amaierak eta euskal gizartean egon diren aldaketek rapari kezka existenzialen eta umorearen ateak ireki dizkiotela. Euskal raparen mugimendua ikertzeak aldaketa politiko-sozialek eta estetika musikalaren birmoldatzeek dituzten bide paralelo eta gurutzatuak ulertzen eta sakontzen laguntzen digu. Euskal unibertsitatean instituzionalizatuak diren ikertzaile batzuek hedonismoaren erresumaren etorrera aldarrikatzen dute euskal kantagintzan, baina euskal gizarteak oraindik dituen gatazka sozialengatik agian ez da gero hurbil batendako izanen. Aldarrikatzen ahalko dugun hedonismo bakarra ez baita inoiz izanen hedonismo egotiko edo norberekoia, baizik eta hedonismo partekatua, non ondasun sozialen gozamenaz emazte, gizon eta gazteen artean partekatua izanen den. Hedonismo libertarioaren filosofia partekatzen duen hedonismoa. Hedonismo libertarioa, non plazeraren mugak beti desberdintasun eta desoreka sozialetan kokatuko diren. 🍷

Oharrak

1. Hernaniko jaietan eman zuen estreinako emanaldia Selektah Kolektiboak, artean bikotea zelarik: Iñaki Arrizabalaga Daddy Jeff MC (ahotsa) eta Zigor Lampre DZeta (disko jartzailea). Musika beltza (hip-hop, funk, soul, reggae...) Euskal Herrian ezagutzera emateko eta zabaltzeko sortutako kolektiboaren lehen adierazpenetako bat zen. Aipaturiko bi kideez gain, Iñigo Goikoetxeandia Wanka MC eta Jon Lampre Molte MC abeslariak eta Aritz Usandizaga Aritz Sound System disko jartzaileak osatu zuten Selektah Kolektiboa. Dantza egiteko jaiak antolatzen hasi zen. Hip-hop emanaldi batek hartzen zuen saio horien lehen zatia: DZetak jarritako musika oinarriaren gainean hiru abeslariak txandakatzen ziren kantuan, mikrofonoa zabalik utziz abestu nahi zuen edonorentzat. Gero, Aritz Sound Systemek dantzarako mota askotariko doinuak jartzen zituen goizaldera arte. Kontzertuak egiteko eredu berria ekarri zuen Selektah Kolektiboak. Bi urtez hip-hoparen kultura Euskal Herriko hainbat txokotara eraman ondoren, Andoaingo gaztetxean Fermin Muguruzarekin jotzeko eskaintza jaso zuen taldeak, eta aukera baliatu zuen maketa Esan Ozenki diskoetxeko arduradunei helarazteko. Berehala iritsi zen diskoa grabatzeko proposamena.
2. Euskal Herriko egoera politikoa, euskararen bazterketa eta hip-hop kulturaren aldarrikapena ditu hizpide taldeak disko horretako kantuetan, eta UPN alderdiari, kazetariei eta poliziarri zuzentzen dizkie amorruzko hitz zorrotzak. Diskoan lagundu zutenen artean, Frantziako Force II Frappe taldea zegoen.
3. Espainiako rap talde ezagunenetako batzuekin aritu zen (Frank T, Violadores del Verso, SFDK...); Negu Gorriak taldeak agur esateko 2001ean Baionan eta Donostian eskainitako hiru kontzertuetan parte hartu zuen, eta Manu Chaok Radio Bembarekin 2002an Donostian emandakoa ireki zuen. 2005ean Selektah Kolektiboaren hirugarren diskoa iragarri zuen Metak diskoetxeak, baina grabatzen hasi aurretik taldea desegin egin zen. Bi disko argitaratzeaz gain, *Bagdad rap* filmeko musikan parte hartu zuen *Vosotros en Irak* kantuekin, eta Fermin Muguruzaren *FM 99.00 Dub Manifest* eta *Uek-en Ganbaratik* diskoetan kolaboratu zuen. Selektah Kolektibotik at, DZetak Fermin Muguruzaren *In-Komunikazioa*, *Euskal Herria Jamaika Clash* eta *Asthmatic Lion Sound Systema* diskoetan parte hartu du, eta haren Kontrabanda eta Afro-Basque Brigade taldeetako kide izan da. Orain, Esne Beltza taldeko partaidea da, eta Basque Power proiektu pertsonala eratu du. Aritz Sound Systemek disko jartzaile saioak eskaintzen jarraitzen du, herriz herri musika beltza hedatuz, irratian (Info7, Molotoff...) eta prentsan (*Gara*, *Gaztezulo...*) kolaboratzeaz gain.

4. Taldea 2003an sortu zuten Mathieu Goñi *Lagogn*-ek, Claire Lacarrak (gaur egun Izate taldean), Jo Olaskoagak (gaur egun 2zio taldean), Didier Sablonek eta Eiherabidek berak. Selektah Kolektiboa euskarazko rap talde aitzindariaren lekukoa hartu zuten nolabait. Jon Eskisabelek dioenez: «Bi urte geroago *Suari darion kea* (Metak/Kontrakalea, 2005) grabatu zuten, Fermin Muguruzaren babespean, eta lehen 'frustrazioa' ezagutu, arrazoi ekonomikoengatik ezin izan baitzuten Negu Gorriak-en *Radio Rahim* kantuarien bertsioa grabatu. 'Propagandaren atzean diskoetxe ezkertiar baten logika ekonomikoa' ezagutzek 'presioak' eragin zituen taldean, 'eta ez ginen prestatu horiei aurre egiteko', dio Eiherabidek. Ondorioz, Sablonek eta Eiherabidek ez beste guztiek taldea utzi zuten. Shlaflang, Gickel eta Xabi Leonek (Skunk) osatu zuten *Suaren garai errauts erreka* grabatu zuten boskotea. Wu-Tang Clan taldearen ereduak inspiraturik erabaki zuten taldeak herensugeari eskaintzea trilogia. Hortaz, lehen diskoa Mikrofon Addikt Klan izenpean argitaratu zuten. Hurrengo diskoetan, 'aldaketa eta berritzearen ideiarekin jolasteko', hizkien esanahia aldatu du taldeak: Musika Komando Armatua bigarrenean, eta Mugimendu Anarkistak Kalera hirugarrenean. Lehen diskoan, naturan kokatu zuten herensugea, 'mendia eta lurraren indarrak ditu ordezkatzeko'; bigarrenean, hirian, eta Claude Labat mitologia adituari eskatu zioten non ikusten zuten adieraztea testu batean; trilogiari azken buruko ematen dion *Hautsa bizigai* diskoan, herensugea 'gure barnean' dugula adierazi nahi du taldeak» (www.badok.eus/musika/pezetik-eztan-dara-m-a-k-en-amaiera).
5. *Euskal Herrian Euskal Rap bilduma - EuskalHHH* 2015ean kaleratu da (Interneten dago entzungai: www.youtube.com/watch?v=tkq7zEN0AbI).
6. Selektah Kolektiboa: *Koktel molotoff*

Torturatzailak dagoeneko kalean dira, gorriak ala beltzak denak berdin dira, torturatzailak hasi dira korrikan, euskal jendeari izutzeko asmotan, terrorismoa beraiek sortzen dute, alde zaharreko kale guztietatik, ixkin baten ondoan dago zauritu bat egoera larriko momentu batean kezko botak jaurti dituzte aurrean minutuak pasatuz doaz abidan benetako tiro bat bota dute airean lagunari laguntzen nengoen momentuan bat-batean abidan joan naiz ziztu bizian koktel bat jaurtiaz gorantz aurrean argi eta garbi eduki ideia borroka egiterako orduan.

Koktel molotoff/ zalantzarik gabe/ gogor etsaiari.

Erdarazko hitzak soberan geratzen dira euskara baitugu gure hizkuntza polita abestu, abestu eta ez zaigu inoiz ahaztu gure hizkuntza bakarra behar dugula indartu ertzaina bateri euskaraz galdetu berak

esango dizu ez dizula ulertu euskaraz hitz egiten egoteagatik komisaldegian nago atxiloturik ez dago inongo eskubiderik Euskal Herria egoteko torturaturik explosio galanta daukat pentsamenduan neure hitzekin sortzen dena momentuan oparoan, luzaroan, bizi guztian gaude etsi gabe borrokan ideiak defendatu defendatu zure ingurugiroan.

Koktel molotoff/ zalantzarik gabe/ gogor etsaiari.

Penagarria da kartzeletan ikustea nola euskal presoak galtzen duten bizitza ura eta ogia dute jana bakarra hogeita lau orduak pasatuz segidan egunaren argia ez dute ezagutzen infernu batean daudelako sofritzen guzti honen aurka aurkitzen naiz ni ere etxean nahi ditugu jaio eta hil arte ikurrina eskutan gogor ondo helduta helburu bakar batekin noa zuzen borrokan borrokarik gabe ez dago garaipenik ez dugu inoiz konbate hau galdurik ziztrin halakoa hau ezta festa giroa mikrofonoa eskutan beti nago armatua neure hitzak dira bala forma-koak estrategia landuaz argi dut helburua.

Koktel molotoff/ zalantzarik gabe/ gogor etsaiari.

Koktel molotoff/ neure hitzekin nago sortzen ari.

Bibliografia

- Arbelaitz, Lander (2016): 'Zapalduen ertzeko rapa', *Argia* 2.518, 2016-07-31: 47 (www.argia.eus/argia-astekaria/2518/zapalduen-ertzeko-rapa-2).
- Argia (2011): 'Errimen malabaristak', *Argia*, 2011-03-15 (www.argia.eus/albistea/errimen-malabaristak).
- Argia (2012): 'Raper euskaldunak: Rapa amu euskarara biltzeko', *Argia*, 2012-06-12 (www.argia.eus/albistea/raper-euskaldunak-rapa-amu-euskarara-biltzeko).
- Baker, Soren (2018): *The History of Gangster Rap: From Schoolly D to Kendrick Lamar, The Rise of a Great American Art Form*, New York, Abrams.
- Barandiaran, Gotzon (2018): *Hitzen ahairea*, Zarautz, Susa.
- Barandiaran, Iker (2012): 'Distirak beltza ikusten utz diezazula. Glaukoma Vol. I', *Argia* 2.340, 2012-10-14: 33 (www.argia.eus/argia-astekaria/2340/vol-1).
- Barret, Julien (2008): *Le rap ou l'artisanat de la rime*, Paris, L'Harmattan.
- Bereziartua, Gorka (2009): 'Rapa euskaraz. Euskal Errima Erradikalaren ordua da', *Argia* 2.188, 2009-06-14 (www.argia.eus/argia-astekaria/2188/rapa-euskaraz/oso).

- Bethune, Christian (1999): *Le rap. Une esthétique hors la loi*, Paris, Éditions Autrement, Mutations bilduma 189.
- (2004): *Pour une esthétique du rap*, Paris, Klincksieck.
- Bilbo Hiria Irratia (2018): 'La Basu eta Aneguriarekin solasean, erritmo bizen rap musikaz', *Argia*, 2018-04-03 (www.argia.eus/albistea/la-basu-eta-aneguriarekin-solasean-erritmo-bizian-rap-musikaz).
- Blum, Bruno (2009): *Le rap est né en Jamaïque*, Paris, Le Castor Astral, Castor Music bilduma.
- Bourdieu, Pierre (1979): *La distinction. Critique sociale du jugement*, Paris, Les Éditions de Minuit.
- Del Amo, Ion Andoni (2014): *Party & Borroka. Jóvenes, músicas y conflictos en Euskadi*. Doktorego tesia. UPV/EHU.
- (2016): *Party & Borroka*, Tafalla, Txalaparta.
- Dubois, Vincent (2001): *Hip-Hop. CNRS. Dictionnaire des politiques culturelles de la France depuis 1959*, Larousse, 314-316.
- El Sakka (2011): 'Revendication identitaire et représentations sociales: émergence d'un nouveau mode d'expression artistique de groupes de jeunes Palestiniens', *Cahiers de recherche sociologique* 51, 203-218.
- Gaztezuolo: *Maisha MC. Elkarriketa*, 2014-02-10 (www.argia.eus/multimedia/elkarriketak/maisha-mc).
- Ghio, Bettina (2012): *Le rap français, désirs et effets d'inscription littéraire*. Doktorego tesia. Sorbonne, Paris 3.
- Kajikawa, Loren (2015): *Sounding Race in Rap Songs*, Oakland, University of California Press.
- Kouoh, Koyo (zuz.) (2017): *Les Cinq Éléments. Hip-hop, esthétique et politique*, Dakar, RAW Académie, RAW Académie Session 3.
- Larrinaga, Josu (2014): *Euskararen gizarte mugimendua XXI. mendearen hasieran*. Doktorego tesia. UPV/EHU.
- (2016): *Euskal musika kosmikoak*, Mungia, Baga Biga produkzioak.
- Lopez Agirre, Elena (1993): *Hertzainak. La confesión radical*, Gasteiz, Aianai.
- (1996): *Del txistu a la telecaster. Historia del rock vasco*, Gasteiz, Aianai.
- (1998): *Potato Reggae Banda. La Utopía de una Euskadi tropical*, Gasteiz, Aianai.
- Luku, Antton (2009): *Euskal kultura?*, Iruñea, Pamiela.
- Lapassade, Georges (1990): *Le rap ou la fureur de dire*, Paris, Louis Talmart.
- Macé, Marielle (2016): *Styles. Critique de nos formes de vie*, Paris, Gallimard.
- Mattelart, Arman; Neveu, Erik (2008): *Introduction aux Cultural Studies*, Paris, La Découverte.

- McDonald, David A. (2006): *My Voice is My Weapon: Music, Nationalism, and the Poetics of Palestinian Resistance*. Doktorego tesia. University of Illinois.
- MUAK (2018): 'Benito Lertxundi. Elkarrizketa', MUAK, 2018-11-27 (www.muak.eus/kategoria/elkarrizketa; MUAK taldeak hainbat raplarrarekin egin dituen elkarrizketak ere ikusgai daude webgune berean).
- Passeron, Jean-Claude (1991): 'Figures et contestations de la culture. Légitimité et relativisme culturel', in *Le raisonnement sociologique*, Paris, Nathan, 291-334.
- Puig, Nicolas (2007): '«Bienvenue dans les camps!». L'émergence d'un rap palestinien au Liban: une nouvelle chanson sociale et politique', in Nicolas Puig eta Franck Mermier (zuzk.): *Itinéraires esthétiques et scènes culturelles au Proche-Orient*, Beirut, IFPO, 147-171.
- (2012): 'La cause du rap', *Cahiers d'ethnomusicologie* 25, 93-109.
- Recanati, François (1982): *Les énoncés performatifs*, Paris, Les Éditions de Minuit.
- Shustermann, Richard (1992): *Pragmatist Aesthetics. Living Beauty, Re-thinking Art*, Lanham, Rowman & Littlefield.
- Sorman, Joy (2007): *Du bruit*, Paris, Gallimard.
- Vicherat, Mathias (2001): *Pour une analyse textuelle du rap français*, Paris, L'Harmattan, Univers musical bilduma.
- Virolle, Marie (2007): 'De quelques usages du français dans le rap algérien. L'exemple de "Double Canon"', *Le Français en Afrique* 22, 55-69 (www.unice.fr/bcl/ofcaf/22/Virolle.pdf).
- Zubozki, Andrea (2015): '2zio. Hitzak harrapatzen', *Argia* 2.488, 2015-12-20 (www.argia.eus/argia-astekaria/2488/2zio).

Euskal raparen diskografia

- Selektah Kolektiboa: *Selektah Kolektiboa* (Esan Ozenki, 2000), *Esperientzien etorbideak* (Metak, 2002).
- MAK (Musika Armatu Komando / Mugimendu Anarkista Klean / Mikrofon Addikt Klan): *Suari darion kea* (2005), *Suaren garai errauts erreka* (2007), *Hauts eta errauts Erremix* (2008), *Kanal Akustik* (2010), *Hautsa bizigai* (2014).
- Norte Apache: *Hesiaren beste aldean* (2009), *Norte Apache Zuzenean* (2009), *Quilombo* (2011), *Errima* (2014), *Juanito Laguna* (2015).
- Glaukoma: *Vol. 1* (Bonberenea Ekintzak, 2012), *Vol. 2* (Bonberenea Ekintzak, 2013).
- Bunpada sound: *Anitzak hitzak* (Babel msk/Radiation, 2010).

Euskal raparen hausnaketa antropologiko historikoa

Fermin Muguruza: *Asthmatic Lion Sound Systema* (2008).

2zio: *Pausuz pausu* (2013), *Bideak* (2015), *Orain eta hemen* (2018).

La Basu: *Aire es vida* (2015), *Izotz erregina* (2016), *Ni naiz izotz erregina* (2017).

Nizuri Tazuneri: *Zazpi* (2018).

Jon Eiherabide aka Mc Stal'Inside: *Garrei olerkiak ufatzen* (2019)

<https://archive.org/details/McStalInside>

Bideoak: Aaldea: www.youtube.com/watch?v=yRKBQxRgS4s&t=378s

B aldea: www.youtube.com/watch?v=vNK4jKh9fxk

Remixak

MAK: *Denok ala inor ez* (Aire Ahizpak)

www.youtube.com/watch?v=wTL7CpOxe5c

2zio: *Nor nintzen ni* (Urko)

www.youtube.com/watch?v=RcpCpG9PUuk

Norte Apache: *Nire aitaren etxean* (Gabriel Aresti)

www.youtube.com/watch?v=Y6b925wRX3E

Imanol Epelde: *Etxepare RAP* (Bernard Etxepareren 1545eko *Linguae Vasconum Primitiae* liburuaren hitzaurrea)

www.youtube.com/watch?v=XbhmChxnjRE

Norzon: *Txakurtegia* (Mikel Laboaren *Gure bazterrak*)

www.youtube.com/watch?v=tkq7zEN0AbI

Musikaren denbora makina

Lorea Argarate

Ingeniaria eta talde ekintzailea TAZEBAEZ kooperatiban

Berrikuntza prozesu desberdinen inguruan ibili naiz lanean azkenaldian, eta aldaketek zer eragiten duten pentsatzen ibili naiz luze. Ohituradun animaliak garela, 'beti horrela' egin baldin bada zergatik aldatu... Begirada altxatzen dugunean, ordea, perspektiba handiagoz begiratu dezakegunean, guztia aldaketek eragin dutela ikus dezakegu. Eboluzio baten emaitza garela, aldaketen emaitza.

Teknologiaren munduan murgildurik nago, baina eskutik ia beti musika daroat. Eta, zergatik ez? Musikaren industriari teknologiak eta aldaketek izan duten eraginean pentsatzen hasi nintzen. Denbora gutxirekin (gaur egungo estresak), baina gogo handia soinean (gaur egungo pasio mileniala). Inguruan jende oso interesgarria dudanez, beraiekin izandako elkarrizketa luzeen laburpen bat egitea pentsatu nuen.

Beraz, goazen harira, Jose Lastra teknikari eta ingeniariarekin izan nituen elkarrizketa batzuk erreparatzera. Lastra guretzat maisu jakintsu moduko bat izan da, eta edozein zalantza genuela ere berarengana jotzen genuen. Kuriositate guztiak ase izan dizkigu. Hori bai, maisu onei bezala, testuingurua eskaintzea gustatzen zaio, hau da, ordu erdiko erantzun bat izan beharrean, bi ordukoa izatea (guretzat harrigarria).

Oso gazte nintzela (16-17 urte) musika talde bat izan nuen, eta Lastrarengana duda askorekin joaten ginen, zein mikro

erosi, zein anplifikadore erosi... Halako batean, Zarata Jazz Cafe zenean, kafesne bat eskuan (noski), musikaren historia edo eboluzioa kontatzen hasi zitzaidan. Benetan harriturik utzi ninduen inguruneak eragin ditzakeen aldaketekin. Eta hori egingo dugu testu honetan zehar. Inguruneak musikan nola eragin duen aztertzen.

Historian zehar musika

Dokumentaziorik begiratu gabe, 'audio' bat bidali nion Las-trari ea gogoratzen nuena egia zen edo ez jakiteko. Eta hala omen zen! Ez nenbilen oso urrun. Gogoratzen nuena zera zen: hasiera batean instrumentu akustikoak bakarrik zeudela, orkestra eta banda handietan batuak. Bandetan, gitarrak hasi ziren sartzen (jazz bandak); eszenatokian banda jartzen zen, ezagutzen dugun formazioan, eta gitarra aurrealdean jartzen zen publikoak hobeto entzun zezan. Aurrerago, indar gehiagoren beharrarekin, anplifikadore txikiak hasi ziren sartzen gitarra horientzat. Gero eta handiagoak, eta handiagoak... Momentu horretan ere rock bandak hasi ziren sortzen, eta gauza bera gertatu zen, anplifikadoreek tamaina izugarria hartu zuten arte.

Baina, zer gertatzen zen kontzertuetan? Bada, gitarristaren aurrean jarriz gero, hori bakarrik entzuten zenuen. Baxu-jotzailearen ondoan jarriz gero, baxua. Lastrak esanda, ba omen zeuden toki batzuk non frekuentziak nahastu eta kantzelatu egiten ziren (nire alde frikiak hori miresmen osoz entzun zuen, ez baita hain zaila hori gertatzea; hau da, sinistu egiten nuen gerta zitekeela eta gertatu zela). Ondorioa zera zen: musika jotzeko prestatua zegoen lekuak eta publikoak berak zenbateraino eragiten zion musikari eta bere eboluzioari.

Halako batean, ideia ikaragarria izan zuten: zergatik ez ditugu eszenatokian dauden instrumentu guztiak nahasketa mahai batera ateratzen, eta behin nahastuak daudela, bertatik kanpora bidaltzen? Kanpoko anplifikadore guztiak berdina

eskain dezaten! Eta horrela gertatu zen, gaur egun ezagutzen ditugun eta eszenatoki gaineratik behera jaisten diren PA horiek erabiltzen hasi arte.

Ke eta kafe artean hitz egindako ideia horiek buruan ni-tuela, irakurtzen hasi nintzen.

Normalean PA deitzen diogun hori anplifikazio sistema bat da, soinu iturri bat lekuren batean indartu eta banatzeko erabiltzen dena. PAK helbide publikoa esan nahi du (*Public Address*), eta izena aspaldiko aplikazioetatik dator: leku publikoetan (tren geltokietan, kiroldegietan, aireportuetan, ospitaletan...) ahotsez egindako iragarkientzat erabiltzetik.

PA elektrikoa egia bihurtzeko, beste osagai guztiak asmatu behar ziren, eta gero elkartu sistema osoa asetzeko. Hiru atal nagusi daude oinarritzko PA sistema batentzat:

1. Soinu bibrazioak jasoko dituen eta seinale elektrikora bihurtuko dituen gailu bat.
2. Seinale elektrikoa gehitu eta kontrolatzeko era bat.
3. Seinale elektrikoa berriz bibrazio bihurtu eta hedatzeko gai den gailu bat.

Modu sinplean esanik, mikrofono bat, anplifikadore bat eta bozgorailu bat. Lehenengo asmatu zena mikrofonoa izan zen, eta, asmakuntza askoren atzean bezala, hemen ere asmatzaileari buruzko bertsio asko daude.

Historialari gehienak David Edward Hughes-ekin doaz, eta badirudi Alexander Graham Bell, Emile Berliner y Thomas Edison-i aurrea hartu ziela urte gutxiengatik. 1875ean karbonozko mikrofono sinplea asmatu zuen. Ez zuen inoiz patenterik eskatu, gizartearentzat opari bat zela esaten zuen; berak mikrofono izena jarri zion, audioaren munduan mikroskopioaren baliokide moduan hartu zuelako.

1870-1880 urteen artean, bozgorailuaren antzeko asmakuntza batzuk agertu ziren, hala nola Graham Bellen telefona (1876) edo Edisonen fonografoa (1877). Baina benetako bobina mugikordun bozgorailua, gaur egun ezagutzen ditugunen aitzindaria, Oliver Lodge-ren eskutik etorri zen (1898).

Nik normaltzat jo
ditudan gauzek zein
eboluzio izan duten
ikusten hasi nintzen.
Ulertzen hasi nintzen
garai bakoitzak behar
batzuk izan dituela

1925ean, Chester W. Rice y Edward W. Kellogg-ek General Electric-en egindako ikerketek garrantzi handia izan zuten lehen bozgorailu modernoak oinarritzeko printzipioak ezartzeko.

Estadio batean izandako lehen kontzertua The Beatles-ek eman zuen Shea Stadium-en, Queens-en. Gertara horrek zera argi utzi zuen: taldeen aldetik horrelako leku handietan jotzeko eskaera baldin bazegoen, soinu erreformatzuen sistemek horien pare egon behar zutela. Momentu horretan ez ziren gai horrelako leku bati aurre egiteko. Lehen esan bezala, taldeek beraien bozgorailuak eramaten zituzten, eta ahal zuten kontzertu onena ematen zuten.

Zorionez, asmatzaile sutsuak egon ziren Atlantikoaren bi aldeetan PAREN formatuei aurre egiteko. Horien artean, Charlie Watkins (WEM, Watkins Electric Music) Londresen eta Clair anaiak Lititz-en.

Gene eta Roy Clairrek beraien lehen sistema Gabonetako opari moduan jaso zuten aitaren eskutik, 1954an. Eta, hortik aurrera, bertako jai eta dantzetarako kontratatzen hasi ziren bi anaiak. 1963an, bozgorailuen errekonbertsioen negozio bat erosi zuten, eta horrek hurrengo berrikuntzei lagundu zien, 4.000 pertsonarentzako edukiera zuen Franklin & Marshall College-ko ekitaldientzako sistema asmatu zuten arte.

1966an, anaia horiek Frankie Valli txunditu eta berarekin biran joatea lortu zuten. Eta hor sortu zen bira handietarako alokairuen lehen enpresa. Clair anaiek ondo kontrolatua zuten sistema, eta Iron Butterfly, Jefferson Airplane eta Cream-entzako kontzertu handi bat egin zuten 1968an, 18.000 pertsonarentzat Filadelfiako Spectrum-en.

Bien bitartean, Erresuma Batuan, Watkinsek bere PA sistema aurkeztu zuen Windsor-eko jaialdi batean. Sistema horri

‘esklabo’ deitu zioten, bozgorailu bat bestearen potentziarekin elikatzen zelako, produkzioa gehitu nahian.

Osagai guztiak izanda, nahasketa mahaia etorri zen, eszenatoki gainean zegoen saltsa guztia batu eta ondo banatzeko.

Aipu horiek guztiak irakurtzean, nik normaltzat jo ditudan gauzek zein eboluzio izan duten ikusten hasi nintzen. Uler-tzen hasi nintzen garai bakoitzak behar batzuk izan dituela. Beraz, David Byrne Talking Heads-eko abeslari eta produktorearen eskutik, musikaren hasieratik gaur arteko paseo bat eman nuen. Jose Lastrarekin kafea beti dago bero, bueltatuko gara beranduago!

Denboraren makina David Byrnerekin, Talking Heads

David Byrnek beren lehen kantak zein lekutan –CBGBn, ale-gia– jotzen hasi ziren kontatu zuen hitzaldi batean. Taberna horretako horma guztiak irregularrak zirela, zabor asko zegoela leku guztietatik, baina, hala ere, izugarri ondo entzuten zela zioen. Aretu horretako hormen egoerak erantzun natural bat sortzen zuen, non letrak ondo ulertzen ziren eta, soinu sistema nahiko ona zenez, oihartzun askorik ez zegoenez, erritmoek nahiko fin irauten zuten.

Herrialdeko beste areto batzuk oso antzekoak ziren, Nashville-ko Tootsie’s Orchid Lounge, esate baterako. Bertako musika desberdina zen, baina egitura eta forma aldetik oso antzekoa. Publikoaren izateko era oso antzekoa zen; beraz, Tootsie’s edo CBGB bezalako aretoetan taldeek jendeak baino altuago jo behar izaten zuten. Jendea oihuka, jaustear edo edozer gauza egiten zegoelarik ere, musika entzun egin behar baitzen.

Hortik aurrera beste leku atseginago batzuetan jo izan du David Byrnek. Disney Hall, Carnegie Hall eta horrelako hainbatetan, oso saio hunkigarriak izanik. Baina, esaten duenez, horrelako areto batzuetan, momentuan idazten ari zen kantez ez zuten erantzun ona izaten soinuari dagokionean.

Konpontzen omen ziren, baina, batzuetan, egiten zuten musikarentzat ez ziren leku egokiak.

Bere buruari galdetu omen zion: leku espezifiko batzuentzako idatzi behar dut? Leku bat izan behar dut buruan idazten nagoenean? Sormen eredu bat izango ote da? Sortzen ditugun gauzek testuinguru bat izan behar dute buruan?

Goazen Afrikara! Gogoratu Afrikako soinuak. Ezagutzen ditugun musika herrikoi gehienek Afrikako mendebaldean dute hazia. Bertan, musika, tresnak, erritmoa, jotzeko era, ingurunea..., dena da perfektua. Musikak ondo funtzionatzen du horrelako egoera batean. Ez dago oihartzunik sortuko duen aretorik, ezta erritmoak nahasiko dituen frekuentzia saltsarik. Instrumentuek oso soinu indartsuak dituzte eta anplifikaziorik gabe entzun daitezke. Ez da kasualitatea. Testuinguru horretarako perfektua da, baina beste testuinguru batean desastre bat izango litzateke, katedral gotiko batean, adibidez.

Katedral gotiko batean, imajina dezakezunez, musika perfektua da. Ez du klabez aldatzen, notak luzeak dira, ia erritmorik ez dago eta aretoak musika laguntzen du. Hobetu ere, esan ahalko genuke.

Areto espezifiko batentzat idatzi zituen Bachek bere pieza batzuk. Ez zen katedral gotiko bat bezain handia, eta, horregatik, pieza konplexuagoak idatzi zituen. Era berritzaile batean klabez aldatzera ere ausartu zen, disonantziarik eragin gabe.

Pixka bat aurrerago, Mozartek, 1770 inguruan, hainbat pieza idatzi zituen. Aretoak txikiagoak ziren, oihartzun gutxiagorekin; beraz, musika desberdina egin zezakeen, apaindua, konplexua, baina funtzionatzen zuena. Guztiz ondo sartzen zen gela horietan.

Milango La Scalaren moduko lekuetara joaten ziren pertsonak oihu egiten zioten batak besteari, jan eta edan egiten zuten eta taulagaineke jendeari ere oihu egiten zioten. CBGB aretoan Talking Headseko abeslariari gertatzen zitzaion bezala. Zatiren bat gustatzen bazitzaien, oihu egin eta berriz egiteko eskatzen zen, bis baten antzera, baina ez

ikuskitunaren bukaeran, baizik eta momentuan bertan. Horrela bizi zuten opera.

Wagnerrek berarentzat eraiki zuen antzoki bat. Aretoaren tamaina ez zen hain handia, Arriaga antzokia baino dezente txikiagoa; baina, hori bai, Wagnerrek bere berrikuntza egin zuen: musikari talde handiagoa nahi zuen; beraz, orkestra kolokatzen den lekua, fosoa, handiagoa egin zuen, instrumentu gehiago sar zitezten.

Aurrerago, La Scala baino erreberberanteagoak ziren aretoak eraiki ziren. Eta, garai horretan, *The New Yorker*-erako idazten zuen Alex Ross kazetariaren ahotan, publikoa isilik egotera behartzen zuen lege tazitua sartu zen. Jada ezin zen ez jan, ez edan, ez hitz egin. Bi gauza horien konbinazioak, aretoen egiturak eta jendea isilik egoteak, beste musika bat sorrarazi zuen. Konbinazio horrek dinamika askoz ere handiagoak egitea ahalbidetzen zuen.

Aldi berean, jazz banden moduko musika herrikoia sortu zen. Scott Joplin-ek zioenaren arabera, talde horiek ibaietako txalupatxoetan eta *club*-etan jotzen zuten. Berriro ere giro zaratatsua. Gainera, dantzarietzat jotzen zuten, eta horiek zati espezifiko batzuk eskatzen zizkieten. Taldekoek, asperraldiari aurre egin nahian, zati berberak errepikatzen zituzten, baina horien gainean inprobisatuz. Eta, horrela, beste musika mota bat sortu zen. Imajina ezazue *swing*-a. Beti leku txikietan jotzen zen, non jendea dantzan, kantan eta edaten egoten zen. Eta hor ere musika altuago entzun behar zen. Arazo bera.

Jada XX. mendearen hasieran gaude, eta ia heren bat pasatu zenean, aldaketa batzuk egon ziren musikaren munduan. Mikrofonoak izan zuen eragina, alegia. Abeslari eta konpositoreen egiteko erak guztiz aldatu zituen. Ordura arte irratiari entzuten zen musika zuzenean jotakoa zen, baina Frank Sinatraren moduko abeslariak mikrofonoa erabili ahal izan zuten eta hori gabe ezinezkoak izango ziren gauzak egin. Chef Bakerren moduko beste abeslari batzuk harago joan ziren, eta belarrira kantatzen egongo balira bezala grabatu ahal izan zituzten gauzak.

Momentu horretan musika banatu egin zen: zuzeneko musika eta musika grabatua. Jada ez zuten berdinak izan behar.

Denboraren makina itzali da

Gaur egun ez da beharrezkoa banda bat izatea musika jarri-
ta izateko, ezta zatiak errepikatu ahal izateko ere. Ekoizleak
diskoteketarako musika egiten hasi ziren, eta dantzariekin
jazzean gertatzen zen bezala, hemen ere gertatzen hasi zen:
hip-hop-eroek zatiak errepikatzen zituzten eta MCek gaine-
tik inprobisatzen zuten.

Zuzeneko ikuskizunak gero eta arrakasta handiagoa iza-
tera pasatu ziren, eta ziurrenik akustikoki txarrenak diren
lekuetan hasi ziren jotzen, kirol estadioetan. Bertan jo duten
musikariek ahalik eta hoberen egin dituzte gauzak, eta ber-
tarako egokiak diren kantikak sortu dituzte, 'estadioko rocka'
deitzen dena. Abiadura erdiko baladak dira (imajina ezazue
U2). Erritmoak ertainak dira, oso handi entzuten da, leku
horretarako egindako musika ezin hobeto egokitzen da.

Beste behin ere, leku berriak agertuko dira, oraingoan au-
toak. Bertarako egindako musika ere badago. Baxu sakonak
eta bukaera agudoak, ahotsa erdian harrapaturik geratuz.
Gainera, lagunekin elkarbanatu dezakezu.

Testuinguru berria sortu zen mp3-ak ateratzean; Carne-
gie Hall-en egotea bezalakoa zen, publikoa isilik zegoelarik
ñabardura guztiak entzun ahal ziren. Era berean, Afrikako
musikaren antza ere badu, bolumena igo eta jaitsi egiten de-
lako momentu batetik bestera.

Txoriak

Egungo pop musika gehiena horrelako aparatu edo sake-
lakoetatik entzuteko egina dago. Beraz, pentsa dezakegu:
hori al da sormen eredu bat? Egiten dugun egokitzapen
hori? Beste nonbait gertatzen ote da? David Attenborough
eta beste hainbaten iritziz, txoriei ere gertatzen omen zaie.

Azalpen askorik eman gabe, bitxikeria bat kontatzera noa: Loiuko txoriek kantua ordubete aurreratu behar izan zute-nekoa. Hau da, Bilbon aireportua jarri zenean, zeina gauze itxita dagoen, lehen irteerek txorien goizeko kantuarekin bat egiten zuten, eta handik denbora batera ikusi zen txoriek ordubete aurreratu zutela kantua, motor handi horien zaratapean estalita gera ez zedin.

Eta pentsa dezakegu: hori al da sormen eredua? Musika sortzen dugu testuinguru horietan funtziona dezan? Artea sortzen dugu galerietako hormetara molda dadin? Softwarea idazten dugu gaur egungo sistema operatiboentzat? Horrela egiten dugu? Bai. Ebolutiboak gara eta etengabe egokitzen ari gara.

Txoriak bezala, egokitu egiten gara: zorientasuna eta kantuen alaitasuna bertan dago, baina testuingurura moldatua.

Piztu denbora makina

Azkenaldian punkaren inguruan irakurtzen eta entzuten egon naiz, eta informazio interesgarri asko heldu zait eskuetara hainbat pertsona interesgarriren eskutik. Alde bate-tik, *Lou. Dantzan jotake, oinak lehertu nahian* dokumentala, Usua Garin, Andrea Lopetegi eta Izotz Barriorena, Bergarako gaztetxean eskaini zutena. Eta *God Save The Queens. Pioneras del punk* liburua, C. Garrigós, N. Triana eta P. Guerra-rena; podcastak Sangre Fucsia eta Carne Crudaren eskutik.

Bizimodua oso desberdina zen, batez ere testuinguruaren ondorio. Askorik luzatu gabe, ez bainaiz aditua gai honetan, baina musika lortzea ez zen

Hori al da sormen eredua? Musika sortzen dugu testuinguru horietan funtziona dezan? Artea sortzen dugu galerietako hormetara molda dadin? Bai. Ebolutiboak gara eta etengabe egokitzen ari gara

batere erraza, eta, norbaitek binilo bat lortzen zuenean, denak joaten ziren entzutera tabernara. Gaur egun, ordea, aukeratzeko gogorik ez dugu. Gomendio, playlist eta hainbat formaturekin konformatzen gara, eta, konformatu baino, aukeratze eza aukeratzeko dugu. Edozer gauza etor daiteke hor eta guk kontsumitu.

Lehen, aukeratzeko gogo asko baina biderik ez, eta, orain, milaka bide baina aukeratzeko gogorik gabe. 50 urteren inguruan zein aldaketa latza egon den konturatu naiz. Eta oraingoan ere testuinguruak ahalbidetu du guk musika horrela kontsumitzea. Teknologia gai da ideia asko gauzatzeko, eta horri esker gomendio inteligenteez 'goza' dezakegu.

Zein interes egon daiteke hor atzean? Diskoetxeak? Streaming plataformak?

Azkenaldian ez da besterik entzuten, gure datuak jaso eta profil horretarako 'egokiak' diren gauzak gomendatzen dizkigute, bai musikan, bai beste edozein merkatutan ere. Orain, gainera, ahotsarekin ere hasi dira, dena baitoa ahots bidez kontrolatzen diren gailuetara; beraz, osagai hori errezetan ere sartu behar izan dute. Ez ziren informazio hori eduki gabe geratuko...!! Baina badirudi horren alternatiba moduan beste teknologia bat jaio dela eta lehen aurrerapausoak ikusten ari garela. Teknologia hori Blockchain da, zeinetan esperantza asko ipini den.

Denbora makina piztuta baldin badugu, gainera, Blockchain teknologia ezin dugu ahaztu. Bitcoin kriptotxanpon ezagunaren atzean dagoen teknologia da, eta txanpon batek baino askoz gehiago egin dezake, Interneteko protokolo bat baita Blockchain. Bitcoin kriptotxanpon bat da, zeina Blockchainen 'errepidetik' doan. Baina errepide horretatik milaka aplikazio joan daitezke. Baita musika ere.

Transakzioak eta ebentutik digitalak erregistratzen dituen datu base deszentralizatu bat da, non informazio guztia kontsentsu bidez onartu behar den. Blokeka gordetzen da, hortik bere izena, 'bloke-katea'. Kriptografikoki idatziak daude, beraz aldaezinak dira. Eta informazio hori hainbat lekutan

gordetzen denez, bloke kateren batek edozein aldaketa jasanez gero, jakin egingo litzateke, beste erregistroetan ez baitzen horrela ageriko.

Musikaren munduan, Mycelia proiektua etortzen zait gogorra, zeinak musikaren industrian ekosistema justu eta jasangarri bat sortzea duen helburu, eta *online* musikan dauden zerbitzu denak jaso nahi dituen teknologia horri esker. Sortzaileek dituzten barrerak bota nahi ditu, industrian dauden aktore guztiei ordaindu zaiela ziurtatu eta estandar komertzial, etiko eta teknikoak etorkizuneko berrikuntzak indartzeko direla ikusi.

Musikaren industriarako eredu berri bat sortu nahi da, eta eragin positiboa sortu teknologia horren bidez. Horretarako, pasaporte digital bat sortu dute artista guztientzat, eta hor jasoko da informazio guztia (artistaren nortasuna, errekonozimenduak, lanak, sozio komertzialak, ordaintzeko erak...), beste hainbat gauza gehiago baliatuz.

Teknologia horrek kontratu inteligenteak (*smart contract*) gauzatzeko ahalmena dauka, eta horrek ordainketa zuzen eta arinak egitea gauzatuko du; erraztu, eta industria kreatiboan dauden kolaborazioak demokratizatu. Hitz handiak dira, baina asko espero da teknologia horren eskutik.

Denboraren makinan aurrera eta atzera joan gara, Las-traren kafea oraindik bero dago, David Byrne ez dakit zer iritzi izango duen Loiuko txorien inguruan... Hori bai, ikusi beharko dugu espero den guztitik zenbat gauzatzen dugun; baina, etorkizunera joan gabe, gaur egun ikus dezakeguna zera da, testuinguruak asko ematen diola musikari, eta horren seinale Euskaraldia eta Korrikaren kantak. 🎵

EGUNEN GURPILEAN

107 Kultura
Guk egiten ez badugu
Legea ez da nahikoa
Baina guk musika
Itziar Ugarte

113 Soziolinguistika
Zenbakiak
Agenda
Ardatzak
Mapak
Jaime Altuna

119 Glokalia
Erantzunberraz
(Erantzun)beharrean
Azaluts
Alba Garmendia



Guk egiten ez badugu

Zalantzan izan naiz gaia atera edo ez atera, luze doalako, luzeegi, tema. Baina, bada egia nik ere sentitu dudala zirrara, halako kezka, ezerosotasuna, Donostiako Parte Zaharrean *Patria* grabatzen aritu direneko irudiak ikustean. Eta zergatik ez saiatu azaltzen.

Aurrez diot, ez dut esango jada esan ez denik. Azken artikuluan ere heldu nion gaiari –badut, onartzen dut, obsesio puntu txiki bat fenomenoarekin–, baina soilik ausartu nintzen esaten telesailak lana ekarri diela zenbait euskal aktoreri, hain urri duten hori, eta alde horretatik poztekoa dela, poz mindua izanik ere. Baina horra arte. Tentazioa egon baitaiteke esaten hasteko nola litekeen halako ekoizpen batean parte hartzea, gertuko batek zioen modura, «eurak parte diren kultur sistemaz direnak eta ez direnak zabaldu eta goitik behera kakazten duen produktu bat» denean. Ahopean, telesailen lan egiteari uko egin dioten aktore batzuen izenak ere atera dira, baina hutsalegia litzateke horiek goraiatzea eta besteak zuzenean epaitu gabe baina, azkenean, epaitzen amaitzea.

Obsesio puntu bat dudala onartzeko, aurretik onartu behar-ko nuke ez dudala Fernando Arambururen eleberria irakurri. Eta konturatu naiz, tema luze doanaren testigu, 2017ko apirila zela *Sautrela* saioan Mari Jose Olaziregi eta Iban Zaldúa batu zirenean; literaturaren eta *gatazkaren* arteko harremanaz aritzeko, baina, funtsean, *Patria* harrotzen hasia zen ideia bati heltzeko premiaz, ideia hura gezurtatzeko: euskal letrek ez dutela *gatazka* landu izan, ez dela aski askatasun izan horretarako. Zalduek ondo zioen bezala, euskal

literatura ezagutzen duen edonork ez du zalantzan jartzen hemen auzia landu denik:

Mito hori existitzekotan, existitzen da gaztelaniazko literatura-ren alorrean, euskaraz irakurtzen ez duen jendearen alorrean, eta pena da, alde horretatik, Aramburuk berak edo Tusquets-ek ikuspuntu hori, inpresio faltsu hori zabaltzea.

Olaziregik, bestetik, zera esaten zuen:

Patria-ren arrakastak eta batez ere medioetan eta sareetan izan duen oihartzunak erakusten du gaur literatura aztertzeke ezinbestekoa dela literatura hori sortu, jaso eta banatzen den kontestua ikustea.

Eta segitzen zuen:

Nik ere nobela irakurri dut, ez zait gustatu, oso nobela manikeoa delako, planteamendua dagoelako zuriak eta beltzak. Nobelan esaten da, tira, gaiztakeria txikietatik hasten dela txikitan, eta, gero, terrorista bat sortzen dela euskal kontestuan. Esplizituki esaten da euskaraz idazteak badituela bere abantailak, eta ez dagoela askatasunik.

Ibilbide motza du eztabaidak bide horretatik. Aitzitik, beste galdera batek geldiarazi nau: fikzioan, dena da zilegi? Librean behar du arteak, ados; baina haren ondorioez, eragin politikoez –zentsurik zabalenean– noraino sar daiteke kritika?

HBOk, imajinatzen dut, inork baino baliabide hobeak izango ditu *Patria* milaka pantailatan hedatzeko. Europa zein Amerika zabalean erakutsiko dute, eta jendetzarengana helduko da, Aitor Gabilondo ekoizpenaren gidoilari eta zuzendariak esan bezala. Eta, berriz diot, ez dut nobela irakurri, baina entzundakoak entzunda, beldur naiz ze irudi emango den euskaldunoz etxe horietan guztietan. Irudi deabrutu bat, Urtzi Urkizuri hitza hartuta, telesaila nobelari fidela bazaio. Inpresioa baitut, azkar eta zabar esanda, batzuen begietara oso *karikaturizableak* garela, eta, muturrera joanda, guk, azkenean, onartu egiten dugula, otzan samar. Sentsazio horiei arrazoiak bilatzen ez zait hain erraza, eta, gainera, zilegi

izan daitekeela ere pentsatu izan dut, baina horrek ez du arintzen ardura.

Dena zilegi ote den, beraz. Gogora etorri zait behin Argentinan gertatutakoa: unibertsitatean geunden, *Analisis eta kritika* deitzen zen ikasgaian, ahal zuen denetan artearen eta politikaren arteko loturez hizketan amaitzen zuen hartan. Juan José Campanellaren *El secreto de sus ojos* genuen hizpide. Diktadura argentinarraren filmografian titulu kanonikotako bat. Hala esan zuten behintzat orduan –akordatzen naiz diktadura ateratzen zenean, nola egiten zen isiltasuna gelan. Sentsibilitate handia sumatzen zen hura bizi ez zuten ikaskideen artean; etxeetan, lagun artean, militantzia espazioetan gaia nolabait landua zutela suma zitekeen-. Nik orduan ez nuen filma ezagutzen, baina han zeuden gehientzako pelikula ukiezin horietako bat zela bistakoa zen. Irakasleak hori baliatu egin zuen zalantza zabaltzeko: zilegi al da diktadura moduko gai batean, zigorra norbanako batek bere esku ezarri zuela erakusten duen film bat egitea, hori gertatu ez zenean? Zer esan nahi du kontakizun hori Argentinako zinemaren historian pelikularik ikusiena bihurtzen denean?

Hor hasten ziren ordura arte ezkontzen zirenak hain ongi ez ezkontzen. Nondik kontaktzen den, hori zen barneratu behar genuen lehen gakoa. Hortik aurrera, artea eta politika elkartzen dituen mataza etengabe hasten zen puzten; bibliografia oso bat zain, eta Walter Benjaminen izena letra larriz.

Bitartean, hemen, fikzioaren ekoizpenean herren goaz aurrera. Telebista albo batera utzita, *Soinujolearen semea* heldu da aretoetara oraintsu. Bernardo Atxagaren nobela Fernando Bernuesek egokitu du zinemarako. Eta heldu berri da *Muga deitzen da pausoa* ere, Maider Oleagaren filma, Elbira Zipitriaren figura berreskuratu duena.

Euskarazko ikus-entzunezkoak bultzatu nahi dituen labo-rategi berri batek ere ekin dio jardunari: 2deok. Donostiako Tabakalera hartu du lur, eta inbertsio potoloa egin du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Sektorearekin elkartuta hartu du forma proiektuak, eta esango nuke berme bat ematen duela

horrek. Ikus-entzunezkoak azkar doaz hartuz mundua, eta nekeza da hor leku bat egiten asmatzea. Esperimentazioa jarri dute lehentasun, eta asmo horrek ere ematen du konfiantzarik –besterik litzateke euskal telebistak ere gehixeago probatuko balu–.

Moriartikoak *Handia*-ren promozio lanetan zebiltzanean, egunkaritik moztu nituen Aitor Arregiren ondorengo berbak aldiro datozkit gogora, eta hemen utziko ditut gaur:

Kultura garestia da, baina are garestiagoa da inkultura. Herri baten historia daukagu kontatzeko: guk egiten ez badugu, beste batzuek egingo dute. Edo ez. Gizarte batek beti ibili behar du antenak irekita, bere historia kontatzeko eta bizi duen garaian egon daitezkeen istorioak kontatzeko, horrek egingo zaituelako, besteak beste, herri edo gizarte.

Legea ez da nahikoa

Maiatzaren hasieran heldu zen beste albiste hau: «Euskal Kultura Ondarearen Legeak ondare immateriala babestuko du». Alegia: komunitatean onartutako praktikak, esamoldeak, ezagutzak eta bestelako jakintzak, baita espazioak ere, kultura ondareztat hartuko ditu lege berriak, euskal kulturatzat har daitezkeen askotariko arloak barnebilduz; hala nola ahozko tradizioa, ikuskizun arteak, ohitura sozialak, erritualak, eskulangintza...

Nafarroak aurretik egina zuen, eta orain Araba, Bizkai eta Gipuzkoa batu dira. Aipatzekoa da, poztzekoa, proposamenak Eusko Legebiltzarrean lortu duen babesarekin; alderdi guztiak agertu baitira alde, PPren abstentzioarekin. Baina Ismael Manterolak, beste behin, albistearen azpiak astindu zituen ‘Ondarea: teoriatik praktikara’ artikuluan: berri ona dela –baita ondarearen ideia, kontzeptu historikotik harago, ondare industrialera zabaldu duelako ere–, baina ondareari estu lotutako beste errealitate bat badela gure kaleetan, jabego handien espekulazioarena. Ikusi nahi duenak ez du

gehiegi nekatu behar burua horretaz jabetzeko, Donostia bezalako hiri batera joan besterik ez du. Artikuluak gogorazten du, ondarearen legea onartu zen aste berean, hainbat elkartek ondarea espekulazioaren kontra defendatzeko manifestaziora egin zutela hirian, eta ondarearen parte den Arte Ederrak eraikina gutxika suntsitzeko asmoaz ere ohar-tarazi duela, berriro, Ancora elkarteak. Kupula eraitsi zuten, eta orain barruko aldea bota nahi duten beldur dira. Bistan da Manterolak dioena: «Legea ez da nahikoa eskubideak eta ondarea babesteko».

Eta, legeaz hasita, su motelean egosten hasia den beste kontu bat ere atera da argitara azken asteotan, oraindik ezer askorik aurreratu ezin badaiteke ere, esperantzaz jaso duguna: Lanartea, Euskararen Langile Autonomoen Intersindikala. Euskaraz ari diren idazle, bertsolari, marrazkilari, aktore eta bestelako langileak bilduko dituen sindikatu bat sortzea da asmoa, prekaritateari mugak jarri eta langile modura dagozkien eskubideak defendatzeko, aitortza profesionala bermatzeko. Hiru helburu zehaztu ditu: euskararen langile autonomoentzat estatus juridiko duin bat adostea, estatu mailako nola autonomietako legediaren barruan; hitza baliatuko duten sektore ekonomikoetan euskararen erabilera exijitzea; eta sektoreen arteko elkartasuna lantzea, bakoitzak bizi dituen gatazkei indar gehiagorekin aurre egiteko.

Aldiro agertu eta desagertzen den puntu bat ere atera du berriz mahai gainera Lanartea: Euskal Kulturaren Legearen beharra, euskaraz ari diren profesional autonomoen abaro izango dena, eta kulturarentzat beste zentraltasun bat borrokatuko duena.

Baina guk musika

Uda ate joka akordatu orduko, eta beti heltzen da ordu onean; argitasuna, egun luzeak, den bo ra. Sasoiko klasiko bat harekin: festibalak. Iragan berri da lehenetakoa izan ohi den

Usopop. Aurten hamar urte bete ditu Sarako jaialdiak, eta, hamarkada betetzeaz batera, agortutzat jo du orain artekoa. Antolatzaileek azaldu dute hasieratik zutela argi pausa bat egingo zutela, sobera erre aurretik. Hori du zerbait irabazi asmorik gabe –diru asmorik gabe– egiteak, norbere energia eta denbora direnean motorra. Txikia izan da hasieratik eta txiki eutsi dio azkenera arte. *Argia*-k Pantxika Gaicotchea Urricariet eta Joanes Garcia Basurko antolatzaileei iaz egindako elkarrizketan, bere soilean, titularrak esaten du dena: «Festibal asko diruaren logikan dabilta, baina guk musika maite dugu». Musika maite, rocka baina folka eta popa ere, eta maite bertakoa, bazterrak, harremanak, hizkuntza, ikusten ez dena.

Hego zein Ipar Euskal Herriko jendeak bat egiteko abagunea izan da, zeina, gauzak dauden bezala, gozagarri den. Edonola ere, Hegoaldekoak izan dira maiz bertaratutako gehienak, Usopopen bederen, eta aurpegi luzerik ere ikusi zen horregatik. Antzera gertatu ohi da EHZN ere, Euskal Herriko jaialdietan beteranoenean. Duela bi urte eguraldi kaskarragatik bertan behera geratu, eta iaz Baionan zehar jaialdi nomada antolatu ostean, hiru eguneko festibala izango da aurten berriz, Irisarrin. Nagusiki, euskal taldeekin osatu dute egitaraua, eta, musika eskaintzaz gain, indartuta dator eztabaidarako gunea.

Oso bestelako zimenduekin, BBK Live jaialdiaren kartelak ere hasi dira ugaritzen kalean. Biharamunean, haren segida hartuta, Berri Txarrak ariko da Kobetamendin, hamaika gonbidatu lagun. Zorioneko daude bestela ere: haientzat izan da aurtengo Adarra saria, mende laurdeneko jardunari, urratutako bideei eta izandako lorpenei egin zaien aitortza.

Labainago aritzen da hitza festibalen formetan. Iragan da Literaturiaren aldi berri bat, Zarautzen. Eta hemen jadanik aipatu izan dugun Eako Poesia Egunak ere albiste dira aurten. Xumea, berezia, bakarra izan da Eakoa. Baina ziklo bat agortu da hor ere. Joanak eta itzuliak; ez dago bestela bizitzerik. 🍷



Soziolinguistika

Jaime Altuna

Zenbakiak

Hitzak eta zenbakiak nahasten dira hauteskunde ondorengo egunetan. Hala gertatzen ari da aurtengo udaberrian eta hizkuntza-politika ez da agendan egon den kontua; alderdiek ez dute gaia sobera azpimarratu udaletarako, gobernu eta aldundietarako zein Europako parlamenturako prestatu dituzten programetan. Nafarroa izan da salbuespena; euskara biziberritzearen aurkakoak diren alderdiek kalkulua egin dute (*suma* izenari ohore eginez), eta euskara faktore ona dela ondorioztatu dute duela lau urteko aldaketaren batuketa oraingoan kenketa bihurtzeko.

Hizkuntza eta zenbakiak uztartu zituen Jose Luis Alvarez Enparantza *Txillardeg*i-k, 1979an *Fonologiaren matematikuntza* liburukian. Abiapuntu horretatik, Xabier Isasirekin batera, hizkuntzen arteko ukipena neurtzeko, ulertzeko eta azaltzeko azterketa matematikoa baliatu zuen hiztunen erabilera eta «leialtasuna» adierazteko. Miren Rubiok idatzi berri duen *Txillardeg*i. *Batasunaren pentsalaria* liburuan hala jasotzen du:

Txillardeg

bera harro zegoen ekarpenarekin, «Einsteinen teoria» ez izan arren, «gutxienez inori kopiatu gabe» asmatutako lana zelako.

Hitz horiek irakurtzean, 2006an Kontseiluak Donostian antolatutako *En castellano, por favor* jardunaldian Txillardegik eman zuen hitzaldia gogoratu dut. Garai hartan aisialdiko hezitzaileen formazio saioetan soziolinguistika matematikoari tarte bat eskaintzen genion, eta eredu hori proposatu zuenaren aurrez aurreko eskola bat jaso ahal izateak ilusioa eragiten zidan. Nire koadernoaren orri batzuk erabat konprenitzen ez

nituen zenbaki, letra eta formulez bete nituen, Txillardegik arbelean idazten zituen formulak kopiatu eta ulertu nahian. Itxaso Ferrerasesek hala laburtu zuen *Sustatu*-n Txillardegiren egun hartako hitzaldia:

Ezagutza eta erabileraren arteko erlazio matematikoak azaldu ditu, izan ere, gaur egun euskararen ezagutza maila %27koa da eta erabilpen-tasa %13,5ekoa da. Halere, hitzaldi honen helburu nagusia egungo egoera soziolinguistikoak erabilerari ezartzen dizkion berezko mugak azaltzea izan da. «Euskaldun elebidunak, nolabait esateko, jarrera militantea hartzen ari gara gero eta nabarmenkiago, beraz, erabilpenak gora egiteko bide bakarra oinarriak aldatzean datza», dio Txillardegik.

Hamar urte geroagoko zenbakiak zioten (2016ko Kale Neurketaren datuen arabera) euskararen kaleko erabilerak antzera jarraitzen zuela: %13 inguruan. Itxuraz, hortaz, goranzko bidean ez gara oraindik abiatu.

Agenda

Gora egiteko bidea baino *irabazteko bidea* izenburua jarri zion Garikoitz Goikoetxeak 2016an argitaratu zuen liburuari: *Euskara irabazteko bidean*. Honako hauek ziren sarrerako lehen hitzak:

Bide luzea. Mendi ibilbide bat. Malda. Erronka. Arnasa luzeko bidea da euskara biziberritzekoa.

Liburua osatzeko ehun lagunen iritziak jaso zituen, hizkuntzarekin lotutako jendarte arlo guztiak jorratuz. Hausnarketa ugari, beraz, eta baita zenbaki batzuk ere: hizkuntza gaitasuna eta erabilera datuak, hizkuntza ereduetan dabiltzan ikasle kopuruak, euskaltegietako matrikulazio kopuruak, euskarak Interneten duen presentziaren datuak...

Deigarria bada ere, zenbakiak hain maiteak dituen ekonomiaren atalean apenas ageri zen daturik. Lan munduaren inguruko kapituluan argi geratzen zen arlo sozioekonomikoaren

azterketa zabal eta sakonik ez dagoela, ezta lanketa eta planifikazio bateraturik ere. Bai Euskarari Ziurtagiriaren Elkarteko zuzendaria den Rober Gutierrez kexu ageri zen:

Proiektuak egin izan dituzte lan mundua euskalduntzeko, baina mugatua izan da eragina. Bakoitza bere aldetik aritu izan da. Sindikatuetan hasi dira hausnartzen, baina sindikatuen artean ere arazoak daude. Enpresarientzat ez da lehentasunezko kontua izan, ez da inoiz haien agendan egon. Eta administrazioa saiatu da neurriak zehazten, baina ausardia falta izan zaio. Beste alor batzuetan egon dena falta izan da hemen.

Aurtengo apirilaren hasieran, *Berria*-ko 'Euskararen mozkinak' erreportaje luzean, datu batzuk egon badaudela aipatzen zen: 400 enpresak daukate Bikain ziurtagiria eta 1.353 konpainiak daukate Bai Euskarari ziurtagiria, hau da, Euskal Herrian dauden 96.000 enpresetatik %2k besterik ez. Karmelo Aiesta automozioiko aholkulariak enpresak oso pragmatikoak direla azpimarratzen zuen: «Gai bat agendan ez badago, ez dago zereginik, baina agendan sartzen bada jarriko dute martxan, ez izan zalantzarik». Hain zuzen, martxoan egunkari berean egindako elkarrizketa batean, euskara lan eremuko agendan sartzeko proposamena egin zuen Jon Sarasuak. Datozen hamarkadetan zentraltasuna eduki behar duela aldarrikatuz, operazio erraldoi bat martxan jartzeko deia luzatu zuen:

Erabileraren gaia gutxiago aipatu behar da, eta gehiago egin: batetik, gogoia eta nahia elikatuz eta, bestetik, erabiltzeko egiturazko aukerak sortuz. Lan mundua zentrala da hor. Munta handiko inbertsioa da. Pentsa liteke helburu handiegia dela, bada nagitasun mental gisako bat azkenaldian, baina uste dut ortzimugaren angelu egokira begiratzen duela, eta amets doitua dela. Gauza zailagoak egin ditugu.

Agenda sozioekonomikoan euskararen biziberritzea letra larri jartzeko garaia omen da. Ez da erraza izango lan mundua irabazteko bide malkartsu horretan gora egitea, baina Annie Smith Peck irakasle eta mendizaleak zioen bezala: «Alpinismoan ez da gauza askorik behar, erresistentzia fisiko pitin bat, adimen ona, praktika asko eta arropa beroa, besterik ez».

Ardatzak

Baina mendian bezala, ardatz sozioekonomikoan ere inguruari erreparatu behar zaio. Ez da nahikoa fabriketan, zaintzan, bulegoetan, eskoletan, nekazaritzan, gizarte zibilean, langabezian edo prekaritatean ari diren pertsonen gaitasunei, beharrei eta prestakuntzari begiratzea, gizarteak eskaintzen dien testuinguruak ezarriko baitizkie bidea egin ahal izateko baldintzak. Nancy Fraser filosofo feministak kapitalismoa modu zabalagoan hartzeaz hitz egin zuen Maite Asensio kazetariak udaberrian egin zion elkarrizketan:

Kapitalismoa sistema ekonomiko bat baino gehiago da: ordena sozial instituzionalizatu bat da, mundua antolatzeko modu bat. Kapitalismoa ulertzeko modu tradizionalak klase menderakuntza jarri du erdigunean, baina uste dut ikuspegi mugatua dela egungo krisia ulertzeko, besteak beste, ontzat jotzen duelako kapitalismoak ekonomia gisa definitu duena, eta kanpoan uzten duelako erreproduktzio soziala, hau da, ekonomia kapitalista posible egiten duten harreman eta prozesu sozial guztiak.

Iradokitzailea iruditu zitzaidan Fraserren kapitalismoaren inguruko ikuspegi zabalago hori. Hizkuntzen arteko menderakuntzak jorratzeko lagungarria izan daitekeela pentsatuen, kapitalismoak berezki hartzen duen bereizketetako bat hizkuntzen artekoa baita, hizkuntza batzuei eta besteei balio ezberdina emanez.

Hala ere, Euskal Herrian hizkuntzen eta aldagai sozioekonomikoen arteko harremana gehiegi ez da landu, ezta ikertu ere. Horregatik, gustura entzun nuen Eta Kitto! elkarteak Eibarren antolatu zuen euskararen transmisioari buruzko aurtengo mintegian Gorka Moreno soziologoaren 'Euskara eta immigrazioa. Errealitate eta usteak' izeneko hitzaldia. Morenok euskara, immigrazioa, klase soziala eta enplegua bezalako aldagaiak gurutzatu zituen, eta 2015ean Xabier Aierdik argitaratutako 'Hizkuntza praktikak hiri mundu eta mundu hirietan: Anbivalentziaren presentzia' artikuluari erreferentzia egin zion. Idatzi horrek intereseko hausnarketa

ugari ditu; baina interesgarriena, nire ustez, klase sozialek euskararekiko zer gizarte posizio hartzen duten azaltzeko egiten duen proposamena da. Aierdik «euskararen gizarte geografia» irudikatzen du kapital ekonomikoa, kulturala eta soziala kontuan hartuz. Ardatz horien arabera bost sektore bereizten ditu: goi klaseak ia ez luke euskararekiko hurbilpenik; hiri klase ikasiko kideek erdizkako gertutasuna lukete; euskaldungoa deituriko sektoreak erabateko hurbilpena luke eta ia erabatekoa behe klaseko sektoreak; immigrazioaren gertutasuna ere txikia litzateke. Dena den, artikuluan Aierdik berak onartzen duenez:

Egoera hau zientifikoki aztertzeaz dago, eta ez legoke txarto sektore hauetan –klase eta azpiklaseetan– euskararekiko zer-nolako diskurtsoak eratu eta mantentzen dituzten ezagutzea.

Hor dugu, beraz, bidea egiteko behar dugun maparako zorrotz marraztu beharreko ardatzetako bat.

Mapak

Gaur egun ezagutzen dugun kapitalismoa lehen pausoak ematen ari zen garaian, Prusiako goi-klaseetako bisitari bat gure bazterretako bideetan gora eta behera ibili zen: Wilhelm von Humboldt. Iñaki Zabaletak *Wilhelm von Humboldt eta Euskal Herria* liburuan jasoa duen anekdota honi erreparatuta, ez dirudi prusiarrak maparik erabili zuenik:

Hemen agur esan genion gure lagunari, mendia zeharkatzeko gidari gisa landatik hartu genuen mutikoari. Honek ez zekien hitz bakar bat ere espainieraz. Gu saiatu ginen gure euskara guztia erabiltzen, baina soilik gutxitan lortu genuen berari erantzun ulergarri bat ateratzea. Gehienetan bere *eztaquit* goibelarekin konformatu behar genuen.

Humboldték hizkuntzalaritza modernoan paper garrantzitsua jokatu duela esan ohi da, eta, Euskal Herrian hizkuntza ikertzeaz gain, folklore biltzaile aitzindarietako bat izan zen,

XIX. mende hasieran ipuin, kondaira, dantza, kanta, doinu eta beste hainbat kultur adierazpen jaso baitzituen (UEUk bere lan horri buruzko udako ikastaroa antolatu du uztailerako, *W. von Humboldt gurean: hizkuntza, kultura, herria izenekoa*).

Wilhelmen anaia ere, Alexander, natura zientzialari ezaguna zen. Bere izena duen katedra Enrique Zuazua matematikariak jaso zuen maiatzaren 9an Berlinen. Erlangen-Nurenbergeko Friedrich Alexander Unibertsitatean ariko da lanean matematika aplikatua egiten duen ikerketa garatzeko. Egin dizkioten elkarrizketetan Zuazuak azpimarratu du matematikak aurrera begira jarrita, konponbideak proposatu eta kuantifika ditzakegula, eta niri berehala sortu zait galdera: matematika aplikatua erabili al dezakegu euskara biziberritzeko bidean? Matematikaria hala mintzo da:

Matematikaren abstrakzio nagusietariko batean, infinituan, gauza asko gorderik daude. Munduaren konplexutasunaren mapa berriak nahi ditugu. Infinituaren mapa berriak sortu behar ditugu.

Zuazuaren hitzak entzundakoan, Txillardegiren arbela ikusterakoan edo Jone Uriaren artikulua zoragarriak irakurtzean, maiz Pasaiako mutiko hura bezalaxe sentitzen naiz: *eztaquit* goibel bat ahoan dudala, adierazten duten guztia erabat ulertu gabe. Baina *badaquit* gauza bat; badakit matematikari batzuk hizkuntzen kudeaketaren auziari begira pentsatzen jarriz gero, euskararen biziberritzearen goranzko bidean aurrerapauso sendoak emateko moduan egongo ginatekeela. Mapa berriak marrazteko eskatuko al diegu matematikariei? 🍷



Glokalia

Alba Garmendia

Erantzunbeharrak

Filosofia Fakultatean ostegunero Mintegi Irekia egiten da. Astero hizlari bat etortzen da filosofiaz edo filosofia inguratzeko duen gairen bati buruz hitz egitera, eta astero biltzen da entzule taldetxo interesatua. Ohiko galde-erantzunen ondoren, solasaldiak fakultateko tabernan jarraitzen du, etxeko zenbaitekin batera gonbidatzen baitute hizlaria bazkari-legea egitera.

Lehengo batean liburu aurkezpen bat egin zen; Fito Rodriguezek *'Fake News'* ez dira atzo goizekoak liburua aurkeztu zuen, orri gutxi baina kontu asko biltzen dituen saiakera-txoa. *Fake news* delakoa nahita sortzen den berri faltsu bat da, egiazkoaren itxura ematen zaiona hartzailea engainatzeko edo manipulatzeko helburuarekin. Dakigunez, ez dira ahuntzaren gauerdiko eztula. Trump fenomenoaren eta *fake news*-en loturaz hitz egin zuen Mikel Reparazek elkarriketa labur batean: «Berak [Trumpek] sortu du albiste faltsuen unibertsoa, eta oso emaitza onak eman dizkio AEBetan. Europako alderdi askok errezeta hori hartu dute, eta gezurra da osagai nagusia» (*Berria*, 2019-04-30).

Politikaren jokalekuan gezur berariazko eta demagogikoa ere ez da atzo goizekoa (horrek sortu beharko ligukeen asaldura beste baterako utziko dut). Aurreko hartan arduratu ninduen izan zen Rodriguezek *fake news*-ei egozten zien izaera performatiboa. Gezurra egia bihurtzen dutela, alegia. Pigmalion efektuaren bidez azaldu zuen. Besteenganako ditugun aurreiritzi edo usteek euren errendimenduan eragina dutela esatera dator teoria; errepikatzearen errepikatzeaz gezurra sinetsi eta egia bihurtzen dugula esateko beste modu

bat da. Hausnarketa deserosoa da orduan pentsatzea noraino garen albiste faltsuen egikaritzearen erantzule.

Erantzule, bitxia hitza. Bi adieraduna, Euskaltzaindian: «1. Erantzuten duen pertsona». «2. Zerbaitek eragindako ondorioak bere gain hartu behar dituen pertsona». Lehen begiratuan kulpari erreferentziarik egiten ez bazaio ere, ondorioen kargu egiteak lozorroan baina beti adi dugun kristaua esnazarzten digu nonbait. Hala, hiztegi berari *erru* hitza definitzeko eskatuta, «hutsegite baten erantzukizuna» diosku. Hanka-sartzea nork egin duen ez dakigu, baina, ardura eta kulpa pertsonalki sentitzen ditugun neurrian, norberak egina balitz bezala epaitzen dugu. Trump AEBetako presidente izaten noraino lagundu dugu? (Trump urrutiegi sentitzen badugu, etxetik gertuago ere baditugu antzeko adibideak). Botorik izan ez dugun arren (botorik eman ez arren), bere nabarmenkeriak bolo-bolo zabaltzeak nolako mesedea egin dio?

Batere onik egiten ez diguna damu eta kulpetan itotzea da. Hori horrela, erantzukizunaren eta erantzunbeharraren arteko bereizketarekin amaitu nahi nuke. Hiztegiak esanahi bera egotzen badie ere («erantzule izatea; hortik datorren eginbidea»), Joxe Azurmendik sakontasun gehixeago ematen die *Barkamena*, *kondena*, *tortura* liburuan, Karl Jaspers-en hausnarketak euskarara ekartzekoan. Erantzunbeharra, orduan,

... erantzukizun zibila da, berme edo abala, garantia, fidantza; ez zaio egintzaren egileari erreferitzen, egintzaren ondorioei baizik; eta subjektu egilearen erruaz ala gabe, subjektu erantzunbeharrekoa berdin-berdin obligatzen du (29. or.).

Edo: *fake news*-a nork sortu edo zabaldu duen alde bateara utzita, asmakuntza egia bihurtu bada ere, horren kulpak banatzen jarri gabe, haren ondorioei erantzun beharraren obligazioa daukagu. Horrek ez du esan nahi ardura pertsonalik ez dagoenik, norbere kontzientzia aztertu behar ez denik, kulparik ez dagoenik. Baina hauteskunde batzuen emaitzaren erruduna (auto)zigortzen aritu baino, indarrak haiei erantzuten jartzean datza.

(Erantzun)beharrean

Erantzunbeharra arduraz hartu duten bi dira Marina Garcés eta Antonio Casado. Fito Rodriguezen liburu aurkezpena bukatu eta segidan beste bi izan genituen, oraingoan Carlos Santamaria Zentroko liburutegiko Txillardegia aretoan. Aretoaren izaerak merezi du aipamentxoaren ere. Paretik pasatzerakoan, hutsik dagoela dirudien gela bat da. Erakusketaren bat dago (ia) beti kristalezko ate gardenetatik bestaldera. Tripa-zorria esnatzen duen hamaiketako usaintzen da noiz-behinka, kontuak esateko aitzakia ematen duena, gainera. Beste batzuetan hitzaldiak izaten dira, edo talde txikitan hitz egiteko bildu den jendea. Beti ere unibertsitateari akademieren tribuna kendu eta gizartearekin parekatzea bilatzen da.

Baina esaten ari nintzen *Humanidades en acción* eta *Cultura dual* liburuak aurkeztu zirela, Garcések eta Casadok editatuak, hurrenez hurren (EHU telebistan ikusgai dago solasaldia, nahi duenarentzat). Lehena proiektu zabalago baten zati bat da. 'Aula Oberta' Bartzelonako Institut d'Humanitats-ek sortutako topaleku bat da; ikertzaileak, artistak, aktibistak, idazleak eta abar elkartzeko dira bertan, egiten dabiltzana kontatzeko eta hari buruz hausnartzeko. Webgunean diotenez, humanitateak «ezagutzara eta sormenera gerturatzeko modu bat» direla uste dute, baita ezagutza eta sormen horien «ondorio sozial, politiko eta humanoetara» gerturatzeko modua ere. Helburua? «Mugimenduan den mapa bat bistaratu eta eraldaketa bultzatzea»; kritika erabiliegietan edo egin beharrekoaren proiektu handiegietan galdu gabe, jada egiten ari direna partekatzea, baita huts egin duena ere. Aula Obertan izandako hogeitahortze jaso dira liburuan.

Bigarren liburuak ere unibertsitatearen eta gizartearen arteko loturan jartzen du arreta. Gizarte zabalarekin duen harremanaz ez ezik, zehazkiago lan munduarekin eta kulturarekin duenaz ere mintzo dira hogeitik gora kolaboratzaile. Unibertsitateak batzuetan eskizofrenia moduko bat bizi baitu: hierarkien sustatzaile da askotan, edo kalitate adierazleen

esklabo, baina subertsiorako gune ere bada, jakin-mina eta ardura soziala dituztenen topagune. Identitate krisi horri erantzutera etorri da liburua, Casadoren hitzetan, ikerketa eta irakaskuntza prestigiotsuen ondoan unibertsitatearen hirugarren funtzioa –funtzio kulturalarena edo hedakuntzarena– hankamotz dagoela eta. Nola gerturatu herrira unibertsitatean sortutako jakintza? Nola luzatu elkarrizketarako gonbita, berdinetik berdinerara?

Askotan entzuten da, bestalde, unibertsitatea dela Erdi Aroko instituzioetatik gutxien aldatu dena. Badirudi aldaketak azkarrago gertatzen direla kanpoan, eta eskola magistralek ‘komenturatutako’, itxitako, jakintza ematen dutela. Solasaldian gure mendeko arazoez ere mintzatu ziren, tartean, unibertsitate neoliberalaz: ikaslea bezero bihurtu dela; eta bezeroa gaintituludun langabe; burokrazia neurrigabe eta zentzugabea eguneroko ogia egin zaigula; argitalpena helburu bihurtu dela, eta ez bertan esaten dena eztabaidatzeko aitzakia; munduan humanitateetan idazten diren artikuluen %90 ez dituela *inork* irakurtzen. Literalki, inork ez. Eta ez dira *fake news*-ak.

Azaluts

«Nola esan ezetz, uko egin gabe». Hori izan zen Garcésen erantzuna edo, akaso, hausnarketa. Egoera bikain aztertzeke adina jakintza badugula, baina, hala ere, askotan, erantzuteko ahalmenik gabe gaudela gogorarazi zigun. Aldizkariak artikuluz asetzea bainoago, espazio hutsak sor ditzakegu esan, entzun eta irakurri nahi dugunaren bila aritzeko.

Ez baitira hutsalak Mintegi Irekiko hizlaria bazkaltzera gonbidatzea, Txillardegiren aretoaren izaera eta hango *lunch*-ak, Aula Obertaren izana. Gehiago ere badira, kuxkuxean aritu nahi baduzue aipatuetakoetatik gertu daude, Bartzelonan bertan, Espai en Blanc, Barcelona Pensa jaialdia edo Ciutat Oberta bienala. Gurean, filosofia kalera ateratzeko

helburuarekin, Pentsatu! jaialdia egin da; gaztetxeek hamar-kadak daramatzate espazio berberari imajinazioak utzi bes-teko erabilerak berrasmutzen; udako kurtso eta jardunaldiak aukera ezagun egin dira jakintza gizarteratzeko eta eztabai beharrezkorako. Gehiagoren bila jar gaitzake edota berriak sor ditzakegu.

Kontu horietaz informazioa biltzen nenbilela, ezagutzen ez nuen hitz batekin topo egin nuen: azaluts. Esanahia bilatze-rako, emana nion nirea: espazio ireki baten antzeko zer bait imajinatu nuen, azala zuena (mugatua, zedarritua), baina hutsa (barnean edozer har zezakeena, irekia). Hiztegiak atzekoz aurrera jarri zidan asmo oneko asmamena, ordea; «itxurazalea, hipokrita» omen baita azalutsa. Aukeran, nahiago dut nirea. Irudimenari mugak jarri gabe eta inozentzia hutsez sortzea ere gauza ederra da!

Sormenerako lekua uztea, entzutera joan aurretik zer esana izan daitekeela pentsatzea, espero ez denari lekua egitea, harridura eta irudimena erdigunean jartzea... uko egin gabe ezetz esateko modu bat dira. Espazio hertsagarriak elkargune izateko hustea bezalaxe, baita zerekin bete erabaki aurretik ere. Mintegi Irekiko beste saio batean, Julián Pachok galdetu zigun noraino garen pentsatzen dugunaren erantzule. Ez dago sobera galdetzea zein neurritan eragiten digun inguruak pentsamenduan; testuinguru hurbilak zein jaio garen maila sozioekonomikoak, hizkuntzak, kulturak, herriak... Irudimenak, agian, ez du ezer berririk sortzen. Pentsatu duzue inoiz inguruko baldintzaren bat(zuk) bestelakoak izan balira noraino aldatuko litzaizkigukeen gure usterik eta sinesmenik oinarrizkoenak? Jakin dakiguna ere ez al da zirkunstantzia asko kateatzearen ondorioa besterik? Eta aukeratu gabeko egoera baten ondorio bagara, erantzukizunik ere... Determinismotik ihesi, ordea, irudimenaren eta erantzunbeharraren bueltan aritu ziren hiru liburu aurkezleak. 'Azalutsaren' hitz-jokoa hori baino ez da, hitz-joko besterik gabeko bat; erantzunbehar irudimentsuaren potentzialaren oroigarri ere izan dadila. 🍷

zugaz/
art

o
k
e
r ala zuzen

BETI

erradikal



Jakin • *eus*
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

